ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-12-03
ASTELEHENA
388. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

JOSETXO ARANTZABAL

Urkullu Aramaion izan zen zapatuan

Hango batzokiaren mendeurreneko ekitaldian, etorkizuneko erronkez egin zuen berba | 4

Isabel Salud Ezker Anitzako koordinatzaile orokorrari elkarrizketa | 7

Eguenean hasiko dira akordeoi lehiaketak Arrasaten | 15

Dagoeneko erabakita daude Oñatiko bertso txapelketako sei finalistak | 30

ATZO BETE ZUTEN EPAIA

Iazko Toberaren epaia bete da. Arrasatearrek onartu dute lehen garbigailua Bergaran egin zela eta hori baieztatzen duen plaka jarri zuten atzo Bergarako plazan. Kasua itxita, hurrengo Tobera Oñatin egingo da: Debagoieneko herriek, "oñatiarren inkomunikazio interesatua" epaituko dute. | 31

San Martin plazan jarri zuten plaka, Toberako fiskala, abokatua eta epaile nagusia bertan zirela. | JOSETXO ARANTZABAL

Kartela margotzen Bergaran. | M.A.

Euskaraz bizitzeko aldarria gaur, sekula baino ozenago

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna da gaur. Asteburuan dagoeneko ekitaldi ugari egin dira Debagoienean egun horren harira, eta baita Kontseiluak deitutako manifestazioa ere Donostian. Dena den, eguna gaur izanik, ekitaldi gehiago egongo dira gurean. | 13

Fiare banka etikoak hasi du bere bidea Debagoienean | 2

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

%15eko deskontua

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

LILURA
edertze institutuaren eskutik

► Zoaz 9. orrialdera.

Carrefour GORBEIA

Urtarrilaren 12ra arte

ZATOZ DOAN*

Carrefour...

ARRASATE
ARETXABALETA
ESKORIATZA
ETXABARRI-IBIÑA

*60 € baino gehiagoko erosketa eginda, Carrefour Gorbeiara etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

Fiare banka etikoak hasi du bere bidea Debagoienean

- "Gizartea garatzeko tresna da Fiare", dio taldeak
- Proiektua bultzatu nahi duenak parte har dezake

Fiare banka etikoaren Debagoieneko lantaldea, batzartuta. | ELKARHEZITZEN

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Banka eta etika eskutik joan daitezke, eta horren eredu da Fiare Banka Etikoa. Hamarkada bat inguru daroa Euskal Herrian lanean, baina oraintxe, 2012an zabaldu da Fiare Debagoienean ere. Tokian tokiko taldeak dira Fiareren funtzionamenduaren ardatza, eta Debagoienean dagoeneko sortu da talde hori. Bost lagun konprometitu dira sendo proiektua aurrera ateratzeko. Elkarhezitzen taldearen inguruan batu dira eta, oraingoz, hantxe dute egoitza ere: Arrasateko Jose Luis Iñarra kaleko 30. zenbakian.

Goiena Magazinea-ko Ekonomia saioan Fiareko bi kidek, Juankar Olaetak eta Elena Aizpitartek, honela definitzen dute Fiare banka etikoa: "Helburua ez da bankua, gizartea garatzea baizik. Horretarako bide bat da bankua". Beraz, gizarte proiektua da Fiare, lehenik eta behin; dena dela, bankua denez, tresna finantzarioak erabiltzen ditu eta horiek eskaintzen ditu –oraingoz, gordailu edo depositua eta mailegua–, baina betiere ikuspegi etikoa nagusi dela.

Datorren urtean espero dute Fiare sendotzea Debagoienean ere. Gainera, bultzada handia jasoko du Fiare banka etikoak, izan ere, Italiako Banca Popolare Etica (BpE) kreditu kooperatibarekin bat egingo du.

Tokian tokiko taldeak

Fiare banka etikoak baditu zenbait berezitasun, bere oinarriko filosofiatik abiatuta, hau da, erabaki ekonomiko guztiak erabaki etikoak direla.

Alde batetik, tokian tokiko taldeek erabakitzen dute ze norbanako edo erakundek egin dezaketen diru-depositua, gordailua, eta zeintzuei emango dieten mailegua. Talde horiek kudeatzen dute ere bankua. Bestetik, diruz laguntzen diren edo bezero egiten direnen helburu etikoak ziurtatzeko, tokiko talde horietan batzorde etikoa egoten da eta finantzazioa eskatzen duen proiektu bakoitza tokiko batzorde horrek aztertzen du lehenengo, eta, gero, batzorde ekonomikoak. Fiarek diru-mailegua emateko onartzen dituen proiektuak lau sektorekoak izaten dira: gizarteratzea eta ekonomia solidarioa; nazioarteko kooperazioa; agro-ekologia; eta gizarte balioekin lotuta dauden kultura, kirol edo beste arlo bateko proiektuak.

Bestalde, diru-gordailua egitea eta aurrezki-libreta eskatzea edozeinen esku dago, pertsona

ESANAK

"Helburua ez da bankua izatea, gizartea garatzea baizik"
JUANKAR OLAETA | FIAREKO KIDEA

"Kapitala ipini barik ere, tokiko taldeetan parte har dezake norberak"
ELENA AIZPITARTE | FIAREKO KIDEA

"Finantzetan, etikaz hitz egitea ez da nahikoa; etika egin egin behar da"
SERGIO MORELLI
BPE-KO ARDURADUNA

DATUAK

1,2
MILIOI EURO
Iaz, Fiarek 1,2 milioi pasa mailegatu zien Euskal Herriko sei erakunderi, zazpi proiektu finantzatzeko.

3
BULEGO
Fiarek Banca Popolare Eticarekin bat egiten duenean, hiru bulego izango ditu, bat Bilbon.

1.100
BAZKIDE SUSTATZAILE
Kapital sozialdun 1.119 bazkide zituen 2011 bukaeran Fiarek Hego Euskal Herrian; 1.046, norbanakoak.

Aitzindariarekin bat egingo du 2013an

Aurtengo maiatzean, pauso "historikoa" eman zuen Fiarek, arduradunen esanetan, Italiako Banca Popolare Etica kreditu kooperatibarekin bat egitea onartu eta gero, batzarrean. Horren ondorioz, 2013an Italiako banku horren Hego Euskal Herriko eta Espainiako ordezkaria izango da eta beste edozein bankuk bezala funtzionatuko du, banketxeek normalean eskaintzen dituzten produktuak eskaintzeko aukerarekin; orain arte, BpEren agentea izan da eta Italiako legediaz eta hango produktuekin bakarrik lan egin zezakeen. 2013an bategitea egiten denean, BpEren kapital sozialarekin eta lan-oinarriekin bat egingo dute Fiarerenek. BpEk 36.900 bazkide inguru eta 37,6 milioi euroko kapital soziala zuen joan den maiatzean, bategitea onartu zenean; Fiarek, une berean, ia 2.900 bazkide eta 3,2 milioi euroko kapital soziala.



Debagoieneko eta Eibarko Fiare proiektuko ordezkari batzuk. | LEIRE KORTABARRIA

fisiko zein juridikoa dela. Horretarako baldintza nagusia da Fiareren sorrera-printzipioekin bat datorrela jakinarazteko adierazpena sinatzea. Pertsona juridikoek kontu korrontea ere ireki dezakete.

Fiareko kide Elena Aizpitartek dioenez, "bezero gisa, beste edozein kutxatan bezala, dirua sartzeko eta aurrezteko aukera dago. Aurrerantzean, beste aukera batzuk ere egongo dira; txartel bidez dirua ateratzeko, adibidez".

Hiru bazkidetza mota

Bezero izatea Fiareren proiektuari laguntzeko modu bat da, baina beste batzuk ere badaude, eta norberak ondoen datorkiona aukeratu dezake.

Bazkide egitea oso samurra da eta hiru modu daude: pertsona sustatzailea, lankidea edo boluntarioa. Sustatzaile izan daitezke Fiare bultzatzen "protagonista izan nahi duten pertsona eta erakunde guztiak", Fiareren esanetan. Horretarako, bi diru ekarpen egiten dituzte –bat kapital sozial gisa eta bestea proiektua abian jartzeak dakartzan gastuetarako–, eta bere denboraren zati bat emateko gertu daude ere. Beste mota bat lankidea da: kasu honetan, kapital sozialean aportazioak egiten dituzte, baina ez gastuetarako aportaziorik. Denbora aldetik, ahal duten neurrian parte hartzen dute. Eta azkenik, Fiare eraikitzen laguntzu nahi duten baina kapitala ipini ezin dutenek, baina hala ere proiektuarekin bat egiten dutenek, bere denbora ematen dute Fiare zabaltzeko eta indartzeko, eta lurraldeko sarea osatzen laguntzen dute.

Debagoieneko taldearekin bat egin nahi duenak hiru bide ditu: Arrasateko euren egoitzara joatea; 943 77 17 38 telefonora deitzea; edo *elkarhezitzen@gmail.com* helbidera mezua bidaltzea.

Begirada baten

FILOSOFIA Fiare uste honetatik abiatzen da: ekonomia jarduera ez da neutrala, eta erabaki ekonomiko guztiak etika erabakiak dira.

TRESNA Fiaren parte hartzen dutenen helburua da gizartea "zuzenagoa, parte-hartzaileagoa eta gizarteratzea gehiago bultzatzen duena izan dadin".

HERRITARRAK Helburuak betetzeko, herritarren eskuetan dagoen bankua izan nahi du Fiarek. Horregatik, tokian tokiko lantaldeak dira Fiareren funtsa.

BATZORDEAK Fiareri mailegua eskatzen dioten proiektuak tokiko batzorde etiko batek aztertzen ditu lehenengo, eta haren oniritzia ezinbestekoa da. Gero, batzorde ekonomiko batek begiratzen du.

AITORMENA Fiareko bezero izan nahi duenak ere Fiareren filosofiarekin konforme dagoela aitortu behar du, horretarako dokumentu bat sinatuz.

PREMIA-PREMIAZKOA dugu aurre egitea emakume askok oraindik ere bizi duten prekarietate eta bazterketa egoerari.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana

Gipuzkoa BERRIA

berdintasuna egiteko asko

www.berdintasuna.tv



Urkullu berbetan Jesus Zabala, Josemari Velez de Mendizabal eta Xabier Agirre atzean dituela. | JOSETXO ARANTZABAL

Letra larriz idatziko den politika egiteko garaia dela esan zuen Urkulluk Aramaion

Batzokiaren liburuak EAJren espiritua sinbolizatzen duela ere esan zuen, "geroa hobetzeko iraganera begiratzen duen alderdiarena"

MONIKA BELASTEGI | ARAMAIO

Aramaioko kultura etxea lepo bete zen zapatuan Josemari Velez de Mendizabalek idatzi duen *Aramaioko batzokia: 100 urte* liburuaren aurkezpenerako. Aramaioarrekin batera, bailarako gainerako herrietako ordezkaritza zabala batu zen, tartean gaur egungo zein lehenagoko EAJko zenbait zinegotzi; baina gonbidatu izarra Iñigo Urkullu lehendakarigaia izan zen.

Aurten bete dira 100 urte alderdi jeltzaleak batzokia ireki zuela Aramaion, eta Jesus Zabala Aramaioko Uri Batzarreko lehendakariak aurkezpen ekitaldia zabaltzeko esan zuen moduan, "hori ospatzeko" elkartu ziren. Araba Buru Batzarreko idazkariak Roman Berriozabalek Arabako EAJri buruzko ikerketa lana egin du eta "horrek gogoratu digu mendeurren hau", esan zuen Zabalak. Bestalde, Velez de Mendizabal ere lan horretan oinarritu da, besteak beste, Aramaioko batzokiari buruzko liburuxka idazteko.

Abertzaleen indarra

Josemari Velez de Mendizabalek azaldu zuenez, 1912an ireki zuten Aramaioko lehen batzokia, karlistak nagusi ziren garaian; "Aramaio eta karlistak sinonimo ziren", esan zuen. Baina herrian bazegoen indar abertzalea eta handik sortu zen batzokia: "Gogor egin behar izan zuten lan abertzaletasunaren hazia ereiten". Garaiotako izen propioak azpimarratu zituen Velez de Mendizabal idazle aramaioarrak eta urteotako zenbait pasarte azalduaz Primo de Riveraren diktadurarekin amaitu zuen kontakizuna. Eta Iñigo Urkulluk hartu zuen hitza.

Letra larriz idatziko den aroa

Lehendakarigaiak Velez de Mendizabalek emandako ikuspegitik abiatuta hasi zuen hitzaldia eta ariketa proposatu zien entzuleei: historia nork egiten duen pentsatzea, hain zuzen. "Batzokiaren mendeurrena ospatzen ari garen honetan begirada atzera bota eta konturatuko gara historia pertsonek egin dutela", esan zuen, "eta orain gu ari gara historia egiten" gehitu zuen. "Duela mende bat historia idatzi zuten moduan, gu ere idazten ari gara". Eta horren harira, "aldi politiko berri baten atarian" gaudela esan zuen: "Letra handiz idatziko den aro batera hurbiltzen ari gara, eta horren sinesmena dut; hainbatetan amestu dugun garaira".

Zentzu horretan, EAJ osatzen dutenek ez dutela "ahaztuko", esanda, "orain garrantzitsuena aurrera begiratzea" dela azpimarratu zuen, "letra handiz idatziko den politika egiteko garaia" dela, "askatasunarekin eta demokraziarekin ideia guztiak askeak" direla "erakusteko eta gauzatu ahal izateko garaia".

Iparra, interpretatzen jakitea

Alderdi jeltzalearendako garrantzitsuena zer den ere ekarri zuen gogora Urkullu lehendakarigaiak Aramaion: "EAJrendako garrantzitsuena da jakitea interpretatzen zintzo eta argi herri honek nahi duena". Eta gogora ekarri zuen Jose Antonio Agirre zenak ere hori esaten zuela. "Hori da gure iparra hasiko dugun ibilbidean", esan zuen, "herritarren gogo eta ardurei erantzuten jakitea".

Hiru erronka

Herri gisa hiru erronka nagusi ditugula ere esan zuen Urkulluk. Batetik, "krisitik ateratzea ahalik eta sendoen". Bestetik, "bake giro hau sendotu ahal izatea; bizikidetza jorratu ahal izatea". Eta azkenik, "herri gisa status politiko berria lortzea autogobernuaren etorkizunerako, inoren inposaketarik gabe". Hain justu ere, azken horren harira zera gehitu zuen: "Euskadiren errekonozimendua nahi dugu Europako nazio moduan".

Erronka horiei, gainera, "konfiantzaz eta itxaropenez" aurre egingo dietela nabarmendu zuen eta gehitu zuen: "Konfiantza zuek ematen diguzue, gaurko liburua da horren adibide garbia. Gaurko ekitaldian garrantzitsuena da liburuak sinbolizatzen duen espiritua, EAJren espiritua hain zuzen; iraganera begiratzen duen alderdiarena, geroa hobetzeko".

"Euskadiren abangoardia gara" esan zuen bukatzeko, "eta horretarako atzetik babes sendoa izan behar da, eta guk badugu, liburu honetan jasota dagoena da horren adibide".

Askotariko gaiak eztabaidatu dituzte ibarreko gaztetxeek

Erantzun ona eta "helburuak beteta" Bergaran asteburuan egin diren IV. Jardunaldietan

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Gustura izandako erantzunarekin eta hizlarien mailarekin. Halaxe agertu dira Debagoieneko gaztetxeetako ordezkariak, asteburu honetan egin dituzten jardunaldiak direla-eta. Laugarren urtez jarraian antolatu dituzte; aurten Bergaran.

Lau egun eta hainbat gai aztergai, gizartean eztabaida sortzen dituztenak: gasa lurpetik ateratzeko *franking* teknika; elikaduraren burujabetza; Ipar Korearen gaineko ikuspegia; Abiadura Handiko Trena; emakumeen eta gizonen arteko rol desberdinak jendartean…

Pozik erantzunarekin

"Pozik gaude jardunaldiok izan duten erantzunarekin. Oro har, hitzaldiak eman dituztenak maila handiko pertsona ezagunak direlako, oso gauza interesgarriak kontatu dituztelako eta erantzuna ere ona izan delako" esan digu Jon Azkoagak, Debagoieneko gaztetxeetako ordezkari eta jardunaldien antolatzaileetako batek. Helburuak bete dira, hortaz. Emilio Lopez Adan *Beltza*-k, ETAri buruz jardun du; Paul Nicholsonek elikadura burujabetzari buruz; Joseba Azkarrak *Euskal Harria* liburu aurkeztu du… Angiozarrera bisitak egin dituzte AHTren obrak bertatik bertara ikusteko eta abar.

Gaztetxeetako jendeak elkar ezagutzea eta elkarrekin gauzak antolatzea, eta, bestetik, gai sozial eta politikoetan formazio teorikoa lortzea nahi izan dute eta helburuak lortu dituzte.

Paul Nicholson zapatu goizean aritu zen. Euskal baserritarren sindikatuko (EHNE) ordezkariak nabarmendu zuen badela alternatibarik kapitalismoak bultzatzen duen "kontsumo basatiari", elikadura burujabetza posible dela: "Elikagaiak nondik datozen, zeinek eta zela ekoizten dituen…, horiek, demokratikoki erabakitzea ezinbestekoa da" esan zuen.

Paul Nicholson zapatu goizean Bergarako gaztetxean. | JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL

HIESAz informatzen aritu ziren

HIESAren kontrako nazioarteko eguna izan zen zapatuan, eta Gurutze Gorrikoak informazio orriak banatzen aritu ziren Arrasaten; 500 bat banatu zituzten Seber Altuben. Arrasateko Sexologia zerbitzuak Sexotasun Astea egin du HIESAren kontrako nazioarteko egunaren harira eta zapatukoa ekimen horren baitako ekintza izan zen.

Etxegabetzeen aurkako aldarria egin zuten Oñatin

Udal Gobernuak finantza instituzioekin duen harremana berraztertuko du

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oñatiko Bilduko Udal taldeak deituta elkarretaratzea egin zuten zapatu eguerdian etxegabetzeen aurka. *Etxebizitza eskubidearen alde. Etxegabetzerik ez* leloarekin herritar talde bat eta hainbat zinegotzi izan ziren plazan.

Egueneko osoko bilkuran onartu zuten mozioaren harira etorri zen elkarretaratzea. Mozioan, besteak beste, herritarrei dei egin zieten aldarrikapenean parte hartzera. "Aldarrikatu gura dugu etxebizitzaren eskubide unibertsala, eta konkretuki gaur egun pasatzen dabilena salatu gura dugu", azaldu zuen Mikel Biain alkateak. Gaur egungo egoerak banketxeek daramaten politika erakusten duela gaineratu zuen Biainek.

Udaltzako kideak eta herritarrak Oñatiko plazan. | A.E.

Salaketa eta neurriak

Egoera salatzeaz gain, Oñatiko udal taldea etxegabetzeen aurkako plataformarekin eta Fiare banku etikoarekin harremanetan jarri da elkarlanean jardun eta protokolo bat eratzeko. Horren harira, alkateak dio Udalak ez duela gai horretan eskumen berezirik: "Eskumen berezirik izan ez arren, konpromiso batzuk hartu ditugu, mozioan jaso ditugunak". Gainera, Udalak finantza instituzioekin duen harremanean ere eragina izan dezakete konpromiso horiek: "Finantza instituzio horiek ze jarrera duten ikusiko dugu eta horren arabera eurekiko harremana berraztertuko dugu", azaldu zuen Biainek.

Gizarte zerbitzuetako bulegoarekin elkarlanean azterketa bat egiten dabiltza Oñatin. "Orain arte egon izan da kasuren bat, baina ez da ezagutu", dio alkateak. Egoera larrian daudenak gizarte zerbitzuetara jo dezatela gaineratu zuen, han "kasu larrietarako laguntzak" baitaude.

Merkatuaren logika

Azkenik, kritikatu zuen etxe kaleratzeak merkatu logika batetik egin direla eta merkatu logika hori banku eredu jakin baten ondorioa dela.

Gipuzkoako autobideetan 25 euroko gastua gehienez

Aldundiak zapatuan aplikatu zuen neurri berriak 15.000 onuradun izango ditu hilabetero

A.T. / J.B. | ARRASATE

Gipuzkoarrek autobideetan gehienez 25 euro ordainduko dute zapatua ezkero. Hori bai, neurri horretaz baliatzeko beharrezkoa izango da Via-T gailua izatea. Aldundiak adierazi du 15.000 pertsona izango direla neurri berri horren onuradunak hilero. Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak aurkeztu zuen proposamena joan den uztailean, eta alderdi guztiek alde bozkatu ostean. Bada, herenegun jarri zen indarrean eta beraz, autogidari gipuzkoarrek AP-1 eta AP-8 autobideetan hilean 25,64 euro ordainduko dute gehienez. Hau da, egungo deskontu politikari eutsiko zaio, baina gehienezko muga jarrita.

Urtekoa, 300 euro gehienez

Aldundiaren ustez neurriaren ondorioz Gipuzkoako hainbat familiak euren gastua nabarmen murriztuko dute hilean. AP-1 eta AP-8 autobideetako erabiltzaileendako urteko kostua gehienez 300 bat eurokoa izango da neurri berriari esker. Hainbat kasutan neurri berriak 700 euro baino gehiago aurreztea suposatuko duela ere diote; herritarrei ondo iruditzen zaie neurri berria. Argi utzi behar da, baina, orain arte bezala erabiltzaileak gastu osoa ordainduko duela, baina hurrengo hilabetean itzuli egingo zaiola 25,64 euroak gainditzen dituen kantitatea.

Neurriaren ondorioz Bidegik, 1,5 milioi euro gutxiago jasoko ditu gutxi gorabehera. Hala ere, Ugartek adierazi zuen foru arauak ez duela desoreka ekonomikorik sortuko Bidegi erakunde publikoarendako, kopuru hori errepideak mantentzeko kontratuaren murrizketarekin orekatuko dutelako.

Asistentziazko elkartea izango da Harrera taldea

Taldeko bazkide egiteko orriak banatu zituzten Arrasaten, zapatuko aurkezpen ekitaldian

A.E. | ARRASATE

Preso eta iheslari ohiei bizimodu duina bermatzea helburu duen Harrera taldea aurkeztu dute Arrasaten. Igor Letonak egin zituen aurkezpen lanak, eta argibideak elkarteko zuzendaritza mailan lan egiten duten Juan Carlos Ioldik eta Jon Ugartek eskaini zituzten.

Ugartek elkartea osatu arteko ibilbidearen errepasoa egin zuen. "Errealitatearekin preso ohiak ohartu ziren. Zer egin behar dugu atzetik datozenekin?" izan zen euren galdera", esan zuen Ugartek.

Hiru zutabe ditu taldeak

"Izaera nazionala du, asistentziazkoa da eta eremu politikotik kanpo dago elkartea", definitu zuen Ioldik. Presidentea, diruzaina eta idazkaria izango dira, hurrenez hurren: Andoni Iturriotz, Sebas Barinaga eta Ainhoa Erkizia. Elkarteak hiru zutabe izango ditu: koordinazioa; administratibo eta juridikoa; eta, lana.

Ioldi, Letona eta Ugarte aurkezpen ekitaldian. | A.E.

Juan Jose Ibarretxe: "Baloreen krisia da globala, krisi ekonomikoa lokala da"

A.T. / J.B. | ARRASATE

Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak kooperatibismoari buruzko hitzaldia eman zuen eguen arratsaldean Arrasaten. Krisi garaian aurrera egiteko gakoei buruz egin zuen berba eta azaldu zuen baloreetako krisi global baten aurrean egon arren, krisi ekonomikoa lokala dela: "Ez daukagu krisi ekonomiko globala, globala da baloreen krisia. Krisi ekonomikoa lokala da; enpresa batzuk ondo egon daitezke eta beste batzuk ez". Horri aurre egiteko, kultura eta zoriontasuna kontuan hartzea ezinbestekoa dela esan zuen Ibarretxek, Arizmendik antolatutako hitzaldian.

Alustiza, Ibarretxe eta Ortega eskola politeknikoan. | AMAIA TXINTXURRETA

XUXU
Neurriak 36-54
11. urteurrena
Eskerrik asko, denoi!
Abenduak 6, ZABALIK
EGUN BEREZIA
%20ko deskontua
Levi's
Banatzaile ofiziala
San Pedro kalea 14, behea • Tel. 943 76 07 55 • BERGARA

Paradisua eta katuak
(liburua - DVDa)
Bernardo Atxaga
Musika: Jabier Muguruza
Lehenengoz eta behin, kontaera bat da. Ez ordea tonu edo forma beti berdinekoa, osagarri baititu hainbat atal berezi: ipuinak, poemak, pasarte komikoak eta gogoetak. Batzuetan, katu kontuak aipatzen dira; bestetan, adineko andre batenak edo zeharo pozik dagoen apaiz batenak....

PAMIELA
www.pamiela.com

Debagoiena eskualde liderra da informazio-teknologiak erabiltzen

- EAEko enpresek zenbateraino erabiltzen dituzten neurtu du Eustatek
- Debagoienak ditu datu onenak, euskarazko webgune proportzioan ere

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoiena liderra da Informazio eta Komunikazio Teknologiak dituzten eta erabiltzen dituzten enpresen kopuruan, Euskadi osoa hartuta. Hiriburuek ere ez dute hain maila handirik. Hain zuzen, 10 langile edo gehiago duten enpresen gaineko estatistika egin du Euskadiko Estatistika Erakundeak, Eustat-ek, eta Debagoiena nabarmentzen da kategoria gehienetan, baita euskarazko webguneak dituzten enpresen kopuruan ere. Aurtengo datuak dira.

Webguneen %75, euskaraz ere

Webguneak dituzten enpresei begiratuz gero, berriz ere Debagoienak du datu onena (%89,7); gero datoz Arratia-Nerbioi (%88,9) Bizkaian eta Gorbeiako inguruak (%87,1) Araban. Donostian, enpresen %84,5ek daukate.

Internet baduten tamaina horretako enpresen artean, Gipuzkoan Debagoiena eta Debabarrena nabarmentzen dira (%100); Durangaldea, Bizkaian (%99,5); eta Arabako Ibarrak (%98,7). Donostian, %97,1ek dute Internet.

Euskarazko webguneetan dauka Debagoienak bigarrenarekiko alde nabarmenena: webgunea duten establezimendu edo enpresen %75,7k daukate euskarazko aukera ere; %60k, Urola-kostan eta Goierrin; eta %50ek baino gehiagok Tolosan, Donostialdean eta Debabarrenean. Bizkaian, Markina-Ondarroan eta Gernika-Bermeon, web orrien erdiak baino gehiagok euskarazko aukera dute; hurrengo portzentajeak %40 azpikoak dira. Arabako Mendialdean erdiak pasa dira webgunea euskaraz ere ematen duten establezimenduak.

Bilbon eta Gasteizen, webgunea duten enpresen %40k baino gutxiagok ematen dute euskarazko aukera.

ESTABLEZIMENDUAK ETA IKT-AK

ESKUALDEA	INTERNETEKIN	TRAMITEAK INTERNETEZ	WEBGUNEA DUTE	WEBGUNEA EUSKARAZ ERE	KOMERTZIO ELEKTRONIKOA
EAE	96,7	87,8	81,6	41,8	24,9
Gipuzkoa	97,4	89,5	82,2	55,5	29,1
Bidasoa Beherea	95,0	83,5	79,3	46,1	17
Debabarrena	100,0	89,9	85,6	52,4	42,8
Debagoiena	100,0	97,3	89,7	75,7	32,4
Donostialdea	97,4	89,5	80.1	52,7	27,7
Goierri	97,9	93,1	85,7	60,1	26,6
Tolosaldea	98,0	88,1	85,0	53,8	32,2
Urola-Kosta	94,1	85,4	80,2	58,4	32,4

*EAEko 10 langile edo gehiagoko establezimenduak dira, portzentajetan. ITURRIA: EUSTAT

Administrazioekin harremana

Internet eduki eta administrazio publikoekiko tramiteak egiten dituzten enpresak bereziki ugariak dira Debagoienean (%97,3); Gernika-Bermeon (%93,7), Bizkaian; eta Kantauri arabarrean (%92,2). Euskadiko hiru hiriburuetan, portzentajeak oso antzekoak dira: %85etik gorakoak.

Sare informatiko propioa dute Debagoieneko 10 langile edo gehiagoko ia enpresa guztiek, %98,7k; Bizkaian, Arratia-Nerbioiko eta Durangaldeko %96 pasak; eta Araban, Ibarretako %95ek. Kode irekiko programak dituzten enpresen kopurua txikiagoa da kasu guztietan; Gipuzkoan, Goierrik du datu handiena (%85), eta Debagoienak %82ko datua dauka.

Komertzioan, ez hainbeste

Datu apalenak, orokorrean, merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen arloan daude. Gipuzkoan, Debabarrenak du datu onena (%42,8); Debagoienak, Tolosaldeak eta Urola-Kostak %32 pasako datua dute.

Arrasatetik Donostiara autobusean joatea merkeagoa izango da

- Txartel bakarraren zonifikazio berria jarriko da indarrean martxoan
- Eskualde artean salto gutxiago izango dira; hortaz, prezioa txikituko da

L.K. | ARRASATE

Garraio publikoaren txartel bakarraren inguruan zonifikazio berria izango da 2013an, eta erabiltzaile "askok" abantaila ekonomikoa izango dutela jakinarazi du Foru Aldundiak.

Zonifikazioa bateratu egin da, eta, horrekin, zona batetik bestera pasatzeko saltoak edo jauziak ere bai. Eskualde batetik bestera pasatzean salto bat egiten da, eta horrek tarifa aldaketa dakar. Lehen baino salto gutxiago izango dira ibilbide nagusietan, eta horrek gutxiago ordaindu beharra ekarriko du.

Adibidez, Debabarrenetik (Eibar) Donostialdera datorrenak lehen hiru salto zituen eta martxotik aurrera bi izango ditu; Debagoienetik (Arrasate) Donostialdera doanak ere salto bat gutxiago izango du, lautik hirura. Beste eskualde batzuetan ere salto kopurua txikitu egin da zonifikazio berriaren ondorioz.

Denetara, gaur egun bi, hiru edo lau salto dituzten bidaien %37k, bat gutxiago izango dute. "Beraz, erabiltzaile horientzako Txartel Bakarrarekin bidaiatzea orain baino merkeagoa" izango dela azpimarratu du Foru Aldundiak. Emandako bi adibideetan, Eibartik Donostiara joaten den Lurraldebus txarteldun bidaiariak 4,55 euro ordaintzen du lehenengo bidaia, eta martxotik aurrera 3,58 ordainduko du; eta Arrasatetik Donostiara doanak, oraingo 3,47 euroak ordaindu beharrean, 2,42 ordainduko du.

Lurraldebuseko autobus bat. | LARRAITZ ZEBERIO

Orain arte bezala, Lurraldebus txartelarekin bidaiak egiten doan neurrian, deskontua izango du bidaiariak prezioan.

Bidaia guztiak kontatuko dira

Beste hainbat abantaila ere iragarri ditu Foru Aldundiak. Hala, txartel bakarrean sartzen diren garraio modu guztien bidaiak kontagailu berean gehituko dira, hau da, Lurraldebuseko, Euskotreneko, Dbus eta Errenteriako eta Irungo urbanoen bidaia guztiak hartuko dira kontuan deskontuen tartea kalkulatzeko. Bidaia guztiak kontatuko direnez, samurragoa izango da deskontu handiagoetarako zatietara ailegatzea.

Bestalde, Lurraldebuseko autobus batetik bestera aldatzeak doakoa izaten jarraituko du, eta Dbusekoen artean ere bai. Hau da, operadore bakoitzaren barruko aldaketak doan izango dira. Garraio modu desberdinak erabiltzen direnean, bidaiarik garestiena (dagokion deskontuarekin bidaia kopuruaren arabera) ordainduko da, eta merkeenaren %25 (bidaia kopuruen araberako deskontua aplikatu eta horren %25a).

29 milioiko inbertsioa

2013ko aurrekontuetan 29 milioi euro ipini ditu Foru Aldundiak garraio publikorako. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko aurrekontuaren %24,54 da kopuru hori.

DATUA

3,58

EURO

Arrasatetik Donostiara lehen bidaia 3,58 euro kostako da; orain, 4,55 da.

Laneko bizi-kalitatea hobetzeko gida, sarean

L.K. | ARRASATE

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak *Laneko Bizi-kalitatea* delako gidaliburua argitaratu du, enpresek errazago hobe ditzaten langileen lan-baldintzak. Internetetik, *www.euskadi.net/gizartelan* eta *www.euskadi.net/concilia* webguneetatik ere jaits daiteke gidaliburua. Enpresetako Gizarte Erantzukizuneko Esparru Planaren barruan argitaratu dute gida.

Kontzeptu aberatsa

Lantokiko bizi-kalitate kontzeptuaren barruan, lan-baldintzak hobetzeko erakundeek praktikan ipintzen dituzten neurriak biltzen dira gidaliburuan, honako helburuekin: enpleguaren egonkortasuna, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, pluraltasuna kudeatzea, konpentsazioa, denbora eta espazio-malgutasuna, ongizate fisikoa, kontziliazioari laguntzea, langileen partaidetza, gatazkak konpontzea, eskubide sindikala errespetatzea, segurtasuna eta garapen profesionala.

Isabel Salud | Ezker Anitzako koordinatzaile orokorra

"Kapitalismoaren kontra, kalean murgilduko gara gure siglen azpian edo eragile sozialekin"

- Euskadiko Partidu Komunistako idazkari nagusi izandakoa da orain Ezker Anitzako buru
- Haren ustez, "bizitzarik bada Legebiltzarretik harago!", eta kalean egingo dute lan

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Isabel Salud (51 urte) bergararra da Ezker Anitzako koordinatzaile orokorra, Mikel Aranaren ordez. Euskal Partidu Komunistako idazkari nagusia izan da orain arte. Katalana sortzez, 1989tik bizi da Bergaran eta Eibarko Udalean egiten du lan. Ezkerreko koalizioari bultzada ematea du helburu eta, dagoeneko, lanean jarria da.

Zer moduz kargu berriarekin, zela hartu duzu?

Lan askorekin, esan ohi den moduan, apurka-apurka, lur hartzen. Alderdikideekin eta hiru lurraldeetako ordezkariekin batzartu, gainerako eragile sozial eta alderdi politikoetako ordezkariekin egon... Halakoetan dihardut orain. Oraindik ez dakit gure koalizioari eskainiko diodan eguneko ordu guztiak ala zela antolatuko dugun guztia. Begiratzen gabiltza. Izan ere, egoera ekonomikoa ere ez da egokiena eta legebiltzarkiderik ez daukagunez, areagotu egiten dira zailtasunak gurea bezalako erakunde txiki batean.

Ezker Anitzak beste aro bat ireki du azken hauteskundeetako porrotaren eta koordinatzaile berria aukeratzearekin batera?

Bai, hori hala da. Legebiltzarrean egoteak ematen zizkigun aukerak. Izan ere, guk bi alorretan egin izan dugu lan: batetik, kalean, jendearekin, hiritarrekin, manifestazioetan-eta. Eta, bestetik, arlo instituzionalean. Bi fronte osagarri dira. Aurrerantzean, ordea, azkeneko urteotako joera hautsiz, kalean bakarrik egingo dugu lan, salbuespenak salbuespen, hainbat udaletan ere badugulako ordezkaritzarik. Hortaz, Legebiltzarrean ez egoteak zailtasunak eragingo dizkigu, gure mezua hiritarrei zailago helduko zaie. Izan ere, ez dugu ahaztu behar, Legebiltzarra, bozgorailu izateaz gain, legeen sorleku ere bada. Gure mezuaz gain, beste gizarte eragileenak ere helarazteko aukera ematen zigun Legebiltzarrak eta, orain, ezingo dugu hori egin. Edozelan ere, are eta grinatsuago egingo dugu lan aurrerantzean. Bizitzarik bada Legebiltzarretik harago!

Zein da, une honetan, Ezker Anitzaren helburu garrantzitsuena, urgenteena?

Krisi ekonomiko honek behartsuenei edo premia handiena dutenei bakarri ez kolpatzeko borrokatuko dugu. Txarto pasatzen ari direnei laguntzea, hori da une honetan gure helburu nagusia. Eta, hori aurrera ateratzeko, kalean murgilduko gara gure siglen azpian edo bestelako eragile sozialekin batera. Esaterako, Stop Desahucios! plataformarekin aktiboki ari gara lanean. Bestetik, ez dugu ahaztu behar bi urte eta erdi barru, Udal eta Foru hauteskundeak izango direla eta lanean jarriko gara haietarako ondoen prestatzeko. Gaur egun ordezkaritza daukagu hiri edo herri handietan, Errenterian, Pasaian, Barakaldon..., baita Eskoriatzan ere, baina gehiagotan eta batzar nagusietan egotea lortzeko lanean jarriko gara.

Isabel Salud, Bergarako San Martin plazan, egubakoitzean. | JOSETXO ARANTZABAL

"Bozgorailu izateaz gain, legeen sorleku ere bada Legebiltzarra"

"Aktiboki ari gara lanean Stop Desahucios! plataformarekin"

Ezker Anitza eta Ezker Batua elkarrekin joan izan bazinete, 3 legebiltzarkide lortzeko moduan izango zinatekete. Egin duzue irakurketa hori?

Saiatu ginen Equorekin batera aurkezten, baina gure eskaintza ez zuten aintzat hartu. Egia da garrantzitsua dela batasuna, horrek gehitu egiten duelako, baina Ezker Batuarekin batera joan ala ez eztabaidatu genuenean, garrantzi handia eman genion etikari, zintzotasunari, gardentasunari. Guretako berba garrantzitsuak dira, ezinbestekoak. Bestetik, politikan, apustu egin dugu proiektu federal, kapitalismoaren kontrako eta errepublikarraren alde. Horretan, aldendu nahi izan gara Eusko Jaurlaritzan EAJrekin batera osatu genuen gobernuetatik. Abertzaletasun eskumakoarekin distantziak markatu nahi izan ditugu. Horregatik, iruditu zitzaigun Ezker Batuarekin batera aritzeak, batu beharrean, kendu egingo zigula.

Hainbat eragilerekin elkartu zarete oraingo astean, esaterako, EH Bildurekin. Zer moduz?

Batzarra EH Bildukoen eskariz egin dugu eta mahaiaren gainean ez da egon inolako proposamen estrategikorik. Harremanak bideratzeko batzartu gara, bereziki.

"Garrantzi handia eman genion etikari, zintzotasunari, gardentasunari"

"Indarrean dagoen Hauteskunde Lege perbertsoak kalte handia egiten digu"

Adostasunak ditugu ekonomia edo gizarte ereduari dagokionean, baita bakegintzari eta normaltasun politikoari dagokienean ere, erabakitze eskubidearen kontuan bat gatoz-eta. Hortik aurrera, ikusiko dugu zer ematen duen gure arteko harremanak.

Ezker Batuarekin?

Hautsita daude zuzendaritzen arteko harremanak, bereziki, Arabako eskandaluetan zerikusi zuzena izan zutenekiko. Oinarrietan, harremanak samurragoak dira.

Ezkerra ez duzue banatuegia ikusten?

Bai, hala da. Horrek ahuldu egiten gaitu. Askotan ez dugu eskuzabal jokatzen eta nabarmentzen ditugu ezberdintasunak eta hori ez da ona, bereziki, testuinguru eta koiuntura honetan, non kapitala, beste behin, modu basatian ari den jokatzen.

Ze balorazio egin duzue azken hauteskundeetako porrotarena?

Kanpo faktore batzuek kalte egin ziguten; esaterako, Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiak gu eztabaida politikoetatik eta hedabide publikoetako doaneko espazioetatik kanpo uzteko. Bestetik, egia da inkestek-eta beste emaitza batzuk aurreikusi zituztela, gero bete ez zirenak. Eta, azkenik, gogoratu nahi dut UPyD baino 10.000 boto gehiago lortu genituela, baina haiek ordezkaritza lortu zuten moduan, gu ezer barik geratu ginen, Hauteskunde Lege perbertso honen ondorioz. Kalte handia egiten digu indarrean dagien lege honek.

Izquierda Unidak gora egin du Espainian, Iniciativak ere bai Katalunian. Hemen, ordea, behera egin duzue. Zuen espazioa beste batzuek ez dute okupatzen?

Ordezkatu nahi dugun horrek badu tokia Euskadin. Esan duda moduan, kapitalismoaren aurkako ezker federalista eta errepublikaren aldekoa ordezkatu nahi dugu eta, horrek, badu tokia hemen eta orain. Gainera, hori ez du beste inork ordezkatzen, ezta Alternatibak ere. Gure helburua da espazio hori geureganatzea eta bere ahotsa izan dezala Eusko Legebiltzarrean

Alderdi Komunistak pisu edo eragin handiagoa du orain Ezker Anitzan?

Ez, lehen zuena bestekoa du. Egia da ni EPKoa naizela eta Mikel Arana, esaterako, ez zela. Baina pertsona egokiaren bila joan gara, eta ez hark edo bestek ordezkatzen duen sentsibilitatearen bila.

ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU
http://goiena.net/iritzia/

Hanka sartze galanta!

Uztailean, Estatuko buletinean, argitara eman zuten irailetik aurrera indarrean sartuko zela 37/1992ko BEZaren gaineko legearen aldaketa. 1992ko legean, heziketa fisikoarekin eta kirolarekin lotutako zerbitzuei BEZ murriztua aplikatzen zitzaien: %8. Uztailaren 14an argitaratutakoan, ez dago heziketa fisikoarekin eta kirolarekin lotutako zerbitzuei BEZ murriztua aplikatzerik. Orain arte %8 aplikatzen zitzaien zerbitzuei, irailetik aurrera %21 aplikatu behar zaiela. Honek esan nahi du, kiroldegietan, enpresen bidez, lan egiten duten monitore eta sorosleen kostua %13 igo dela; eskola kirolean edota heziketa fisikoan, enpresen bidez aritzen diren monitoreen kostua %13 igo dela; gimnasioetan ematen diren zerbitzuak %13 igo direla... Kostuen igoerak, lehenago edo geroago, eragina du prezio publikoetan, eta hau oztopo bat izango da, batzuentzako gaindiezina. Ondorioz, kirola praktikatzen dutenen kopurua jaitsi egingo da, Portugalen duela urte gutxi gertatu zen bezala.

"Loditasuna eta sedentarismoa XXI. mendeko izurriteak dira"

Munduko osasun erakundeak estatuei gomendatzen die jarduera fisikoa sustatzeko, eta Espainiako Gobernuak BEZa igo du…

Sedentarismoa da munduan hilkortasuna gehien eragiten duten arazoetan 4.a. Loditasun arazoak dituztenek beste hainbat gaixotasun izateko aukera gehiago dituzte: diabetesa, bihotz sisteman arazoak, artikulazio arazoak. Ahaztu gabe loditasuna pairatzen dutenek *kostu handia* dakartela familientzako, osasun sistemarako, eta lan sistemarako. Kontuan hartzen badugu loditasuna eta sedentarismoa XXI. mendeko izurriteak direla, Estatuko loditasun tasa munduko altuenetakoa dela (ikerketa batzuek diotenez AEBetakoa baino altuagoa), bidea ez dut uste aproposena denik. Euskadin, datuak zertxobait hobeak dira, baina hemen ere kezkagarriak. Hau guztia ikusita, nire ustez, Gobernuaren erabakia hanka sartze galanta izan da. Ondorioak oso negatiboak izango dira bai gure poltsikoetan, gure ongizatean, osasun sistemaren gastuetan, eta baita lan merkatuan ere.

USTEAK USTE

UBANE MADERA | 'umadera@goiena.com'

'Vs' gabe

Kataluniako hauteskundeetan ikusi dugu helburu bera izan arren (independentzia) CiU eta Esquerra ez direla gauza izan, aldez aurretik behintzat, helburu komun horren alde batera jarduteko. Ikusi dugu, baita ere, gehiengoak helburu horrekin bat egin arren, beste kezka bat ere baduela: murrizketak. Hortik Esquerrak irabazitako boto kopuru ikusgarriaren zati bat. Agerian, beraz, alderdiek ez dutela gustuko *a priori* indarrak batzea, nahiago dutela nork bere aldeko apustua egin. Eskuma vs ezkerra. Baina, interes handi komunak daudenean, *vs* hori ezin da desagertu? Euskadiko gehiengo abertzalearen eragina igarri nahiko nuke, ba, neuk, bereziki, euskarari dagokionez. *Vs* gabe.

KALE INKESTA

Non erosten dituzu Gabonetako opariak, herriko dendetan ala merkataritza-gune handietan?

MIKEL LARRAÑAGA
ANTZUOLA

"Normalean, zentro komertzialetara joaten gara, herrian baino aukera gehiago eta denetarik egoten delako".

MIRARI OSINALDE
ANTZUOLA

"Gauza batzuk herriko dentetan erosi ditut eta beste batzuk, berriz, zentro komertzialetan. Denboraren arabera".

MARI ANGELES BARRERO
ANTZUOLA

"Herriko dendetan erosten ditut, herriari ere lagundu egin behar zaiolako eta kalitatea ere hobea izaten delako".

AITOR ATXA
ANTZUOLA

"Lehenengo, aukerak begiratzen ditut, eta ondoren erabakitzen dut. Gaur egun, Internetez ere erosten ditut batzuk".

HANDIK ETA HEMENDIK

Teleikuslea erakartzeko

Aritz Galarraga
www.berria.info/blogak/ekografiak/

Momentu batez larritu nintzen.

Momentu labur batez: azkar asko konturatu nintzen unibertsitate ikasle nintzeneko garaiak aspaldi joan zitzaizkidala.

Eta, gainera, zer demonio, nik ez dut sekula ikasi Deustuko Unibertsitatean.

Baina eta gaizki esan bazuten unibertsitatearen izena?

Tira, berdin aspaldi utzi nituen ikasle garaiak.

Eta irakasleen argazkirik ez zuten hedabideek aipatu –eta eskerrak, ikasleen desbideratze sexualen aldean, askoz ere makurragoak baitira irakasleonak.

Asteazkeneko notizia izan zen:

Deustuko Unibertsitateko ikasle batzuen argazki pribatu batzuk jaso zituzten beste ikasle batzuek.

Batek baino gehiagok nekez bilduko zuen begirik asteazkenetik ostegunerakoan.

Besteak beste, tira, ikasle komunitatearen eskuetan baleude soilik argazki konprometituak, bada, begira, ez litzatekeelako hainbesterako izango.

Baina notiziak hedabideetarako bidea egin zuen berehala, eta, okerrago, ez soilik notiziak, baita argazki pribatuek eurek ere.

Ea, egia esate alde: argazki pribatuek ez zuten egin zehatz hedabideetarako bidea, baizik eta hedabide jakin batzuetako saio jakin batzuetarakoa.

Eguerdiko Gaur Egun-en sartzeko denborarik ez, eta *Teleberri*-n eman zuten notizia, unibertsitate giroko irudi atenporalekin lagundua.

Argazki pribatuak etorri ziren gero, arratsaldean, *Euskadi directo*-n, adibidez.

Eta hemen esan genuen Amaia Egañaren hilketaren harira –bide batez, asteazkenean bertan desjabetzeekin zerikusia izan dezakeen beste heriotza bat izan zen Donezteben, Manuel Reguerarena–: zerbait, gertakari-gai bat, *Euskadi directo* gisako saio batean agertzen bada, malo.

Hara: neska –eta soilik neska– biluziak erakusten zituen argazki sorta pasatu zuten notizia eman bitartean, lasai arraio.

Titi bistan beti, baina aurpegia pixelatuta, noski.

Eta auskalo argazki horiek Deustuko Unibertsitateko ikasleenak ziren ere –nik, behintzat, ez nuen bakar bat ezagutu.

Bost axola.

Okerrena:

Euskadi directo-z espero genuena arratseko albistegietan errepikatu zela.

Eta hori bai ez genuela espero: berdin joan ziren neska –eta mutil baten– biluziak erakusten zituen argazki sorta.

Eta esango dut argazkien afera ez zaidala bereziki eskandalagarria iruditzen.

Hedabideek teleikuslea erakartzeko hain errepimitua dugun sexuaren morboa baliatzea ez bezala.

Addenda:

Akats teknikoa izango da, noski, baina ezin da ETB *Nahieran*-en astezkeneko *Euskadi directo* saioa ikusi.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Monica Belastegi
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SARI NAGUSIA

XBOX 360 + HALO REACH JOKOA

Bidali KLUBA XBOX [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

EROSKI

SARI SORTA

CD-a

Juan Carlos Irizarren, "Oñati eta Oñatiko auzoak"
Bidali KLUBA CD [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



LIBURUA

Jokin Zaitegi saria 2011 "Bizientzat eta hilentzat", Tomas Tranströmerren obra, Juan Mari Aguirreurretak itzulita.

Bidali KLUBA LIBURUA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

aed arrasate euskaldun dezagun

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: *kluba@goiena.com*
WhatsApp bidez: 688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Urteko kuota: **50 €**. | Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*

goienakluba" Abantailaz betetako kluba!

Atera etekina

goienakluba" 2012

%15 eko deskontua

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
LILURA
Edertze Institutua
Bergara, 943 76 31 71

- **%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).**
- %20 elikagai-intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

Bazkidearentzat eta lagunarentzat.

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAI

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

BEGIONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER
SUKALDEAK
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

IZENADUBA BASOA
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Alejandro Cristobal | Alderdi independenteko zinegotzi Elgetan (1979-1983)

- Mediku eta hondakin kontuak kudeatzen zituen
- Lan asko auzolanean ateratzen zituzten aurrera
- Gaur egun ez du politikariengan sinesten

"Oso momentu gogorrak eta arazo ugari izan genituen gure lehenengo legealdian; uzteko modukoa izan zen"

Alejandro Cristobal, Elgetako udaletxearen aurrean. | A.T.

AMAIA TXINTXURRETA | ELGETA

Alderdi independenteko Elgetako udal ordezkaria izan zen Alejandro Cristobal 1979 eta 1983. urte bitartean. Zinegotzi moduan egon zen garaian hainbat proiektu aurrera eraman zituzten eta momentu onak zein gogorrak gogoratzen ditu orain.

Zein ardura zeneukan Udalera sartu zinenean?

Osasun gaiak eramaten nituen garai hartan; hondakinak eta mediku kontuak kudeatzen nituen nik beste alderdikide batekin batera. Orduan ez ziren existitzen gaur egun ezagutzen ditugun bezala Ingurumen zinegotziak eta horrelakoak. Bederatzi edo hamar zinegotzi geunden; gure alderdiko lau kide eta bizpahiru jeltzale eta beste horrenbeste Herri Batasunekoak. Alkatea gure alderdiko Patxi Basauri izan zen eta 10-15 lagunez osatutako komisio bidez egiten genuen lan.

Zein proiektu eraman zenituzten aurrera?

Osasun etxeko kontuak aurrera eraman genituen, Mankomunitatea ere orduan edo pixka bat lehentxeago sortu zen eta eurekin batera eramaten genuen hondakinen kontua ere, plan urbanistikoa Elgetan jartzeko antolaketa guztia ere geuk egin genuen; gainera, saria eta guzti irabazi genuen. Herriko poligonoa ere garai hartan egin genuen. Elgetan mugimendu handia zegoen garai hartan: autogestioa, Ikastola, auzolanean egindako lana...

Udalean zeuden gainontzeko alderdikideekin nolako harremana zenuten?

Nik uste dut nahiko ondo konpontzen ginela, orekarekin eramaten genituen gauzak. Adibidez, gogoratzen dut Herri Batasuneko zinegotzi gogor bat egon zela gure legealdian, Zabalondo, hark nahiko presio egiten zigun eta hainbat gorabehera izan genituen, baina nahiko harreman ona geneukan, orokorrean, guztiekin.

> "Elgetako plan urbanistikoaren antolaketa aurrera eraman genuen"

> "GALekoek mehatxuak ere utzi zizkiguten gure postontzietan"

Garai hartako zein oroitzapen dituzu?

Momentu gogorrak bizi izan genituen herrian garai hartan. ETAkoa zen Elgetako gure lagun bat atentatu batean hil zen. Omenaldi handia egin genion, poliziaz bete zen herria, udaletxean lehergailu bat ipini ziguten, beste taberna batean dinamita mordoa jarri zuten, postontzietan GALekoek mehatxuak utzi zizkiguten... Oso momentu gogorrak izan ziren guztiontzako, eta, nola ez, baita familia horrendako ere.

Momentu konplikatuak bizi izan zenituzten, orduan?

Bai, oso momentu gogorrak eta arazo ugari izan genituen gure lehenengo legealdian; uzteko modukoa izan zen. Eskolen kontuengatik ere mehatxuak jaso genituen. Eskola biak, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa, elkartu egin genituen eta mehatxuak jaso genituen. Azkenean, ezerezean gelditu zen kontua, baina arazo ugari izan genituen, bai. Eskola publikoa jarri genuen guk, eta batzuek ez zuten nahi, protestak egon ziren eta alde guztietatik nahiko arazo izan genituen. Baina nik pentsatzen dut herritarrak nahiko konformeme egon zirela, orokorrean, gurekin eta baita beste alderdikoekin ere.

> "Eskola publikoa jartzeagatik protesta ugari jaso genituen"

> "Pertsonalki egiten genuen guk lana; orain, zeharo desberdina da"

Zure legealdiaren ostean politikan jarraitu zenuen?

Beste pare bat legealditan zerrendetan azkena izan nintzen, baina gero jendea aspertu egin zen independenteekin. Gure dirutik ateratzen genuen guztia eta orduan ez genuen egun alderdiek jasotzen duten laguntzarik.

Uste duzu herrian gaur egun baino mugimendu handiagoa zegoela garai hartan?

Bai, nik uste dut jendeak orduan ikusten zuela aldaketa erraza zela, eta interes handia zegoen gauzak egiteko. Orain, berriz, pentsatzen dut jendeak ez duela sinesten politikan.

Zeuk gaur egun jarraitzen duzu politikan?

Ez, ez daukat alderdirik. Azkeneko hauteskundeetan ere zeini bozkatu jakin gabe ibili nintzen. Orain ia ez dut sinesten politikariengan. Guk lanak pertsonalki egiten genituen; norabait aitzurrarekin lanera joan behar bazen, geu joaten ginen, eta ezer kobratu gabe. Zeharo desberdina da orain kontua.

HERRIAK

ARRASATE

"Erakusleihoa garrantzitsua da, saltokiaren aurpegia da"

▸ Gabon sasoian hasten da erakusleiho-atontzaileendako urteko maratoirik handiena

▸ Ricardo Vazquez atontzailea abuztuan hasi zen Gabonetarako lanean

UBANE MADERA | ARRASATE

"Erakusleihoa ez da biltegi bat. Saltoki on batek erakusleihoa ondo aprobetxatu beharko luke. Izan ere, erakusleihoa da daukazuna erakusteko, salgai duzuna erakusteko, eta zeini zuzendutakoa den erakusteko. Erakusleihoa aldatu egin behar da, 15-20 bat egunetik behin. Eta zerbaitetan inbertitu behar bada, erakusleihoaren iluminazioan inbertitu behar da. Azken batean, erakusleihoa da saltokiaren aurpegia".

Adituen edo dakitenen aholkuak aintzat hartzea komenigarria eta aberasgarria izaten da, eta aholkuak doakoak direnean ba hobe, gainera.

Bada, guk eskatu eta Ricardo Vazquezek (Arrasate, 1968) pozik eta doan eman dizkigu aholkuok, gure bitartez dendariei helarazteko. Izan ere, aditua da bera erakusleiho kontuetan, erakusleiho-atontzailea da-eta, ofizioz eta ikasketez.

Zortzi urte daramatza zeregin horretan, hobbie moduan hasi bazen ere. "Benetton, Maalako bitxi-denda, plazako optikekin ... eta jakina, etxeko saltokiaren, Altuna Lurrindegiaren erakusleihoarekin hasi nintzen; eta gaur egun Arrasateko hainbat erausleiho atontzen ditut urte guztian zehar: Koro Zabaleta, Sikol, BC Gazte, Okendo Natura Confort, Disdira, Karrikiri eta Altuna, eta lehen Ane's zapatadenda ere bai".

Errekonozimendua ere lortu du, gainera, bere ofizio horretan. "Sei sari inguru eskuratu ditut erakusleiho lehiaketan".

Altuna Lurrindegiko erakusleihoa, *Gabonetako iratxoa* izenburuduna; argazkian, Ricardo Vazquez atontzailea. | ALTUNA

Gabonetako maratoia

Dena den, orain, Gabon sasoian hasi zaio urteko maratoia Vazquezi: "Joan den eguenean Altunako erakusleihoarekin hasi nintzen, eta oraingo astearen eta datorrenaren bitartean, beste lau (bosgarrena konfirmatzeko dut) apaindu behar ditut".

Edozelan ere, hasi, abuztuan hasi zen lanean. "Aurten bai. Altuna Lurrindegiaren erakusleihoan ikusten duzun guztia eskuz egindakoa da: panpina, dragoia, adarrak menditik hartu eta margotutakoak dira... eta ideia bera ere oso laster pentsatu nuen. Niretako hobbie moduko bat da. Esan beharra dut, baina, Altunako erakusleihoa oso garestia litzatekeela edozein bezerorendako, sartutako ordu kopuru altuarengatik. Adibidez, datorren urterako ideia ere dagoeneko pentsatuta daukat, eta materiala ikusi ahala eskuratzen joango naiz".

Erakusleihoa eta salmentak

Zer hartu behar da, baina, kontuan erakusleiho bat atontzeko orduan? "Batez ere dendaren bezero mota. Ez da gauza bera zapatak emakumezkoei edo gizonezkoei saltzea, adibidez. Kontuan hartu behar da, baita ere, zein adinetako erosleei zuzendutakoa den, eta asko da denda-jabearen gustuekin asmatzea".

Eta komeni da, bai, Ricardo Vazquezek esaten duen hori guztia ondo apuntatzea, izan ere, ondo egindako lanaren eragina igarri egiten du gero bezeroak, kasu honetan, saltzaileak: "Akaso salmentak ez dira handituko, baina jende gehiago bai erakarriko du denda barrura. Eta hori oso inportantea da denda batendako: jendeak jakitea non zauden eta zer duzun. Azken batean bezero posible bat da. Gure erakusleihoan, adibidez, egunero daude umeak begira. Hori gozada hutsa da. Hori da erakusleiho batendako saririk onena. Jendeak begiratzea. Eta asko sartu egiten dira, gainera, zoriontzera".

"Eta salmentetan ere epe luzera igarri egiten da". Gaineratu du Javi Inda Altunak, Altuna Lurrindegiko ugazabak: "Nahi duzun produktua ondo nabarmenduta badago, igarri egiten da salmentetan".

"Azken batean, saltoki batek oso genero ona izan dezake, baina erakusleihoa ez badu ondo aprobetxatzen, ez dio etekin bera aterako. Adibidez, generoa hartzeko erakusleihora sartu beharra ez da batere egokia. Eta erakusleihoa aldatzen ausartu egin beharra dago, ez zaio beldurrik izan behar", adierazi du Vazquezek.

Hobe bi gauza 28 baino

Erakusleihoak atontzeko, baina, modu asko daude. Ricardo Vazquezen kasuan, estilo propioa ondo definituta dauka: "Asko gustatzen zait zeharkako argiteria sartzea, batez ere, argi nagusia kentzean argi txikitxoa uzteko, ingurua gozatze aldera. Bereziki gustuko dut estantziak egitea: egongelak... Eta batez ere, erakusleihoak ez betetzea. Errazagoa da ondo ipinitako bi gauzak arreta erakartzea, 28 gauzak baino. 28 gauzari begiratzeak pereza eragiten du, benetan".

Ingurura ere begiratzen du, baina, Vazquezek erakusleihoak atondu aurretik: "Ideia lantzen dut buruan, eta horren arabera egiten dut lan. Tendentzia, dekorazio kontuan hartzen ditut kontuan. Hirietan-eta asko ibiltzen gara, eta hango erakusleihoak begiratzen ditut, ideiak hartzeko. Baina gertuko hiriak izaten dira: Gasteiz..."

Bukatu aurretik, eskaera bat egin gura izan du Vazquezek: "Ea, bada, Udalak kaleak ondo argiztatzen dizkigun. Saltoki txikiek asko igartzen ditugu halakoak. Aurreztu beharra dagoela diote, baina, adibidez, udaletxeak berak izugarrizko argiteria dauka urte osoan, Buckingham dirudi, eta horrek bai duela kontsumo handia! Azkenean Gabonak lau egun dira".

ESANAK

"Erakusleiho batendako egon daitekeen saririk onena jendeak begiratzea da"

"Erakusleihoa ez bada ondo aprobetxatzen, ez da etekin bera aterako, nahiz eta jenero ona izan"

RICARDO VAZQUEZ
ERAKUSLEIHO-ATONTZAILEA

DATUA

8
URTE

Ricardo Vazquez orain dela zortzi urte hasi zen erakusleihoak atontzen.

OÑATI

Askotariko gazten zapore eta egiturekin, gozatzen eta ikasten

Mahaiaren bueltan, 25 lagun inguruk, gazta mota ezberdinak gertutik ezagutu eta dastatzeko aukera izan zuten Arantzazuko Parketxean, zapatu eguerdian

MAIDER ARREGI | OÑATI

Suabeagoak, latzagoak, xamurragoak edo gogorragoak. Gazta mota asko mahaiaren bueltan dastatzeko aukera izan zen zapatuan Arantzazuko Parketxean. "Gazta, artzaintzak duen protagonismoaz lotu nahi dugu. Euskal Herrian gazta mota asko dago eta ikastaroaren bitartez hori erakutsi nahi izan dugu", azaldu zuen Miren Elgarresta parketxeko teknikariak. Gustura azaldu zen ikastaroak izan zuen harrerarekin. "Mahai osoa bete da. Etorri direnek gaztaren munduarekin lotura eta harreman berezia dute", esan zuen. Hala, Pello Zabala frantziskotarra, Nikolas Segurola Gomiztegiko artzain eskolako arduraduna edota Arantzazuko artzainak aritu ziren gaztak probatzen ikastaroan.

25 bat lagunek parte hartu zuten ikastaroan. | MAIDER ARREGI

Gazta mota ugari

Teknika ezberdinak erabiliz egindako gaztak ikusi ahal izan ziren mahaian. Denak Euskal Herrian egindakoak. Eta nola ez, ardi, behi eta ahuntzaren esneaz egindakoak ziren gainera. Protagonismo nagusia, zalantza barik, Idiazabal gaztak hartu zuen.

Ramon Lizeaga aditua azalpenak ematen. | MAIDER ARREGI

Gazta dastaketa, aditu batekin

Ramon Lizeaga Gomiztegiko artzain eskolako ikaslea izandakoa da. Ondo baino hobeto dakizki artzaintzaren eta gaztaren sekretuak. Orain, gaztaren inguruan dihardu buru-belarri. Artzain moduan pare bat urte egin zituen; ondoren, gazta ikertzen hasi zen eta garai batean hemen gazta nola egiten zen ikertzen jardun du. 10 urteren ostean, gaztagile aditua da Ramon Lizeaga.

ARRASATE

Gastronomiak eta kulturak bat egin dute San Andreseko azokan

Askotariko usai, kolore, zapore eta doinuek hartu zuten San Andreseko Gudarien plaza, zapatuan

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Artisauek, baserritarrek eta kultura talde ezberdinek bete zuten zapatuan San Andreseko Gudarien plaza. 20 postu inguru jarri zituzten eta denetarik erosteko eta dastatzeko aukera egon zen. Urdaiazpikoa, okela-pintxoak, enpanadillak, gazta... eta nola ez, Gabonak ate joka ditugula-eta, bat baino gehiago polboroi kaxa eskuartean zuela itzuli zen azokatik bueltan etxera.

80 urtetik gorakoen bazkaria

Aurten nobedade gisa, Corazon de Encina gastronomia elkartean, bazkari oso berezia egin dute. Izan ere, 80 urtetik gorakoendako bazkaria egin da lehenengoz San Andresak ospatzeko. Giro ezin hobean, 54 nagusik, parte hartu zuten eta eurekin batera, Inazio Azkarraga-Urizar Arrasateko alkatea ere han izan zen bazkariaz gozatzen eta Udalaren eskutik opariak banatzen.

Guztira, 54 adinekok hartu dute aurten parte bazkarian. | MAIDER ARREGI

70 kilo txerri okelaz egindako pintxoak banatu zituzten zapatu eguerdian. | MAIDER ARREGI

CARMEN
AUZOTARRA

"Auzokoak gara eta giroa eta festa ospatzen ari gara. Enpanadillak erosi ditut gaur bazkaltzeko. Azokan produktu onak daude".

MARIA JESUS
AUZOTARRA

"Azokara iritsi berri naiz. Oraindik ez dut dena ondo ikusi, bueltatxo bat emango dut berehala, eta seguru zerbait erosiko dudala".

MARIA ISABEL, CRISTINA ETA OVIDIO
AUZOTARRAK

"Bazkarira joango gara. Aurten lehen aldiz gainera. Erretiratuen bazkarira joan izan gara, badugu ohitura, baina San Andres auzoko bazkarira lehenengoz joango gara, oso pozik! Bazkarian denetarik hitz egiten dugu, zahar gaudela, gatza bota beharrean beste osagarri bat botatzen diogula janariari, gauzak erortzen zaizkigula... kar-kar. Nik semeei esaten diet ez esan ezeri ezetz, orain aprobetxatu behar duzue-eta".

Euskararen aldeko manifestazioan, Donostian, debagoiendar asko izan ziren, tartean Topaguneko zuzendari den Jasone Mendizabal arrasatearra. | ITXARO ARTOLA

DEBAGOIENA

Euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatu dugu debagoiendarrok

Bergarako plazan umeak jolasean *Euskarak batzen gaitu* leloa lagun. | M.A.

Eskoriatzako gaztelekuan euskararen alde elkartuta. | M.A.

Osintxun kantu afaria egin zuten Euskaren Eguna gogoan. | JOSETXO ARANTZABAL

Elgetako plazan herritarrak, *Euskaraz!* leloa eskuartean dutela. | JULIO CALLEJA

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Gaur, abenduak 3, da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta herri guztietan izango dituzte ospakizunak. Ekitaldiak, baina, aste bukaera guztian izan dira gurean. Debagoiendar batzuek, zapatuan, Donostian, *Euskaraz bizi nahi dut* leloarekin egindako manifestaziora jo zuten tartean, Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak, Oskar Elizburu AEK-ko ordezkariak eta Iban Arantzabal Goienako zuzendari eta Hekimen elkarteko presidenteak.

Aste bukaerako ospakizunak

Beste debagoiendar batzuek, ostera, euren herrietan ospatu dute. Bergaran hitz gurutzatuen lehiaketa egin zuten goizean, eta arratsaldean, ume eta gazteekin bete zen San Martin plaza. Jolasean jardun zuten *Euskarak batzen gaitu* leloarekin: tortolisean, aulki jolasean, zapiarekin…Kanpoko jolasak ezagutzeko aukera ere izan zuten Pakistangoak eta Senegalgoak, esaterako. Osintxun ere euskaraz bizi gura dutela aldarrikatu zuten egun guztian, eta gau partean afaltzeko elkartu eta kantuan jardun zuten.

Eskoriatzan, ostera, gaztelekuan elkartu ziren gaur zabalduko duten euskararen aldeko bideoa muntatzeko. Eta Elgetan, umeen jolasak eta mokadutxoa izan zituzten atzo; baita DJ saioa ere. Eta *Euskaraz!* zioen murala osatu zuten herritarrek plazan.

ARETXABALETA

40 kilo buzkantzekin 800 mokadutxo banatu zituzten UDAk eta Aretxartek

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteak eta Aretxarte merkatarienak elkarlanean buzkantz mokadutxoak dastatzeko aukera eskaini zien egubakoitz iluntzean, aretxabaletarrei. 40 kilo ekarri zituzten, 800 mokadutxo egiteko, baita bost kilo txistorra ere. Iluntzeko hotza kanpoan utzi eta kirol elkartearen jarraitzaileak eta herritarrak segituan berotu ziren Pagaldai taberna izandakoaren epeltasunean.

Zozketarako txartelak ere banatu zituzten euro baten truke. Sariak dira, lau sarrera Reala eta Getaferen arteko norgehiagoka ikustera joateko eta jakiz betetako otar ederra.

Aretxabaleta kirol elkarteko kideak buzkantz artean. | JOSETXO ARANTZABAL

Euskararen Egunean, festa eta konpromisoa

Euskara Planaren Hitzarmena zinpetuko dute gaur Kulturaten 19:00etan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Euskararen Nazioarteko Egunaren jatorriari begiratzeko, XX. mendeko erdialdera jo behar da. Eusko Ikaskuntzako orduko kideek gure hizkuntzari bultzada berezia eman guran, premia horren adierazpena egin zuten 1948an, eta urtebetera berriz, Euskararen Nazioarteko Eguna munduko bazter ezberdinetan ospatu zen aurrenekoz. XXI. mendera etorrita, aldarrikapenerako eguna izaten jarraitzen du abenduaren 3ak.

Neska talde bat euskaraz egitera dei egiten duen murala margotzen. | J. BEREZIARTUA

Arrasateko Euskara Plana

Arrasaten ere, ekimen ugari antolatu dira eta gaur arratsaldean Udalak eta Arrasateko Euskalgintzako kideek, Arrasateko Euskara Planaren Elkarlan Hitzarmena sinatuko dute. Kulturaten izango da zinpetzea eta herritar guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta, 19:00etan. Hitzarmenak helburu jakin bat dauka, hain zuzen, "herrian euskararen normalizazio sustatzea eta egiten diren saiakerei ahalik eta etekin handiena ateratzea".

Euskararen aldeko aldarria

Herriko eragile ezberdinek ere antolatu dituzte bestelako ekimenak. Emunek, hainbat kooperatibatan ekimenak prestatu ditu; Herri Eskolak euskara astea egingo du eta; Institutuak Euskararen Eguna ospatuko du gaur, txokolatea janez zein laburmetrai komikoen proiekzioaz. Arizmendi ikastolako gune bakoitzean ere zer egin izango dute: txiste lehiaketak, olinpiadak, *Ziztadak Tábanos* dokumentala...

Txatxilipurdi elkarteak aldiz, euskararen transmisioa oinarri hartuta, bihar dokumental bat estreinatuko du Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 18:00etan. *Hesiak gaindituz* deituriko lanean Arrasate eta inguruko gurasoak dira protagonista: etorkinak; euskaraz jakin ez arren seme-alabak euskaraz hezi dituztenak...

Aita-semeak gaztetxeko agertokian, blues eta rock erakustaldia emateko

Asteon ez dago kontzerturik Durangoko Azoka dela-eta; hurrengoa, Mursego

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Joan den eguenekoa beste gau pribilegiatu bat izan zen gaztetxean musika onaren zaleendako. Krissy Matthews Band zen *Kooltur Osteguneko* gonbidatua eta antolatzaileek aurrez jasotako kritika onak berretsi zituen emanaldiak. Hirukote moduan agertu ziren eta nola ez, Krissy bera izan zen *frontman*-a. Ondoan izan zuen aita, baxu-jole moduan, bere urtebetetzea ospatzen.

Aita-semeek blues eta rock doinuez izugarri gozatzen dutela erakutsi zuten. Jarrerak eta batez ere taldearen kalitateak berehala erakarri zuen ikusleen atentzioa. Krissy Matthews-en *Hit the Rock* azken diskoko zenbait kantu jo zituen. Jeff Beck, Jimi Hendrix edota Steve Ray Vaughan erregeak gogora ekarri zituen, baita, iraganeko denboratako rock talde handiak ere. Izan ere, hala borobildu zuen emanaldia: Jimi Hendrix handiaren *Little Wing* abestiaren bertsioa jotzen, Steve Ray Vaughan-ek kantu horri egin zion bertsio instrumentala ere tartekatuz. Gustura egon ziren gaztetxera hurbildu ziren 120 musikazaleak; antolatzaileak, pozik beste behin.

Krissy Mattwhews eta haren aita egueneko kontzertuan. | JOKIN BEREZIARTUA

Hurrengo gonbidatua, Mursego

Asteon ez da kontzerturik egongo Durangoko Azoka dela-eta. Abenduaren 13an, baina, Mursego dator; Maite Arroitajauregi eibartarra bueltan dator gaztetxera. Antolatzaileen arabera, *Kooltur*-erako kantu berri izango ditu. Esperimentazioa asko lantzen duen musikaria da Arroitajauregi eta biolontxeloaz agertzen bada ere, edozein instrumentu jotzeko gai da; ez du inor oharkabean utziko.

Jende ugari bildu zen Sarasuaren berbaldia jarraitzeko. | Z.V.D.M.

Euskaltasunaren norabidea ardatz izan zuen Sarasuak

Kike Amonarrizek hartuko dio lekukoa Sarasuari, abenduaren 19an eskainiko duen berbaldian

Z.V.D.M. | ARRASATE

AEDk antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* hitzaldi zikloan parte hartu zuen Jon Sarasuak azaroaren 28an. *Norabideari buruz dozena bat gogoeta* landu zuen Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan eta jende ugarik jarraitu zuen berbaldia, bai bertatik bertara, eta baita streaming bidez ere.

Liburu baten aitzakitan

"Azken urteetan ematea egokitu zaizkidan hitzaldi, klase eta abarretan isuritako ideiak destilatzen edo idazten ari naiz eta hitzordua aprobetxatu dut libururako ideia batzuk publikoarekin batera lantzeko". Sarasuak liburuan euskaltasunaren norabideaz idatzi gura du: "Euskal hiztun komunitate moduan non gauden eta nora goazen landu gura dut, bai norabideaz baina baita estrategiei buruz ere".

Publikoak aukeratu zituen berbaldian jorratutako gaiak: transmisioa; euskal identitatea; hizkuntza desberdinen egitura; sedukzioa eta inposizioa; nazioartera; biziraupenerako baldintzak; erakundetzea; aukeratik erabilerara; elkarbizitza, ekologia; hegemonia; eta hedabideak zein internet.

Ideia zaparrada

Bi orduko emanaldian ideia ugari irten ziren. Gutxi batzuk aipatzearren, euskararen diagnosiari erreparatu zion, azken 50 urteetan egindako lana goraipatuz: "Datozen hamarraldietan estrategia, tresna eta eskumenak garatu beharko dira". Bestalde, "euskara moduko hizkuntza gutxituek Berria edo Topagunea gisako hegemonia guneak behar dituzte" esan zuen, eta "etorkizunekoak zeintzuk izango diren" begiratzen hasi beharra gaineratu zuen.

"Ikastolek sorreratik eginiko lanari dagokionez, txapela kendu behar dugu" adierazi zuen Sarasuak. Baina aldi berean zalantza egin zuen egungo eskola sistemak transmititzen ote dituen hiztun gaitu izateko baliabideak. "Agian ez du transmititu behar, familiak eta hor daudelako. Baina baliabideak behintzat eman behar ditu".

Trafikoari itxita Jose Mari Eguren plaza atzealdea, etzira arte

Iberdrolak kanalizazio lan batzuk egin behar dituela eta, Udalak jakinarazi duenez, gaurko lehenengo ordutik eguaztenera bitartean trafikoarentzako itxita egongo da Jose Mari Eguren plazaren atze aldeko kalea. Autoz ezin pasatzeaz gainera, ezin izango da bertan aparkatu, lanak egin bitartean.

Asteon ere, jostailu truke azokarako materiala bilduko dute

Okendoko ludotekan jasoko dituzte gaur jostailuak Txatxilipurdikoek. Bihar Santa Marinako plazan eta etzi Arimazubin. 17:30etik 19:00ak bitartean eraman ahal izango jostailuak aipatu lekura, eta bakoitzagatik txartel bat emango dute eta hilaren 16an egingo den azokan trukerako baliatu ahal izango da txartela.

Hauspoen doinuek Arrasate hartuko dute asteon egingo diren akordeoi hitzorduetan

'Arrasate Hiria' Nazioarteko Akordeoi Lehiaketak 20 urte betetzen ditu aurten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hauspoz, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak antolatuta, datorren abenduaren 7tik 9ra bitartean Arrasateko Akordeoi Lehiaketak egingo dituzte. Aurreko eguenean egin zuten aurkezpena Txalaparta Elkartean, eta bertan parte hartu zuten Aitor Furundarena Hauspoz elkarteko lehendakariak, Inazio Azkarragauriza alkateak, Kepa Urteaga Kultura zinegotzia eta SUDC elkarteko zenbait lagun egon ziren.

Urtero bezala, hitzordu antolatu dituzte egitarauaren barruan. Alde batetik Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa egingo da; Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa bestetik; eta azkenik, Gipuzkoako Akordeoi Jaialdia.

Ibilbide oparoa

Gipuzkoako Akordeoi Konfederakundeak lehenengo aldiz 1975ean antolatu zuenetik gaur arte ibilbide oparoa eduki du lehiaketak. Urtez urte eta urratsez urrats forma eta indarra hartzen joan da hitzordua dela gogorarazi zuen Azkarragaurizarrek aurkezpenean: "Akordeoia indartu guran aukeratu gintuzten lehenengo lehiaketarako eta abendu dezente pasatu dira ordutik".

Modu horretan Gipuzkoako 33. Akordeoi Lehiaketa egingo dute abenduko lehenengo astean. Lurraldeko, Euskal Herriko zein estatuko 30 parte hartzaile arituko dira, adin guztietakoak, gainera. "Batez ere, kontserbatorioetako ikasleei zuzendutako lehiaketa da", adierazi zuen Furundarenak aurkezpenean.

Pedagogiari garrantzia

Gipuzkoako 25. Jaialdia ere egingo da Arrasaten abenduaren 7tik 9ra bitartean. "300 partaide inguru arituko dira. Musika eskolatan diharduten gazteei begira antolatutako jaialdia da". Lehiaketa kutsua kendu diote ekimenari, eta pedagogiari garrantzia eman. Hauspoz elkarteko lehendakariak jaialdiaren garrantzia azpimarratu zuen: "Nazioartean ez dago horrelako beste ekitaldirik pedagogiari erreparatuz gero".

Arrasate Hiria lehiaketako iazko irabazleak. | GOIENA

DATUA

341

PARTE HARTZAILE

Hemengo eta kanpoko 341 lagun inguru arituko dira aurtengo lehiaketatan .

Hogeigarrenez 'Arrasate Hiria'

Akordeoi doinuak Arrasatera iritsi zirenetik euri asko egin du. Urtero ekimena indar gehiago hartzen joan da. "Mundu mailako hitzordu bat sortzera iritsi gara eta aurten 20. edizio egingo dugu". Nazioarteko akordeoilariak ekarriko ditu hitzorduak, "profesionaletara salto egiteko prest daudenak", Aitor Furundarenak adierazi bezala. Alemania, Eslovakia, Norvegia zein Txinatik etorritako 11 lagunek hartuko dute parte.

Bestalde, iazko txapelketako irabazleak hainbat kontzertu eskainiko ditu ibarrean. Iosif Purits Aretxabaletan arituko da hilaren 6an, eta 7an berriz, Kulturaten.

Bai Azkarragaurizarrek eta baita Furundarenak ere, urtero musu-truk lan egiten dutenak gogoratu zituzten, eta eskerrak eman zizkieten guztiei. "Edizio guztietan auzolanean aritzen direnei esker eramaten dira aurrera hitzorduak. SUDCeko lagunei urtero egiten diguten harreragatik, mila esker, egonaldi gizatiarragoa ahalbidetzen baitute".

ESANAK

"Egonaldia gizatiarragoa izatea ahalbidetzen du SUDCek"

AITOR FURUNDARENA | HAUSPOZ ELKARTEA

"Krisia egonda ere, ekimenari hauspoa ematen jarraituko dugu"

I.AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA

Lizentzia berriak egiteko dei egin du Besaidek

Elkartearen webgunean bertan eskura daitezke bazkide zein federatu egiteko eskaera orriak

J.B. | ARRASATE

Besaide mendizale elkarteak jakinarazi du bazkide eta federatu lizentzia berriak eskuratzeko aukera dagoela dagoeneko. Elkartearen webgunean –*www.besaide.org*– jarri dituzte eskura izen-emate orriak: dokumentua deskargatu eta datuak bete ostean, honako hiru bide zehaztu dituzte bidaltzeko: *besaide@besaide.org* helbide elektronikoa, 943 77 30 68 fax zenbakia eta posta arrunterako helbidea –Garibai 3 bis, 20500 Arrasate–. Gainera, aukera dago elkartean uzteko; martitzen eta eguaztenetan, 19:30etik 20:30era.

Zuzendaritza berria eratu behar

Bestalde, aditzera eman dute urtearen amaierarako zuzendaritza batzorde berria eratu beharko dela: "Gonbidapena luzatzen dizugu, beldurrak alde batera utzi eta gerturatzeko eta Zuzendaritza Batzorde berrian parte hartzera animatzeko. Zain izango zaitugu", diote.

Txalaparta jo eta opariak aurkezteko ikastaroak

Z.V.D.M. | ARRASATE

Abenduan ere egingo dute Elkartruk egitasmoa, AEDren ekimenez. Hurrengo hitzordua hilaren 15ean izango da AEDren egoitzan, 11:00etatik 13:00a arte; izenematea abenduaren 13an amaituko da.

Bestalde, eta Gabonei begirako ikastaroa antolatu dute. Abenduaren 17an, opariak dotore aurkezteko modu errazak erakutsiko dituzte. Abenduaren 14ra arte eman daiteke izena eta arratsaldez elkartuko dira, 18:30etik 20:30era. Ikastaroetan parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko da.

Txalaparta ikastaroa. | GOIENA

Erlojuaren eraikinaren proiektua eztabaidagai gaur Tokiko batzarrean

Astelehenero moduan, Tokiko Gobernu batzarrean hainbat gai eztabaidatuko dira gaur. Besteak beste, erlojuaren eraikinaren jarduera proiektua idazteko esleipen proposamena egingo da. Bestalde, Gazteria batzordean hainbat diru-laguntza ematea eztabaidatuko da, hala nola, Txatxilipurdiri 2013rako Txikilandia dela-eta. Gainera, diskoa kaleratu berri duten Los Cretinos eta Never Surrender taldeek egindak eskaerei ere erantzun beharko zaie batzarrean.

Azkenik, udaltzaingoarendako ekipamendu eta arropa erosteko esleipena ere egongo da gaur mahai gainean.

Matxiategiko plazatxoak berritu egingo ditu Udalak

Plazatxoetan zeuden zuhaitzak moztu egin dituzte asteon, eta bizilagunekin adostuko dute itxura berria

M.B./O.E. | BERGARA

Matxiategi kaleko hiru plazatxoetan zeuden zuhaitzek lurzoruan eta asfaltoan eragiten zituzten kalteak zirela eta, duela pare bat urte, egoerari nola aurre egin aztertzeari ekin zion Udalak. Gainera, auzotarren aldetik ere konponbide bat eskatu izan zaio Udalari; izan ere, zuhaitzen adarrek kalteak eragiten zituzten zenbait etxebizitzatako balkoietan. "Matxiategi kalean dauden hiru plazatxoetako 24 zuhaitz kendu ditugu, zortzi plaza bakoitzetik", gaineratu du Maren Belastegi udal ordezkariak.

Egoerari irtenbidea topatzeko azterketa abiatu zenean zuhaitzak bertan mantentzeko asmoa bazegoen ere, zuhaitzen osasun egoeraz egindako azterketek ondorioztatu zuten horien egoera fitosanitarioa ere kaxkarra zela. "Hasierako asmoa bazen zuhaitz horiek birlandatzea, baina gaixorik daude. Fijatuz gero, zuhaitzak enborretik moztu ditugula ikus dezake herritarrak. Sustraiak lur azpian daude oraindik, baina eraberritze lanak egiteko kenduko ditugu horiek", zehaztu du Belastegik.

Matxiategi kaleko plazatxoetako zuhaitzak, moztuta. | BERGARAKO UDALA

Obra aztertzen ari dira

Zuhaitzen sustraiek lurzoruan egin duten kalteagatik eta bizilagunen kexak kontuan hartuta, plazatxo horien egitura aldatzeko proposamena egin zen. "Plazatxoetako lur zoruak jaso egingo direla bai, baina, egia esan, oraindik ez dakigu ze itxura izango duen plazatxo berriak. Obra aztertzen ari gara orain eta bizilagunekin ere egon nahi dugu, euren iritzia zein den jakiteko", dio Maren Belastegik. Honela, oraindik ez dago zehaztuta noiztik nora egingo dituzten lanak.


Agorrosin kirolgunea. | GOIENA

Ura berrerabiltzeko, aldaketak egingo dituzte Agorrosinen

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Agorrosingo kirolguneko igerilekuetatik galtzen den ura aprobetxatzeko eta energia aurrezteko, obra batzuk egingo dituzte Agorrosinen.

Berrerabili eta aurreztu

Lauri Askargorta Kirol zinegotziak azaldu duen moduan, ura berrerabiltzea eta energia aurreztea da obra horien helburua. "Igerilekuko uraren ehuneko handi bat aldatu egin behar izaten da. Ur horrek tenperatura altua izaten du eta kalteak sor ditzake inolako tratamendurik gabe errekara isurita, adibidez. Horregatik, batetik, gura dugu kalte hori ahalik eta txikiena izatea, eta, bestetik, aldatzen den ahalik eta ur gehien izatea erabilgarri, adibidez, ureztatzeko. Horrek, energiaren aurrezpena ere ekarriko du. Horrez gain, spa guneko urak duen bromoa kendu eta ura kloratzeko trukatzaileak ere jarriko dira".

LKSk egin du obraren proiektua. "Egia esan, eurek eta udaleko arlo ezberdinetako teknikariek dituzte xehetasun guztiak. Oraindik, hala ere, obra aztertzen ari dira eta ez dakigu obrak egiteko igerilekuak itxi egin beharko diren edo ez. Itxi behar badira, urtero egiten diren bi itxialdietako bat aprobetxa daitekeen edo ez ere aztertu beharko da", dio Lauri Askargortak.

David Zapirain | Bergarako Turismoko udal teknikaria eta Historian doktorea

"Ekonomia, ondarea eta historia elkarri lotuta bizi izan dira beti"

Bergarako historia, ondarea eta ekonomia izan dira berbagai egubakoitzean eskainitako hitzaldian, Juantxo Madariagaren eta David Zapirainen eskutik

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Ekonomia morala: ekonomia, ondarea eta historia Bergaran titulupean, hitzaldia eskaini zuten joan den egubakoitzean Juantxo Madariagak eta David Zapirainek Bergarako Irizar jauregian. Lehena, bergararra, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea eta Historian doktorea da. Bigarrena, bergararra baita ere, Bergarako Turismoko udal teknikaria eta Historian doktorea. Bada, azken horrek eman digu hitzaldian jorratutakoen nondik norakoen berri.

Herria oinarri duen hitzaldia antolatu duzue.

Udalak antolatutako programa baten barruan dagoen hitzaldia da. Herriko ondarea ardatz duen programaren barruan.

Ondareari garrantzia eman nahi zaio, beraz.

Herriak historian zehar mantendu duen ondareaz gain, konkretuki, honen gaurkotasuna da Udalak azpimarratu nahi duena, eraikinak ez ezik, ondarearen beraren gainean egiten ditugun eguneraketak ere ondare baitira. Hori dela eta, Bergarako historiaz gain, gaurkotasun handiko gaiak ere uztartu ditugu hitzaldian.

***Ekonomia morala* aipatzen duzue. Azaldu apur bat zertan datzan.**

Gustatu edo ez, ekonomia baino ez dugu hizpide egunotan. Horregatik, gai honen inguruko hausnarketa egin nahi izan dugu, arestian aipatu dudan ikuspuntua oinarri hartuta. Juantxo Madariagak jardun du historikoki jende arruntak –eta beren *ekonomia morala*– jesuitekin zuen harremanen inguruan.

Zeintzuk dira Juantxo Madariagak landu dituen ideia nagusiak?

Ekonomia eta historia landu ditu Juantxok. Zehazkiago, historiaren eta ekonomiaren arteko lotura. Ideia nagusiak hauek dira: Aitzin Erregimenean, erlijioak merkataritzarako, ekonomiarako eta, batez ere, maileguetarako garrantzi handia zuen. Hori dela eta, jardun ekonomikoa egokitzeko teoria eta praktika batzuk sortzen dira. Arlo horretan, jesuitak maisu ziren. Batzuetan, merkatari batzuk protestanteak zirela eta, arazo bat baino gehiago izaten zuten, batez ere Bilbo eta Donostia inguruetan. Horren aurrean, baina, jesuiten doktrina *posibilista* edo *kasuista* horrek aukera asko eskaintzen zien merkatariei. Horrez gain, jesuiten ideia kulturalak ere aitatu ditu Madariagak, baita hizkuntza minorizatu eta popularrak eta hizkuntza ofizialen talka ere.

Ekonomia, ondarea eta historia. Askotan lotuta doazen kontzeptuak dira. Nolako lotura dute Bergararen kasuan?

Erabatekoa. Hori da azaldu nahi izan dugun gakoetako bat. Ekonomia ondare mota bat da; baina, era berean, ondareak tokiko ekonomia suspertzeko balio du. Historiak ondarea har dezake bere baitan, baina, era berean, tokiko komunitate baten nortasuna sendotzeko balio du; edo horretarako erabili nahi dugu. Bergarako gizartea sendotzean, aldi berean, Bergara indartu eta bere bizitza soziala sustatzen lagundu nahi dugu. Loturak begi bistakoak dira.

Informatzeaz gain, hausnarketa ere bultzatu nahi duzue.

Bergarako herria hobeto ezagutzen lagundu nahi dugu. Gaur egungo errealitateak badio iraganeko jardunei zer eskertu eta ezagutza hori bestelako hausnarketak garatzeko probetxuzkoa izatea ere nahi dugu. Era berean, ondarearen eta herriko historiaren garrantzia ekarri nahi dugu agerira. Ondareak gaurkotasuna dauka, bizirik dago, eta Bergarako herritarren osagaia dela azaldu nahi dugu.

David Zapirain, hitzaldi batean. | GOIENA

"Ondarea bizirik dago eta Bergarako herria horretaz jabetzea nahi dugu"

"Jesuitak Aitzin Erregimeneko merkataritzan maisu izan ziren"

Argi barik baina herritarrekin batera apainduko du Udalak herria

Birziklatutako materialekin egindako apaingarriak ipiniko dira Gabonetan, eta horiek egiteko tailerra egingo dute egubakoitzean Munibe plazan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udalak bizi duen egoera ekonomiko konplikatua dela-eta Gobernuak erabaki du aurten Gabonetan argiteria berezirik ez ipintzea herrian. Dena dela, Udal Gobernuko ordezkariek adierazi dute apaingarririk ez dela falta izango eta, ahal den neurrian, behintzat, herriari Gabonetako giroa ipintzen ahaleginduko direla.

Argirik ez ipini arren, 6.000 euro inguru inbertituko ditu Udalak apaingarriak erosteko. Herriko hamar gunetan ipiniko dituzte apaingarriok. Ingurumen zinegotzi Leire Iruinek azaldu du tela berezi batzuk ipiniko dituztela: "Bela forman ipiniko ditugu, triangeluak dira, eta bertatik zintzilik egongo dira bola handi batzuk".



Edalontziekin bola erraldoiak egin dituzte. | UDALA

Plastikozko botilekin izarrak egin dituzte. | UDALA

Auzolanean egindakoak

Erositako apaingarriez gain, birziklatutako materialekin egindako apaingarriak ere ikusi ahal izango dira herrian. CD eta DVDekin udal eraikinetako balkoiak apainduko dira –Irizar, kultura etxea eta udaletxea–; kafe-makinetako plastikozko edalontziekin bola handi batzuk egin dituzte eta plastikozko botilekin, berriz, izarrak.

Apaingarri horietako batzuk atez ateko informazio bulegoaren inaugurazio egunean egindakoak dira. Udala oso pozik dago herritarrengandik jasotako erantzunarekin: "Argi geneukan auzolanean eta herritarrekin batera apaindu nahi genuela aurten herria, baina ikaragarria izan da alde guztietatik jaso dugun laguntza eta babesa. Pasa den egubakoitzean 80 neska-mutiko etorri ziren apaingarriak egitera eta tailerra errepikatzeko eskatu ziguten. Oso esperientzia polita izan zen".

Edalontziak eta botilak lortzeko enpresengandik eta jatetxeengandik jasotako laguntza ere eskertu nahi izan dute: "2.000 edalontzi eraman genituen tailerrera eta jendeak jarraitzen du kultura etxera eta udaletxera botila eta edalontziak ekartzen".

Egubakoitzean, berriz

Udalak erabaki du bigarren tailer bat egitea egubakoitzean Munibe plazan. 17:00etatik 19:00etara izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Bedelkarren eskaintza eta zozketak

Merkatariak ere Gabonei begira daude eta dagoeneko prest dauzkate abenduan egingo dituzten eskaintza bereziak eta zozketak. Bedelkarko dendetan erosketak egiten dituztenen artean hainbat sari banatuko dira zozketa bidez: 500 euroko sari bat eta 200 euroko bost sari. Diru hori Bedelkarko dendetan erabiltzeko izango da. Horrez gain, abenduaren 1etik 20era Bedelkarko txartela erabiltzen duten erosleen artean 12 otarre zozketatuko dira.

Bergarako Musika Eskolakoek *Peter Pan* musikala egingo dute abenduaren 29an eta 30ean Udal Pilotalekuan. Bada, Bergarako dendariek herria musikalerako girotzen lagunduko dute. Hori horrela, marrazki lehiaketa antolatu dute herriko ikastetxeekin batera. Parte-hartzaileek Peter Panekin lotutako marrazkiak egingo dituzte eta Bedelkarrek abenduaren 22an emango du kategoria ezberdinetako irabazleen berri. Abenduaren 22tik 29ra, gero, lehiaketan parte hartu duten marrazkiak ipiniko dituzte Bergarako dendetan.

AHTri hamalau elegite ipini dizkiote

M.B. | BERGARA

Udalbatzak berretsi egin zituen astelehenean egindako osoko bilkuran Angiozarko Bailarako Batzarrak AHTren lanei egindako alegazioak. Angiozar sektoreko obrak egiteko okupatu eta desjabetu beharreko ondasun eta eskubideei buruzko jendaurreko informazioaren txostenari egin dizkiote alegazioak.

14 alegazio egin dituzte

Jendaurrean ikusgai dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, hamalau hobekuntza proposatu ditu Angiozarko Bailarako batzarrak. Hauek, besteak beste: zabortegia lekuz aldatzea Lopegain-Errotabarri aldera eta aprobetxamendua usufruktuan Angiozarko bailararako izatea; Loidi-Etxebarri baserriaren bideragarritasuna berraztertzea eta etxebizitza beste leku batera eramatea edo etxearen ondoan aurreikusitako zerbitzugunea beste leku batera eramatea; lanak egiteko erabiliko diren auzobideak zerrendatzea eta kuota bat ezartzea; Hiru auzo errota ez da jasotzen ez desjabetzeen ezta eragin zerrendan ere –eraikina bera, presak eta urez hornitzeko kanala– eta errota ordezkatzea eta errekan gora dauden beste batzuk berreskuratzea eskatzen dute; bailararen luzera osoan, Labegaraietan hasi eta Gontzarriraino, errekaren paralelo joango den bidea egitea, gerora bidegorri, baso-bide… izango dena; zarata gutxitzeko sistemak aurreikustea; inpaktu bisuala txikituko duen birsortze paisajistiko integrala; eta aurrekontuaren %1 erabiltzea bailarako ondare kulturala zaharberritzeko.

Bergara Garbia plataformak kontsultaren beharra berretsi du

Plataformak uste du Bildu atez ateko bilketa sistema "inposatzen" ari dela

M.B. | BERGARA

Bilduk gidatzen duen Udala "atez ateko bilketa sistema inposatu nahian" dabilela uste du Bergara Garbia plataformak, "bosgarren edukiontziaren alde jasotako 4.961 sinadurei bizkarra emanez eta jasanezina den sistema bat dela argi geratu den arren".

Atez Ate Ez, 5. Edukiontziari Bai herri plataforma, hau da, Bergara Garbia, bosgarren edukiontziaren ezarpenaren alde egiteko jaio zela azaltzen dute erredakziora bidalitako oharrean: "Bosgarren edukiontziaren ezarpenaren alde egiteko jaio zen, zaborrak biltzeko era merke, garbi eta sozialki jasangarriena delako. Inposatu nahi diguten atez ateko sistema garesti, estetikoki itsusi, higienikoki zikin eta jasangaitzaren aurrean. Hori guztia, gure zaborrak zabortegian amaitzeko, hain justu Europak deuseztatu nahi duena".

Bergara Garbia Gipuzkoako plataformen koordinazioko partaide ere badela azaltzen dute, eta "bergararroi inposaketak sorrarazitako desadostasun eta egonezinaren adierazle izateko" lanean diharduela.

Bildu "inposatu nahian" dabil

Bilduk gidatzen duen Udala "atez ateko bilketa sistema inposatu nahian dabilela ere uste dute: "Bilduk bere burua parte-hartzaile demokratikotzat duen arren, oraingoan, autoritarismoa eta inposaketa da duen lege bakarra; baina ez legoke gaizki predikatzen duten hori praktikan jarriko balute".

Amaitzeko, hau diote: "Egun hauetan, atez atekoari buruzko aholkuak eta *zero zabor*-aren abantailak saltzen hasiko dira. *Atez Ate Ez, 5. Edukiontziari Bai* herri plataformak Bergarako herriaren desadostasuna erakutsi nahi du, eta horretarako, Bilduk predikatzen duena eskatzen dugu: herri kontsulta bat! Herriak hitz egin beharra dauka! Herri kontsultaren alde!".

DATUA

4.961

SINADURA

Herrian batutako sinadurei Udalak bizkarra eman diela salatu du Bergara Garbia plataformak. Herrian batutako sinadurei uztailaren 3an eman zitzaien sarrera Udalean.

ESANAK

"Bilduk predikatzen duena eskatzen dugu, herri kontsulta bat; herriak hitz egin beharra dauka"

BERGARA GARBIA | PLATAFORMA

Joxe Anjel Urkia | Erlezaina

"Araotzen ezti asko eta ona egin izan da beti, baita orain ere"

- Ezti beltzaren saria irabazi du Usurbilen Urkiak
- Eztitik propolia ateratzen ikasi gura du orain

Joxe Anjel Urkia, etxean, irabazi duen txapela aurrean duela. | TXOMIN MADINA

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Azaroaren 25ean ospatu zuten Usurbilen Erle Eguna, eta bertan egindako XII. Euskal Herriko Ezti Lehiaketako sarietako bat Oñatira joan zen: Joxe Angel Urkiak egindako eztia izan zen lore ilunetako eztirik onena. Beste oñatiar bat, Zelai Zabal jatetxeko Alberto Elortza, epaimahaian zegoen. Gerneta Etxebarri baserrian egiten du eztia Joxe Angel Urkiak.

Zorionak!

Eskerrik asko!

Ze ezaugarri ditu ezti beltzak?

Gaztainondo, ametz eta ilarriarekin egindako eztia da. Araotzen gaztaina zahar asko daude eta nik uste dut auzo hartan gehienek ezti beltza egiten dutela.

Kolorean ez ezik, beste ezertan igartzen da ezti hori beltza dela?

Zaporean ere bai. Gure izeba batek dio umetan Lurgorritako eztia gustatzen zitzaiola. Egun, 80 urte ditu eta hura bezalako eztirik ez dagoela dio, nireaz gain. Nik egindako ezti beltzak lehengoaren zaporea duela dio.

Zenbat erletegi dituzu Araotzen?

Duela bost urte hasi nintzen eztia egiten. Lau erle ditut, eta 90 kilo ezti eman didate aurten hirun artean, batek ez dit batere eman -eta. Asko da hori, baina poztu ere ez da egin behar, gaitz asko etortzen dira eta urte guztiak ez dira berdinak izaten dira-eta. Nire aitaginarrebak esaten zuen erletan eta behorretan ez jartzeko diru guztia, dena galtzeko arriskua ere handia delako.

Batutako 90 kilo horiek, nola banatu dituzu?

Oraindik ez gaude saltzeko gertu eta egia esan, banatu egin ditugu etxekoen eta lagunen artean.

Baduzu laguntzailerik eztigintzan aritzeko?

Araotzen ditugun erleak neure izenan daude egon, baina ez dira nireak, etxekoak, baserrikoak dira. Zaintzen, instalazioak egiten, eztia ateratzen eta bestelako lanak egiten anaiek eta ilobek laguntzen didate. Usurbileko lehiaketara, esaterako, nire koinatuak, Jon Barriolak, aurkeztu zuen eztia.

Noiz atera zenuen Usurbilen aurkeztu zenuen eztia?

San Migeletan. Neu ezin izan nintzen joan, baina nire anaiak, Gerardo eta German, eta Andoitz Barriola ibili ziren lan horretan. Urtean behin ateratzen dut eztia, guretako nahikoa da.

Nola hurbildu zinen zaletasun honetara?

Erretiroa gertu nuen, eta bestetik, Pello Zubiriari entzunda nion gorputzaren defentsarendako onak direla erleak. Nere asmoa da 10 erle jartzea. Anaiek etxetxo bat egin didate.

Argizaria aprobetxatzen duzu kandelak egiteko, adibidez?

Ez. Nire helburuetako bat da, adibidez, erle batetik bi ateratzea eta propoleoa lortzea. Uste dut propoleoak badituela ezaugarri onak eta propoleoa egitea asko gustatuko litzaidake.

Zelan ikasi zenuen zuk erlak zaintzen eta eztia ateratzen?

Erlezain onak izan ditut ondoan. Egia esan, gutxien dakienetakoa naiz ni. Araotzen erlezain asko eta onak daude: Txantonena, Lurgorritakoa, Jokin Axpe, Andoitz Barriola ... eurak irakatsi didate, nahiz eta saria nik irabazi.

Araotzen beti egon da erlezaintzarako zaletasuna. Auzoko ohitura izan da hori beti. Baserri askotan zeuden erlategiak, zuhaitzen enborretako zuloetan ere bai, esaterako, nahiz eta horiek ezti gutxi eman. Araozko kanpandorrean ere beti dago erlea, eta zaharra hiltzen den heinean, berriak hartzen du tokia

Zertarako da ona eztia?

Azukarraren ordez erabili daiteke, adibidez, eta uste dut hobea dela eztia azukarra baino.

Bestalde, Errusiako herrialde baten, esaterako, ezti garbia saltzen omen dute eta hondarra etxerako uzte dute. Antza, 100 urte baino gehiago duten biztanle asko omen daude han. Erlazio horri kasu egin behar zaion edo ez, ez dakit, baina hor dago.

Etxean beti izan duzue ohitura eztia jateko?

Mutikotan bai, ohitura genuen eta beti jan izan dugu. Orain, alabei, erakutsi egin behar izan diegu eztia jaten. Aldatu egin dira gauzak.

Asiako liztor inbaditzailea ere gero eta ezagunagoa da. Arazorik sortu dizue zuei?

Zain nago noiz agertuko. Erletegian begira egon naiz eta ez dut ikusi, baina badakit nolakoa den eta Oñatiko kalean hilda ikusi dut, lurrean. Beraz, urruti ez dabil. Hala ere, esan bezala, nire erletegira ez da heldu oraindik, baina horrekin bizitzera ohitu beharko garela uste dut.

Ze dedikazio eskatzen dizu eztigintzak?

Uste baino lan gehiago du, egia esan. Neguan, adibidez, zaindu egin behar dira, gaitzen kontrako tratamendua eman behar zaie. Erlezainen Elkarteak berak ematen digu abisua, noiz tratamendua eman. Derrigortuta gaude, eta egia esan, horrela behar da, bestela, beste batengana joango da gaitza. Otsailetik apirilera bitarteko sasoia ere ez da ona. Eguraldia ez da ona izaten eta galtzeko arrisku handia dago.

Saria irabazita, orain zer?

10 erle jartzea da asmoa eta txekoendako egiten jarraitzea. Horrekin batera, eztigintzaz gozatzea eta naturari begira jarraitzea.

> **"Erleak nire izenean daude, baina etxekoak dira, baserrikoak"**

> **"Azukrearen ordez erabil daiteke, eta osasunerako hobea dela uste dut nik"**

O.E.

Zabalik dago komun publikoa

Dagoeneko erabilgarri dago San Lorentzo auzoko komun publikoa. Autobus geltokiaren ondoan, jolas parkearen ertzean, dago eta postetxe aurrean dagoenaren antzekoa da. Ume asko dabilen gunean egonda, fardelak aldatzeko mahaitxoa ere jarriko dute barruan.

Etxegabetzeak salatu dituzte Bilduk eta EAJk azaroko osokoan

O.E. | OÑATI

Etxegabetzeak salatu zituzten udalbatza osatzen duten bi alderdiek azaroko osoko bilkuran. Bilduk aurkeztutako mozioak jasotzen dituen puntuen artean, Udalak etxegabetzeak denbora mugagabean bertan behera uzteko exijitzen du. Horrekin batera, ohiko etxebizitzaren etxegabetzea nozitu duten herritarrei zein egoera horren arriskuan daudenei informazioa eta laguntza emateko baliabideak jarriko ditu; etxegabetzea ekiditeko helburuarekin, dagokion entitate finantzieroarekin harremanetan jarriaz. Kaltetuen eskura telefono zenbaki bat eta e-mail bat jarriko ditu.

EAJk aldeko botoa eman zuen, gaineratuz Estatuko Gobernuari eskatzea legedia aldatzeko eta Kutxabanken jarraipena egiteko. Bide horretatik, EAJk Kutxa pribatizatzeko bidean hartu duen aldeko jarrera salatu zuen Bilduk. EAJren aurkako moziotzat hartu zuen hori alderdi jeltzaleak, baina Bilduk aurkeztutako mozioaren aldeko botoari eutsi zion.

Taxi tarifa berriak eta Azkoagain garbitzeko lanak Bidebarri enpresari esleitzea ere onartu zuen udalbatzak, beste puntu batzuen artean. Osokoa hasi aurretik, Araiako hilketa saltzeko elkarretaratzean hartu zuten parte zinegotziek.

Tuterako Argia Ikastolaren aldeko produktu sortak salgai

Tuterako Argia Ikastolaren aldeko produktu sortak daude salgai Txantxiku Ikastolan. 50 euroren truke, Erriberako kalitatezko produktu naturalez osatutako sorta da: barazki menestra, lentejak, garbantzuak, orburuak, kardua, lekak, tomate saltsa, pikillo piperrak eta esparragoak. Eskaerak abenduaren 12a aurretik egin behar dira Txantxiku Ikastolan.

Tuterako Argia Ikastolak, Nafarroako Ikastolen Elkarteak, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eta Zazpiak Bat, harreman sarea elkarteak elkarrekin burutu duten ekimena da.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Euskaraz bizi izateko nahia aldarrikatzeko ekintzak

Tailerra, jostailuen erakusketa eta kantu-poteoa daude, besteak beste

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, gurean ere askotariko ekintzak egingo dira egunotan. Eskoriatzan, 14:30ean, Luis Ezeizako ikasleak, irakasleak eta gurasoak pilotalekuan elkartzen hasiko dira (eguraldi ona eginez gero, patioan); jarraian, azaroan prestatutako dantza eta abestien ekitaldiari hasiera emango diote. Hori bukatzean, guraso elkarteak gertatutako gaztainak jango dituzte. Horretaz gainera, Udalak antolatuta, 17:00etan, umeendako tailerrak izango dira herriko plazan (eguraldi txarra egiten badu pilotalekuan).

Ordubete geroago, *Berbalagunak* izeneko egitasmoan izena emateko aukera izango dute eskoriatzarrek. Programa horrek euskara ikasten ari direnak euskaldunekin elkartzen ditu euskaldun berriek euskaraz aritzeko aukera izan dezaten. Ordu berean, Euskararen Egunaren inguruko kamisetak eta banderak saltzeko postua jarriko dute plazan; eta 19:00etan, kantu-poteoan hasiko dira.

Euskarazko jostailu erakusketa egingo dute aurten ere. | ESKORIATZAKO UDALA

Marrazkiak eta bestelakoak

Euskararen aldeko ekintzak ez dira hor amaituko. Etzi, eguaztena, *Biodiskografia: irakurraldi bat* emanaldia izango da unibertsitateko areto nagusian, 22:30ean. Bi musikarik (Xabier Montoiak eta Ibon Rodriguezek) eta bi idazlek (Xabier Montoiak eta Iban Zalduak) ipuin musikatuak eskainiko dituzte.

Horretaz gainera, gaurtik eguaztenera bitartean, euskarazko jostailuen erakusketa jarriko dute, 17:00etatik 19:30era, kultura etxean. Hezitzaileak ere han izango dira gurasoen eta haurren galderei erantzuteko.

Marrazkiak eta bestelakoak

Hori, Eskoriatzari dagokionez. Bestalde, Aretxabaletako eragileok ekintza berezia antolatu dute elkarlanean: plazako arkupeak zutabez zutabe, sokaz lotuko dira gaur, herritarrek bertan beren marrazkiak, esaldiak, ipuintxoak edo hitzak zintzilika ditzaten. Horretaz gainera, aretxabaletarrak animatu gura dituzte euren etxeetako leiho eta balkoietan *Euskaraz bizi nahi dut* leloa jar dezaten.

ARETXABALETA

Etxagabetzeen gaineko mozioa aurkeztuko du gaur EH Bilduk

Joan den asteko ohiko osoko bilkurako gai zerrendan sartzea ez zutelako onartu gainerakoek, tartean Aralarkoek, aurkeztuko dute berriro gaur

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Etxegabetzeen gaineko mozioa eztabaidatuko dute gaur (18:00) udalbatzak egingo duen ezohiko osoko bilkuran. Aurreko astelehenean landu gura izan zuten EH Bilduk aurkeztutako mozio hori, baina gai zerrendan sartu barik zegoen, eta hor sartzeko bozketa egiterakoan, gainerako alderdiek, Aralarrek eta EAJk, ez zuten alde bozkatu.

Aralarko Inaxio Garrok esan zuen mozio hori babestearen alde zeudela, eta babestu ez izanaren arrazoia zela "presaka eta berandu aurkeztu izana". Ana Bolinaga alkatea, ostera, ez zen batere konforme agertu; izan ere, "Aralarkoek (EH Bildu koalizioko kideak) aurretik zeukaten mozio horren berri, eta lau gramatika zuzenketa egin ondoren, euren oniritzia jasota geneukan".

Alkateak gaineratu zuen Aralarren oniritzia jaso arren, bilkura baino lehen elkartzeko proposamena egin ziela: "Ezin zuela erantzun zuen EAJk, eta Aralarrek ez zuen erantzun".

EAJko Uribetxeberriak "aurretik eztabaidatzea hobe zela" aipatu zuen. Eta alkateak erantzun: "Komeni zaizuenean erabiltzen duzue arrazoi hori, beste batzuetan ez duzue-eta halakorik egin".

OHARRAK

PINTURA ERAKUSKETA

Iker Egaña oñatiarraren pintura erakusketa egongo da ikusgai eguaztenetik Arkupen. Mihisean egindako olioak eroango ditu, bereziki, Arkupera, akrilikoak eta paperean margotutako ikatz -ziria ere izango diren arren.

AKORDEOI KONTZERTUA

Iosif Purits akordeoilari errusiarrak kontzertua eskainiko du eguenean, 20:00etan. Ezaguna da Purits gaztea gurean, Arrasate Hiria Akordeoi Txapelketa irabazi zuen-eta joan den urtean. Debalde izango da Zaraia aretoan egingo den emanaldia.

Zabalik dago eraikuntzarako txartel profesionala lortzeko ikastarorako izen-ematea

Eskoriatzako Udalak antolatuta, eraikuntzarako txartel profesionala lortzeko ikastaroa dago abenduaren 17an eta 18an. Saioak kultura etxean izango dira, 09:00etatik 13:00etara. Interesatuek hilaren 12a baino lehen pasa behar dute udaletxetik, 08:30etik 13:30era; izena emateareKin batera, NAaren kopia eta argazki txiki bat eskatuko zaie. Eskoriatzarrek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 30 euro.

Hilaren 27an eta 28an egingo den Gabonetako parkerako begiraleak behar dituzte Eskoriatzan

Aurten ere Gabonetako parkea antolatu du Udalak, eta dagoeneko zabalik dago horretan lan egiteko izen-ematea. Begirale moduan jardun gura dutenek curriculuma aurkeztu behar dute abenduaren 10a baino lehen. Bi bide dituzte horretarako: kultura etxean utzita edo *gazteria@eskoriatza.net* posta elektronikora bidalita. Hilaren 27an eta 28an izango dira kantxako ekintzak, urtero bezala, goizez eta arratsaldez.

ESKORIATZAKO UDALA

Nahia Arguiz Zaragozan

Nahia Arguiz Vita eskoriatzar gazteak Zaragozan jokatutako gimnasia erritmikoko oinarrizko taldeen Espainiako Txapelketan parte hartu du. Eibarko gimnasia erritmikoko Ipurua Taldean dabil, alebinetako oinarrizko taldean; bada, txapelketan parte hartu duten 49 taldeetatik hamargarren postuan sailkatu da Arguizen taldea.

Abenduaren 15ean Logroñora joango dira Jaiki elkartekoak, inprobisazio saioa egitera

Jaiki elkartea musikazaleei zuzendutako irteera antolatzekotan dabil. Udaberrian egindako Musika-Jam saioaren arrakasta ikusita, Aitor Zenarruzabeitia irakasleak Logroñoko bere musika gelara joatea proposatu die Jaikikoei. Abenduaren 15ean dute hara joateko asmoa: 17:00etatik 20:00etara, inprobisazio saioa egingo dute eta jarraian, Laurel kaleko tabernetan solasaldia.

ARETXARTE

Jesus Mari Martinez saritua

Aretxarte merkatarien elkarteak sariak banatzen dihardu. Azaroaren 12an Benito zapata-dendan 10:30ean erosketa egiteagatik jaso du oparia Jesus Mari Martinezek: M5 kirol-dendan erosketa egiteko 50 euroko balioa duen txartela, hain zuzen ere. Argazkian Jesus Mari Martinez, M5 dendako Nerea Leterekin.

ElgetaKlik 2012 lehiaketa irabazi duen argazkia; Kepa de Vegak egin zuen Antzuategiko askan. | KEPA DE VEGA.

Jokin Izagirrek gai librean aurkeztutako argazkia. | J. I.

Mikel Ormaetxeak aurkeztutako argazkietako bat. | M.O.

ELGETA

Kepa de Vegak irabazi du ElgetaKlik 2012, Antzuategiko iturriaren argazkiarekin

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Kepa de Vegak irabazi du aurtengo ElgetaKlik lehiaketa. Antzuategi Erdikoa baserriko askari ateratako argazkiarekin —goian ikusgai— izan da irabazlea. Saria ere jasoko du: Elgetako edozein tabernatan bi lagunendako afaria edo bazkaria irabazi du.

Aurreko domekan, azaroaren 25ean, jokatu zen ElgetaKlik 2012, eta bost parte-hartzaile izan zituen; tartean, bi adingabeko. Lehiaketara, hortaz, 30 argazki aurkeztu ziren.

Sei argazki bakoitzak

Antolatzaileek prestatutako gai -zerrenda jasota argazkilariak 11:00etan abiatu ziren udaletxeko arkupetik. Parte-hartzaile bakoitzak sei argazki aurkeztu behar izan zituzten, eta gaiak honakoak izan ziren: herriko iturriak, San Roke ostea, udazkena, tabernetako giroa, plaza, eta gai librea. 14:30erako entregatu zituzten argazkiak udaletxean, eta antolatzaileek lau egunera eman zuten epaiaren berri.

Udalak eskerrak eman dizkie lehiaketan parte hartu duten bost argazkilariei. Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak orain *www.elgeta.org* webgunean dituzue ikusgai. Argazki politak daude tartean.

ANTZUOLA

Gabon usaina, Gaztaina-erre Egunarekin

130 kilo gaztaina erre zituzten eta 40 litro sagardo banatu 25. Gaztaina-erre Egunean. Giro paregabean, lau gaztaina-erretzaileak jo eta su aritu ziren danbolinari biraka eta bueltaka. Eguraldi hotzak lagunduta gustura asko dastatu zituzte askok urteko lehen

JONE LARRAÑAGA

ARAMAIO

Plan orokorrari hasierako onarpena emateko agiria, urte amaierarako gertu

Diputazioak funtsezko aldaketa batzuk egitea eskatu du; kasu horietan tramitazioa luzea da

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Azaroaren 28ko osoko bilkuran landu zen gaietako bat izan zen plan orokorrarena. Alkatearen borondatez, hirigintza planaren egoeraren berri eman zuten. Izan ere, Arabako Diputazioak funtsezko aldaketa batzuk eskatzen ditu behin betiko onarpena egin aurretik. Aldaketa horien artean daude honako bi hauek: industria erabileretarako eremua (IB-13) izatea aurreikusten dena, Arrasatetik Aramaiorako norabidean Ibarraran heldu aurretik ezkerreko aldean geratzen den lursaila, lur ez urbanizagarri bezala sailkatu beharko dela dio Aldundiak. Beste aldaketa bat da Matxinkaleren bukaeran dagoen eremua (IB-10) hiri lurzoruko sailkapenetik kanpo utzi behar eta lur ez urbanizagarri moduan jarri beharra. Izan ere, Diputazioaren arabera, gune horretan A-2620 errepide nagusiarekin lotzeko egin beharko litzatekeen lotura dela-eta –zubia eta bidea–, ez zaio bideragarritasun ekonomikorik ikusten.

Auzoen onarpena etenik

Bestalde, auzo eta landa gune guztietarako plana eten egin da mugaketak berraztertu, eta auzoetan eman daitezkeen hazkuntzak zehaztu behar direlako. Bestalde, Oletako eremua hiri lur bezala sailkatu beharko da. Funtsezko aldaketak daudenez, tramitazioak luze joko du.

Hilaren 28ko osoko bilkurako bozketa une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

LEINTZ GATZAGA

Eskolakoak Eskoriatzara doaz Euskararen Egunean

Luis Ezeizako lagunekin elkartu eta dantzan egin eta gaztainak jango dituzte umeek gaur

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Euskararen Nazioarteko Eguna da gaur, hilak 3, eta umeek, gazteek eta helduek, guztiek izango dute gogoan. Udalak ez du aparteko ekitaldirik antolatu, ezta Gurel guraso elkarteak ere, eta euskaraz berba egitea dela ospakizunik handiena jakinarazi dute horiek: "Egunero legez, euskaraz jardun dezatela umeek, bai ludotekan, bai liburutegian; ez dago hori baino ospakizun handiagorik".

Eskolako umeak Eskoriatzan

Eskolako kideek, Eskoriatzako lagunekin egingo dute bat egun hori ospatzeko. Goiza ohi bezala pasatuko dute Gatzagan eta bazkalostean joango dira Eskoriatzara baserritar jantzita. Pilotalekuan elkartuko dira (14:45) ume, guraso eta irakasleak, eta azken asteotan gertatutako dantzen eta abestien emanaldia eskainiko dute.

Talde guztien ekitaldiak bukatutakoan guraso elkarteko kideek erretako gaztainak jango dituzte.

KZgunea goizean zabalik

Bestalde, gaur, abenduko lehenengo astelehena, zabalik izango da KZgunea goiz partean (09:00-13:00). Aitor Madrid dinamizatzaileak Interneten gaineko argibideak emango dizkie hurbiltzen diren 16 urtetik gorako gatzagarrei. Ikastaro motzak egin eta nabigatzeko aukera izango dute horiek.

Ez da izango abenduko hitzordu bakarra: hilaren 17an ere etorriko da Madrid, Pilar kalean dagoen KZgunea zabaltzera.

Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Defentsan gogor lan egin behar izan zuten Hernani liderra mendean hartzeko

Bergarak 36. minutuan sartu zuen garaipenaren gola

Bergarako jokalaria erasoan. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA

BERGARA
1-0
HERNANI

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Soto, Apellaniz, Elorriaga, Urrutia, Inurrieta, Aranburu, Cabanillas (Navas, 72. min.), Beitia, Valerio (Oregi, 76. min.), Balza (Arruti, 85. min.) eta Crespo.

Hernani: Orokieta, Aduriz, Mingo (Perez, 45. min), Lujanbio (Didaka, 85. min.), Loidi (Ibarburu, 85. min.), Gurrutxaga, Iñurritegi, Loinaz (Bereziartua, 45. min.), Olabide (Zabaleta, 75. min.), Olasagasti eta Gutierrez.

Golak: 1-0: Balzategik 36. minutuan.

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergarak garaipen garrantzitsua lortu zuen Hernani liderraren aurka. Partidua ondo planteatu zuen Neka Galanek eta egindako lan onak bere fruitua izan zuen. Hernaniren jokoa intentsitate handikoa dela jakinda irten ziren zelaira etxeko jokalariak. Hala, partidu gogorra jokatu behar izan zuten. Lehenengo minutuetan baloiaren jabetza izan zuten bergararrek. Partiduko lehenengo gola, eta bakarra, 36. minutuan lortu zuten etxekoek. Jokin Balzategi izan zen golegilea.

Ia bigarrena egin zuten

Atsedenaldira markagailuan aurretik joateak lasaitasuna eman zien etxeko jokalariei. Bigarren zatiko lehenengo minutuetan indartsu irten ziren bergararrak. Imanol Cabanillasek bigarrena egiteko aukera garbia izan zuen: atezainaren aurrean bakarrik geratu zen baina haren jaurtiketak langa jo zuen.

Beste aukera batzuk ere izan zituen etxeko taldeak. Batez ere, esker hegaletik egindako barneratzeetan ibili ziren ondo mahoneroak. Baina, aurrealdean Hernani liderra zuten; eta, hernaniarrek liderrak zergatik diren erakutsi nahi izan zuten. Poliki -poliki lehiari neurria hartzen joan ziren, eta horrekin batera aukera garbiak sortu zituzten. Korner baten ondoren etorri zen partiduko jokaldi eztabaidagarria. Ondo errematatu zuten kornerretik ateratako baloia hernaniarrek, baina Bergarako atezain Sotok ere ondo geratu zuen. Jokaldi horretan hernaniarrek baloia sareetan sartu zela eskatu zuten eta ondorioz gola izan zela; baina, epaileak eta marrazainak ez zuten halakorik ikusi eta ondorioz ez zuten golik adierazi. Horrek Hernaniko jokalarien eta zaleen haserrea sortu zuen.

Bosteko defentsa jarri zuten

Partiduko azkeneko minutuetan etxeko taldeak bost defentsa jarri zituen garaipena defendatzeko. Hernaniko taldea gola egitera irten zen baina atzean sartu ziren bergararrak eta euren ahaleginak emaitza ona izan zuen. "Asko sakatu dute baina guk ondo defenditu dugu", azaldu zuen amaieran Arrutik.

Hernanik fisikoki talde indartsua duela erakutsi zuen eta gainera entrenatutako jokaldietan min handia egiten dakitela ere bai.

Zapatuko garaipenarekin Bergarak bolada onari eutsi dio: "Azkeneko bi partiduak etxetik kanpo irabazi ditugu, eta orain etxean irabazita gora begira jarri gara", azaldu zuen partidu amaieran Arrutik. Garaipenarekin Bergara laugarren postuan jarri da, 22 punturekin. Datorren astean Tolosaren aurka jokatuko dute: "Irteera zaila izango da", nabarmendu du Arrutik.

AITOR ARRUTI | JOKALARIA

"Ondo planteatu dugu norgehiagoka"

A.E.

Bergarako jokalari Arruti pozik zegoen emaitzarekin.

Azken minutura arte sufritu duzue.

Sufritzen egon gara bukaera arte, eta azkenean bost defentsa sarrarazi digute, baina garaipena etxean geratu da.

Nolako partidua izan da?

Partidu gogorra izan da, bagenekien eurak fisikoki ondo daudela eta geratutako jokaldietan ondo ibiltzen direla. Hasieratik ondo planteatu dugu eta ondo joan da.

Atsedenaldira irabazten joatea abantaila izan da?

Abantaila handia izan da. Pozik iritsi gara atsedenaldira eta bigarren zatian eustera irten gara.

OHOREZKO ERREGIONALA

Lau gol egin zizkion Mondrak Urolari Mojategiko zelaian

Galtzen hasi arren irabaztea lortu zuen Mondrak (4-1); UDAk eta Aloñak ere irabazi egin dute

A.E. | ARRASATE

Lutxo Iturrinoren taldeak txarto hasi zuen atzoko norgehiagoka. Urolak, lehenengo zatian, 0-1ekoa egin zuen partidua maldan gora jarriz Mondrarendako. Baina, etxeko taldeak indarra atera eta aurrera egitea lortu zuen. Atsedenera iritsi aurretik banako berdinketa egin zuen Kevinek. Gol horrek sekulako arnasa eman zion etxeko taldeari. Hala, bigarren zatian garaipenaren bila irten zuten indartsu. Bigarren gola Julen Zaitegik egin zuen; hirugarrena, Ericena izan zen eta laugarren eta azken gola, Txonanek sartu zuen.

Iturrino entrenatzailea pozik zegoen taldeak partidua gaizki hasi arren Urolari aurre egiteko gauza izan zelako.

Iker Lopez baloiarekin. | JOSETXO ARANTZABAL

Denek irabazi dute oraingoan

Ohorezko erregional mailan emaitza onak izan dituzte oraingo aste bukaeran Debagoieneko taldeek. Aretxabaletak 2-0 irabazi zion atzo arratsaldean Ostadarri. Bi golak Iker Sanchezek sartu zituen. Aloña Mendik ere Azkoagainen irabazi egin zuen. Tolosa indartsuaren aurka 1-0 egin zuen Aloñak. Gola Unai Uribetxeberriak egin zuen 25. minutuan. Andoni Azkargorta entrenatzailea pozik zegoen taldearen lanarekin: "Aspektu denetan egin dugu lan ona", zihoen.

Sailkapenean Aretxabaleta 6. postuan dago, Aloña Mendi 11.n eta Mondra 15.n. Datorren astean etxetik kanpo jokatuko dute hiru taldeek.

Mondrako golegilea, Melani, baloia bandara eraman nahian. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

Zoritxarreko jokaldi baten ondorioz, hiru puntuek Logroñora egin zuten alde

Atzoko partidua galdu ostean, Mondra sailkapeneko 10. postuan dago

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Futbolean akatsak garesti ordaintzen dira eta hori gertatu zitzaion domeka goizean Mondrari. Ezkurraren neskek gaizki hasi zuten partidua eta lehenengo minutuan arbitroak penaltia adierazi zuen Mondraren arean. Logroñoko jokalariak penaltia bota eta Oihanak baloia gelditzea lortu zuen. Lehenengo sustoaren ostean, Mondrak partiduaren kontrola izaten saiatu zen, baina Logroñok aurre egitea lortu zuen.

Bigarren zatian, Mondrak aurrera egin zuen eta Melanik gola egitea lortu zuen. Partidua irabazita, sailkapenean aurrera pauso bat egiteko aukera zuen Mondrak, baina ezin izan zuen emaitza mantendu eta Logroñok partidua berdintzea lortu zuen. Gero, 85. minutuan defentsan egindako akats baten ondorioz, errioxarrek partiduari buelta eman zioten.

Hurrengo biak kanpoan

Hurrengo astean, ligako bi partidu jokatuko ditu Mondrak, biak etxetik kanpo. Lehenengoa Oiartzunen aurka eta bigarrena San Inazioren etxean.

FUTBOLA

Mutrikuarrak garaituta Antzuolak lider jarraitzen du

A.M. | ANTZUOLA

Imanolen, Zubikarairen eta Ibairen golei esker Antzuolak sailkapeneko lehenengo postuan jarraitzen du. Partiduaren hasieratik antzuolarrak Mutrikuarrak taldea baino gehiago izan ziren. Nahiz eta gola sartzeko aukerak izan, etxeko taldeak 43. minutura arte ez zuen lehenengo gola sartu. Imanol izan zen golegilea. Bigarren zatian ere etxekoak nagusi izan ziren eta merezitako beste bi gol egin zituen.

Hurrengoa Elgoibarren

Antzuolak hurrengo astean Elgoibarren aurka jokatuko du.

Antzuolako jokalaria baloia erdiratzen. | J.A.

ARETO FUTBOLA

Ondo borrokatutako berdinketa lortu zuen Aretxabaletak Tolosako Laskurainen aurka (5-5)

Aretxabaletak berdinketa garrantzitsua lortu zuen zapatuan Tolosan. Partiduaren hasieran, etxeko taldea erasoan indartsu ibili zen eta 5-2 aldea ere lortu zuen, baina partiduaren azken txanpan aretxabaletarrak suspertu, eta berdinketa lortu zuten. Zubia dela eta, abenduaren 15era arte ez da ligarik izango.

EUSKAL LIGA

Bigarren laurdeneko lan txukunak garaipena ekarri zion etxeko taldeari

Josu Larreategiren mutilek lan ona egin zuten zapatuan Paduraren aurka Iturripen

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
88-70
PADURA

FITXA TEKNIKOA

Mondragon Unibertsitatea: Aranzabal (14), Kortabarria, Ezpeleta, Arejolaleiba (19), Barrena (6), Anasagasti (5), Barbero (21), Arejolaleiba M (6), Igoa, Balantzategi (8), Isasa (4) eta Atxa (5).

Padura: Cabello (18), De Juan (6), Nieva (7), Martin (4), Martinez (3), Burgos (8), Alonso (14), Madariaga eta Bermejo (4).

Beste: Laurdenetako emaitzak: 21-22, 45-35, 65-45 eta 88-70.

Etxeko jokalari Barbero saskiratzea egiteko gertu Padura taldeko jokalarien aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Euskal ligako 10. jardunaldia jokatu zuten zapatuan MUk eta Padurak. Etxeko taldeari kosta egin zitzaion lehiaren erritmoa hartzea baina behin indarrak hartuta samur nagusitu zen.

Partiduko lehenengo tantoak Anasagastik egin zituen lehenengo minutuan. Bi jaurtiketa libre sartu zituen. Baina, aurretik hastea ez da nahiko izaten partiduaren jabe izateko. Hala, Padura taldea poliki-poliki nagusitzen joan zen eta lehenengo laurdena, gutxigatik bada ere, aurretik amaitu zuten: 21-22.

Bigarren laurden bikaina

Bigarren laurdena indartsu hasi zuten Larreategiren mutilek: bi hiruko jarraian sartuta 27-22 aurretik jarri ziren. Ondo ibili ziren defentsan, baina batez ere erasoan izan ziren nagusi. Hala, 24-13ko partziala eginda 45-35 aurretik joan ziren aldageletara.

Partidua nahiko ondo bideratua zuen ordurako etxeko taldeak. Hala ere, indartsu ibili ziren eta hirugarren laurdenean 20-10eko partziala egin zuten. Azkeneko laurdenean Padurak intentsitatea igo zuen: 23-25eko partziala izan zuten alde. Larreategiren mutilendako garaipen garrantzitsua izan zen: dagoeneko 17 puntu lortu dituzte.

GIPUZKOAKO MAILA

JOSETXO ARANTZABAL

Samur nagusitu zen Eskoriatza

Fernando Rasoren taldeak 70-38 irabazi zion Internacional taldeari Intxaurtxuetan. Etxeko taldeak ez zuen inolako zailtasunik izan norgehiagokan aurre hartu eta aldea mantentzeko. Dagoeneko 13 puntu ditu Eskoriatzako taldeak; jokatutako zortzi partiduetatik bost irabazi dituzte. Datorren astean ez dute jardunaldirik izango eta abenduaren 18an Andraitzen kantxan jokatuko dute.

EBA LIGA

Denboraldiko bosgarren garaipena Aloñarendako

Eneko Blancoren taldeak Santanderren jokatu zuen: atzetik aurrera joan ziren markagailuan

A.E. | ARRASATE

Garaipenarekin etorri ziren oñatiarrak Santander aldetik zapatuan. 63-66 nagusitu zen Natra -Oñati Estela taldearen aurka; hala, denboraldiko bosgarren garaipena lortu dute oñatiarrek.

Kantabriako taldeak baja garrantzitsu bi izan zituen zapatuko lehiarako: Alvaro Lombera eta Juanpe Garcia jokalari garrantzitsuak min hartuta zeuden. Hala ere, Estela markagailuan aurretik jarri zen lehenengo minutuetan: 9-4. Aloña Mendik poliki-poliki aldea murriztu zuen eta 2-13ko partziala eginda lehenengo laurdena 11-17 irabaztea lortu zuten.

Markagailua irauli zuten

Bigarren laurdenean Estelako jokalariak jaun eta jabe izan ziren. Oñatiarrendako ahazteko moduko laurdena izan zen. Lehenengo laurdenean egindako lana bertan behera utzi zuten: 29-11ko partziala egin zuten Estelako jokalariek. Hala, atsedenera 40-28 aurretik joan ziren.

Aldagelako animuak

Burumakur joan ziren jokalariak aldageletara baina atsedenean entrenatzailearen animuak eta aholkuak jaso ondoren indarberrituta irten ziren kantxara. Defentsan indartsu ibili ziren, errebotea ondo zaindu zuten eta erasoan era guztietako saskiratzean lortu zituzten. hirugarren laurdena 51-52 amaitu zuten eta partidu amaieran hiru puntugatik nagusitu ziren oñatiarrak: 63-66. Aipatzekoa da Ander Gartzia bergararrak sartu zituen 20 puntuak.

GIPUZKOAKO MAILA

Mondragon Unibertsitateak 52-75 galdu du etxean

Senior mailako Mondragon Unibertsitea A taldeak 23 puntuko aldearekin galdu zuen etxean Bosteko Irauli taldearen aurka. Hala, sailkapen orokorrean 11. postuan jarraitzen dute arrasateearrek. Jokatutako 10 partiduetatik 2 bakarrik irabazi dituzte eta ondorioz 12 lortu puntu dituzte sailkapen orokorrari begira.

GIPUZKOAKO MAILA

Azkeneko postuan dago Bergara ligako lehia bakarra irabazita

Bergarako Soraluze saskibaloi taldeak 77-79 galdu zuen Errotaundi ISBren aurka. Orain arteko partidu bakarra irabazita sailkapeneko azkeneko tokian daude mahoneroak. Datorren astean ez da jardunaldirik izango. Hurrengo partidua abenduaren 16an izango dute Alde Zaharraren kantxan.

Nahiz eta defentsa lan ona egin, Bergarako taldea ez zen erasoan fin ibili. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako jokalariek 'Euskaraz bizi nahi dut' lemarekin bat egin zuten | A.M.

Ford Mugarriko jokalariek pozik bukatu zuten partidua. | A.M.

NAZIONAL MAILA

Ford Mugarrik landutako garaipena eskuratu zuen Debagoieneko derbian

- Derbi gehienak bezala, intentsitate handiko eta kontaktu askoko partidua izan zen
- Ane Herreroren mutilek lehenengo minututik erakutsi zuten taldeak duen nagusitasuna

EMAITZA

SORALUZE B.K.E
23-28
FORD MUGARRI

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Derbiak intentsitate handiko partiduak izaten dira eta zapatuan Bergarak eta Arrasatek jokatutakoa ez zen gutxiagorako izan. Bi taldeek jokoan zeuden bi puntuak eskuratzeko defentsa lan serioan oinarritutako jokoa egin zuten eta traba handiko partidua izan zen. Hala ere, arrasatearrek lehenengo gola sartu zutenetik partiduaren kontrola izan zuten eta bergararrak baloiaren atzetik jokatzera behartu zituzten.

Nahiz eta sailkapenak Ford Mugarri taldea Bergara baino gehiago dela esan, arrasatearrek errespetu handiarekin planteatu zuten norgehiagoka. Izan ere, aurreko astean Bergarak liderraren etxean garaipen garrantzitsua eskuratu zuen eta etxeko taldeak derbia motibazio handiarekin hartu zuten. Partidua hasi bezain laster bi taldeek defentsa gogorra planteatuko zutela ikusi zen eta 3. minutura arte golik ez egotea izan zen horren erakusle.

Ane Herreroren mutilek lehenengo gola sartu eta bergararrek beste batekin erantzun zuten. Hurrengo minutuan talde bakoitzak beste gol bana sartu zuen eta hortik aurrera, kanpoko taldeak duen nagusitasuna erakutsi zuen: hiru gol sartu zituzten eta norgehiagokaren erritmoa ezartzeko gai izan ziren.

Bergarako taldeak jokalari azkarrak ditu eta kontraerasoak egiten trebeak dira, baina arrasatearrek hori ekiditeko, kontaktu handiko defentsa egin zuten eta etxekoen gola egiteko antsietatearekin jokatu zuten. Muniategiren mutilek baloia eskuartean izateko arazoak zituzten eta kanpotarrek markagailuko aldea handitzeko aprobetxatu zuten. Herreroen mutilek atsedenaldirako 5 goleko aldea lortu zuten: 9-13.

2. zatian intentsitateak gora

Bigarren zatiak lehenaren hasiera berdina izan zuen: bi taldeetako batek ere ez zuen aukera garbirik izan eta 4. minutura arte ez zen golik izan. Minutuak aurrera egin ahala, partiduak intentsitatea irabazi zuen eta amaierarako 4 minutu geratzen zirenean bergararrek bost goleko distantzia bira murriztu zuten. Baina talde arrasatearrak atzera egin beharrean aurrera egin eta bost goleko aldearekin bukatu zuten partidua: 23-28. Arrasatekoek merezitako garaipena lortu zuten.

XABIER ALTZELAI | FORD MUGARRIKO JOKALARIA

"Egindako partiduarekin pozik gaude"



A.M.

Intentsitate handiko derbia izan zen eta Xabier Altzelaik lehertuta bukatu zuen partidua.

Nola joan da derbia?

Partidu gogorra izan da, bi taldeak defentsan oso indartsu aritu gara eta asko kostatu zaigu golak egitea. Partidu osoan 2,3 eta 5 goleko aldea izatea lortu dugu, baina bukaeran asko gerturatu dira. Pozik gaude egindako partiduarekin eta baita emaitzarekin ere.

Bi taldeek defentsa gogorra planteatu duzue.

Defentsan indar asko jartzen duzunean erasoan min egitea zaila izaten da.

Nahiz eta zalantzekin hasi, denboraldia ona egiten ari zarete.

Bai, lesio asko izan ditugu, baina denboraldi polita egiten ari gara.

GORKA UGALDE | SORALUZE B.K.E-KO JOKALARIA

"Gol gutxiko partiduak galtzen ditugu"

A.M.

Nahiz eta defentsan ondo aritu erasoan zerbait falta izan zitzaien sentsazioarekin bukatu zuen Ugaldek.

Gaurko derbian puntuak Arrasatera.

Hasieratik euren jokoan sartu gara eta gol gutxi sartzea lortu dugu. Normalean, gol gutxiko partiduak galtzen ditugu, gehienetan partidu bat irabazteko 30 gol inguru sartu behar ditugu eta gaur 23 egin ditugu...

Partidu gogorra izan da.

Bai, bukaeran izan ezik, erritmo gutxiko partidua izan da eta horrelako partiduetan kale egiten dugu. Gu baino indar handiagoko taldeekin abiadura erabili behar dugu eta gaurkoan ez dugu asmatu. Kanpoko jaurtiketekin ere ez gara fin ibili.

ATLETISMOA

Arnaizen aholkuak entzun eta takarraran egitera

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Beñat Arnaiz triatleta aretxabaletarraren gomendioak entzun eta korrikan egitera joan zen lagun taldetxoa zapatu goizean. Loramendi Intersport dendak antolatutako ekimena zen eta hainbat adinetako arrasatearrak elkartu ziren.

"Burugogorrak" izan behar

"Takarraran egiteko gogoa izatea da garrantzitsuena", esan zien Arnaizek elkartutakoei, eta konstanteak izatea, "burugogorrak". "Egindakoan gustura geratzen gara, baina sarritan aitzakia asko topatzen ditugu ez joateko: eguraldi txarra, lanak... Eta egunero ordu erditxo bat egitea ez da hain zaila", gaineratu zuen.

Norberaren erritmoan jardutearen garrantzia ere aipatu zuen, eta hasiberritan "lasai" joatea gomendatu, bestela "segituan erretzeko arriskua dagoelako": "Zuk bai samur egiten duzula korrikan! esan izan didate, eta nik erantzun: bai, baina astean 100 kilometro ibiltzen naiz". Eta oinetako egokiak erabiltzea oso garrantzitsua dela argitu zuen.

Aholku horiek entzunda takarraran egitera joan ziren Aretxabaletarantz elkartutako 12 bat lagunak. Bi taldetan banatuta ekin zioten ibilbideari; erdiak Arnaizekin joan ziren 10 kilometro egiteko asmoarekin; gainerakoek, tartean 12 urte inguruko mutikoak, beranduago atera eta bost kilometro egin zituzten.

Arnaiz argibideak ematen denda barruan. | M.A.

Elkartutako lagun taldea korrikan egitera joan aurretik. | M.A.

MENDIA

Otxoa de Olza mendizalearen gaineko 'Pura vida' dokumentala emango dute bihar, Arrasaten

M.A. | ARRASATE

Iñaki Otxoa de Olza alpinista nafarra Annapurna mendian hil zen 2008ko maiatzean. Himalaiaren hegoaldean, 7.400 metroko altueran, gaixotu zen eta haren lagunak eta beste hainbat mendizale hari laguntzen saiatu ziren. Erreskate hura jasotzen duen filma egin zuten gero Pablo Iraburu eta Migeltxo Molinak, *Pura vida* dokumentala, eta bihar, abenduak 4, Arrasateko Amaia Antzokian emango dute (20:30).

Erreskate operazio hark lau egun iraun zituen, eta horixe jaso dute filmean, protagonistek eurek kontatuta, tartean Alex Gavan eta Horia Colibasanu errumaniarra –azken hau Otxoa de Olzarekin zegoen Annpurnan gaixotu zenean–. Gainditzeko grina, pasioa eta talde lana oinarri dituen aparteko istorioa eskaintzen du dokumentalak.

Otxoa de Olza. | NATURANAUTA

AUTOMOBILISMOA

Orobengoa anaiak lasterketa egin barik itzuli dira Alcañizetik, entrenamenduan autoa apurtuta

M.A. | ARRASATE

Alcañizen (Aragoi) jokatutako 500 kilometroko erresistentzia lasterketa egin barik itzuli dira Arrasateko TRT Racing taldeko Orobengoa anaiak. Entrenamendu saio pribatuetan ondo ibili ziren; baina saio ofizialean, hau da, lasterketako postua zehazteko proban, beste auto batek atzetik jo zuen Iker Orobengoaren autoa eta apurtuta utzi: "Izugarrizko potentziadun autoak zeuden, izugarrizko abiaduran zebiltzanak eta txikion gainetik pasatzeko gertu; hori ez zaigu gustatu", azaldu du Igor Orobengoak: "Arantzatxoa geratu zaigu, eta ea datorren urtean heltzen garen", dio.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Aurrera-Zarautz	1-1
Aretxabaleta-Ostadar	2-0
Trintxerpe-Lagun Onak	3-1
Oiartzun-Hondarribia	0-2
Beti Gazte-Berio	3-4
Mondra-Urola	4-1
Touring-Real Union	0-1
Aloña Mendi-Tolosa	1-0
Bergara-Hernani	1-0

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Hernani	30	12
2	Real Union	24	12
3	Touring	22	12
4	Bergara	22	12
5	Tolosa	21	12
6	Aretxabaleta	20	12
7	Berio	20	12
8	Hondarribia	20	12
9	Oiartzun	20	12
10	Zarautz	14	12
11	Aloña Mendi	14	12
12	Trintxerpe	14	12
13	Lagun Onak	13	12
14	Aurrera	13	12
15	Mondra	12	12
16	Beti Gazte	9	12
17	Urola	9	12
18	Ostadar	6	12

HURRENGO JARDUNALDIA

Aurrera-Aretxabaleta	
Ostadar-Trintxerpe	
Lagun Onak-Oiartzun	
Hondarribia-Beti Gazte	
Berio-Mondra	
Urola-Touring	
Real Union-Aloña Mendi	
Tolosa-Bergara	
Zarautz-Hernani	

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Añorga-Aretxabaleta	3-1

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Mutrikuarrak	3-0

1. ERREGIONALA

Bergara-Arizmendi	0-3
Aretxabaleta	---

OHOREZKO GAZTEAK

Billabona-Mondra	3-5
Zumaiako-AloñaMendi	1-3
Bergara-Lagun Onak	1-2

GAZTEEN 1. MAILA

Bergara	---
Aretxabaleta B-Arizmendi	1-1

OHOREZKO KADETEAK

Aloña Mendi-Elgoibar	1-3
Lagun Onak-Bergara	2-1
Anaitasuna-Aretxabaleta	1-1

GAZTE EMAKUMEAK KOPA

Irun-Mondra	1-1
Ikasberri-Bergara	0-6
Urnieta-Aloña Mendi	3-1

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Soraluze-Bergara	1-3
Aloña Mendi-Arizmendi	0-0

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONALA

Soraluze BKE-Ford Mugarri	23-28

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Izarraitz Aloña-Urola	24-23

'GIPUZKOAKO BIG.TXAPELKETA

Bergara-Ordizia	29-30
Egia-Arrasate	44-31

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Hondarribia-Bergara	28-20
Aloña Mendi-Eibar	22-28

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Berezao Aloña-Egia	39-19

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Usurbil Aloña Mendi B	36-8

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Estela-Natra Oñati	63-66

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Padura	88-70

SENIOR GIZONEZKOAK

MU.-Bosteko	52-75
Soraluce BKE-Errotaundi ISB	77-79

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

Aloña Mendi-Arri-BKL	64-47

SENIOR GIZONAK, 3. MAILA

MU.B-AIB Gazkoplastika ITB	77-51

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Internacional	70-38

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

Internacional CD-MU A	65-61

GURE KIROLA
GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:03, 23:56



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Markel Urrutia irakaslea (atzeko lerroan zutik) Arrasaten ematen dituen judo eskoletako neska-mutikoekin. | MARKEL URRUTIA

JUDOA

Markel Urrutia | Judo irakaslea

"Unescok dio judoa dela 14 urtera artekoendako kirolik egokiena"

- Markel Urrutia gerriko beltzak taldea osatu gura du Aretxabaletan
- 4 urtetik gorako umeekin ordubeteko bi saio egingo ditu, astero

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Markel Urrutia irakaslea da Arrasateko judo taldean. 55 bat lagunek dihardute taldean, eta orain, zerbitzua zabaldu gura dute Aretxabaletara. 4 urtetik gorako neska-mutikoendako taldea sortu gura dute. Judoaren onurez eta ezaugarriez egin digu berba Urrutiak.

Judo taldea sortu gura duzue Aretxabaletan.

Aretxabaletako kiroldegi berrian eskaera egin genuen, eta, baiezkoa jasota, orain deialdia egiteko ordua da. 4 urtetik aurrerako neska-mutikoekin judo taldea sortu gura dugu. Eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 17:00etatik 18:00etara arte. Taldea martxan ipintzeko, gutxienez, zortzi ume beharko ditugu. Izena emateko telefono bat daukagu: 634 40 13 28 (Markel).

Zu zeu izango zara irakaslea. Esperientzia eta titulu ofiziala duen irakaslea.

Bai, hala da. 6 urtetik 16 urtera arte judoa egin nuen. Urte batzuetan kirola alde batera utzi eta beste gauza batzuk egin nituen. Duela zazpi urte berriro hasi nintzen judoan, serio, astean hiru entrenamendu egiten.

Duela hiru urte lortu nuen gerriko beltza *judoku*-n, eta orduan hasi nintzen umeei eskolak ematen. Gainera, duela bi urte atera nuen Euskal Eskolak ematen duen monitore titulu ofiziala. Aurtengo asmoa da erregional mailako titulua lortzea. Beraz, esango nuke esperientzia badaukadala. [Barre]

Ze metodologia erabiliko duzue neska-mutikoekin?

Judo eskolak jolasean oinarrituko ditugu. Horren bidez ikasiko dituzte arauak, oinarrizko ezaugarri fisikoak, psikomotrizitatearen garapena, taldekideekiko eta aurkariekiko errespetua, disziplina, kirolarekiko eta bizitzarekiko jarrera baikorra, besteak beste. Dena den, ume guztiak elkarrekin egon arren, norberaren behar eta gaitasunei egokitutako saioak landuko ditugu. Ume bakoitzaren beharren araberako lana eta metodologia erabiltzen dugu.

Ordubeteko eskolak izango dira. Nola antolatzen dituzue?

Hiru zatitan banatzen ditugu judo saioak: beroketa, atal espezifikoa eta lasaitasuna. Lehen zatian gorputzeko atalak berotzeko ariketak egiten ditugu. Ondoren, judoaren mugimenduak, ezaugarriak eta beste lantzen ditugu. Azkenik, erritmoa jaitsi eta lasaitzeko ariketak egiten ditugu.

Ze onura ditu judoak neska-mutikoendako?

Unescok dio haurtzarotik 14 urtera artekoendako kirol egokiena judoa dela. Judoak, jolasaren bidez, norbanakoen garapenerako oinarrizko atalak lantzen ditu: mugimenduen koordinazioa, oreka, gorputzaren adierazpena, espazioaren erabilera... Gainera, heziketa integrala bermatzen du. Adibidez, karatearekin eta aikidoarekin alderatuta, judoak bi arlo ditu: zutik egiten den borroka dauka eta baita lurrean egiten dena ere. Mugimendu gehiago lantzeko aukera ematen duen kirola da.

Bestalde, oso aproposa da autokontrol, hiperaktibitate eta portaera arazoak dituzten neska-mutikoendako, nortasuna baretu eta energia bideratzen laguntzen duelako.

Eta baita asmatikoendako ere.

Bai. Ni neu asmatikoa naiz, eta judoak mesede handia egin dit, norberaren segurtasunean eragiten duelako. Gaixotasun kronikoa izatearen sentsazioa txikitzen laguntzen du. Hori horrela, antsietate maila txikitu egiten da.

Adin tarte horretako neska-mutikoek parte hartzen al dute txapelketetan?

Ez. Lehian hasi aurretik komeni da judoa oinarritik ikastea eta lantzea. Hasiberriendako jolas bat da. Poliki-poliki hasiko dira lehiaketak ezagutzen.

Arrasaten ume koadrila polita daukazu. Mutilak neskak baino gehiago dira.

Kasu horretan bai, baina judoa ez da mutilendako kirola. Askok judoa borrokarekin identifikatzen dute. Akaso, gurasoek hori ikusten edo sentitzen dute. Baina judoaren onurak berberak dira guztiendako. Dena den, haur guztiak berdinak ez direnez, judoak ume bakoitzaren izaera kontuan hartuz hezten du.

Aretxabaletan judo taldea sortzeko deialdiaz gain, Arizmendi Ikastolan tailerrak egitekotan zabiltza.

Bai, hala da. Judoa umeengana helarazteko, 4-5 urteko umeekin tailerrak egiten hasiko gara urtarrilean, Arizmendi Ikastolan, lehen aldiz. Olarteko eraikinean egongo gara. Proiektu aitzindaria izango da. Interesatuek ikastolan bertan dute informazioa, eta izena ere han eman dezakete.

Adin tarte horretan dauden ume guztiak animatuko nituzke judoa ezagutzera. Umeak, eta euren gurasoak. Kirol osasuntsua da, onura asko dituena, eta jolaserako bidea ematen duena.

Markel Urrutia, behean, judo mugimendua egiten. | MARKEL URRUTIA

"Duela hiru urte hasi nintzen eskolak ematen, gerriko beltza lortzean"

"Judoaren arauak eta ezaugarri fisikoak jolasen bidez lantzen dira"

"Eskola hiru zatitan banatzen dugu: beroketa, ariketak eta lasaitasuna"

"Heziketa integrala bermatzea da judoaren ezaugarrietako bat"

Iaz Oñatiko Errekalde herri eskolan egindako gosari osasungarria | MIREIA BIKUÑA

Umeen %60k ez dute gosari osatu eta orekaturik egiten

Bihotz Bizi elkarteak kanpaina egingo du aurten Oñatin eta Eskoriatzan

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Bihotz Bizi elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) EAEko 2.100 eskola-umeri egindako inkesten emaitzak aurkeztu dituzte. Aurreko kanpainarekin alderatuta, gora egin du gosarian ogi gehiago jaten duten eta gosari osasungarria egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak —fruta, esnea eta zerealak— jaten dituzten ikasleen portzentajeak. Baina, oraindik ere, eskola-umeen %40k ohikotasunez hartzen dituzte opilak gosaltzeko eta %60k ez dute gosaritan esnerik hartzen.

Kanpaina Debagoienean

Bihotz Bizi elkarteak azaroan abiarazi du eskola-umeei zuzendutako bihotz-hodietarako gosari osasungarrien edizio berria. EAE osoko 121 ikastetxek eta 10-12 urte bitarteko 5.000 haur inguruk parte hartuko dute, tartean Oñatiko Errekalde Herri Eskolako zein Eskoriatzako Luis Ezeiza LH Herri eskolako ikasleek. Bihotz Bizi elkarteak abenduaren 18an egingo du gosari osasungarria Oñatin, eta abenduaren 19an Eskoriatzan.

Gogoratu behar da gosaria dela eguneko otordu garrantzitsuena, eta eragina duela errendimendu fisikoan eta baita eskolakoan ere. Elikadura orekatua mantentzen eta pisua kontrolatzen laguntzen du.

Familiak behar dira Txernobilgo 27 haur udan etxean hartzeko

L.Z. | ARRASATE

Txernobilgo eremu kutsatuan oso ahul dauden haurrak daude oraindik ere. Hala, Chernobil elkarteak harrera-familiak eskatzen ditu udan haurrak etxean hartzeko. "Abuztuan, elkarteko lau boluntariok Irpen eta Ivankiv-eko ehun haur baino gehiago bisitatu zituzten", azaldu du elkarteko presidente Marian Izagirrek. "27 kasu larriak dira, hau da, oso ahul daude, eta ez dute kutsatutako eremutik irteteko baliabiderik. Euskadin hobekuntza erraza duten gaixotasunak dituzten umeak dira; asma edo infekzio arinak".

Harrera programa martxan

Gauzak horrela, Chernobil elkarteak martxan ipini du 2013ko harrera-programa; 18. edizioa izango da. Eta euskal familiei ahalegin berezia eskatzen zaie, "inoiz baino beharrezkoagoa" den honetan.

Izen-emate epea urtea bukatu arte dago irekita eta, hortik aurrera, informazio eta prestakuntza saioak hasiko dira. "Familiei eskaintzen zaien laguntza iraunkorra da: harrera zer den azaltzen zaie, Agintzari elkarteak prestakuntza saioak ematen dizkie, eta udan, elkarteko kideak eta Ukrainiako monitoreak duda guztiak argitzeko prest daude", azaldu du Izagirrek.

Informazio gehiago behar izanez gero, Chernobil elkarteko kontaktuak honakoak dira: 670 41 90 78 telefono zenbakia eta *asociacionchernobilelkarteka@hotmail.com* helbide elektronikoa.

2010ean Txernobilgo bederatzi haur etorri ziren Oñatira. | UBANE MADERA

Espezialisten esanetan, eskola-umeen erdiek diagnostikatu bako ikusmen arazoak dituzte

L.Z. | ARRASATE

Ikusmenak berebiziko garrantzia du komunikazioaren eta harreman sozialen esparruan. Gainera, alterazio txikienak eragin handia izan dezake ikasketa prozesuan. Espezialisten esanetan, ikusmena haurtzarotik zaindu behar da.

Berriki egindako ikerketek azaleratu dute betaurrekoak behar dituzten eskola-umeen erdiek ez dutela diagnostikorik. Berez, oftalmologoek egiten dituzten kontrolen %27 soilik dira umeei egindakoak.

Ohikoena anbliopia

Anbliopia edo begi nagiaren patologia da haurren artean ohikoena. Gainerakoak baino hamar aldiz gehiago izaten da. Atzetik datoz miopia, hipermetropia, astigmatismoa eta estrabismoa. Adituen esanetan, eskolan antzeman ohi dira lehenengo aldiz patologia horien inguruko lehen alerta seinaleak. Dena den, oftalmologoek diote eskola-umeei urtean behin egin behar zaiela ikusmenaren kontrola. Sasoi egokiena ikasturte hasiera dela jakinarazi dute.

Alerta seinaleak

Papera aurpegira gehiegi hurbiltzea, kopiatzerakoan akatsak egitea, distantziak ondo ez kalkulatzea, ondo ikusteko begi bat estaltzeko tendentzia... asko dira seinaleak, eta lehenbailehen antzematen baditugu, hobe. Anbliopia, esaterako, hobeto sendatzen da neurriak txikitatik hartzen badira. Buruko mina, malko ugariko begiak edo argiari sentsibilitate handia edukitzea ere alerta seinaleak dira, eta profesional bati kontsultatu behar zaio.

Dislalia: haurretan ohikoa eta identifikatzen erraza

L.Z. | ARRASATE

Maider Egino logopedak dislaliari buruzko argibideak eman ditu *Guraso.com* atarian. Azaltzen duenez, 3 eta 5 urte bitartean azaltzen da, eta arazoa da haurrak gaizki ahoskatzen dituela zenbait letra.

"Haur bat letren soinuak ondo ahoskatzeko gai ez dela ikusten denean, dislalia diagnostikatzen zaio, betiere, bere adinerako eta garapenerako gaitasun horiek eskuratuak izan beharko lituzkeela ikusten bada. Dislaliak dituen haur batek letrak gaizki ahoskatzen ditu —*r* letraren eta *s* letraren ahoskatze arazoak izaten dira ezagunenak—, edo letra bat beste batengatik ordezkatzen du —*kotxea* esan beharrean *totxea*; *k* letra *t* letragatik ordezkatuz—, edo kontsonanteak ez ditu ahoskatzen —*trena* beharrean *tena* esaten du—", adierazten du Eginok. Haurrak lau urte baino gutxiago baditu ahoskera arazoak normaltzat jotzen dira, ikasketa prozesuaren barruan sartzen dira. "Mintzairan ahoskatze arazo horiek lau urtetik aurrera jarraitzen badute, haurrak logopeda batengana jo beharko du, honek balorazio bat egin eta haurrak dislaliak dituen ala ez baloratzeko", aholkatzen du adituak.

Hiru dislalia mota

Dislalia funtzionala, organikoa edo audiogenoa izan daiteke. Ohikoena eta ezagunena dislalia funtzionala da. Haurrak ez du inongo arazo fisikorik, baina zenbait organo —mihia, ezpainak...— ez ditu leku egokian kokatzen, eta horrek zenbait letraren deformazioa eragiten du. "Ezagunenak *rr* gaizki esatea; *s* letra *z* bihurtzea; *k* letra *t* letragatik ordezkatzea; edo *r* letra *d* letra bihurtzea...", azaltzen du Eginok.

Dislalia organikoa mintzamen organoetan arazo bat dagoenean gertatzen da —ahosabaian, ezpainetan, mihian, neuronetan, sistema nerbioso zentralean...—. Arazoa duten organoak lantzeko gomendioa da logopedarengana joatea.

Dislalia audiogenoa entzumen organoekin lotuta dago; haurrak ez du ondo entzuten. Kasu batzuetan haurrak protesia beharko du eta hori otorrinolaringologoak baloratu behar du. "Ondoren logopedak lagunduko digu letren arteko diskriminazioa lantzen eta artikulazioa hobetzen".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Ikuskizuna inoiz ezin da geratu

- Elgoibarko Taupada taldeak barreak eta txaloak eragin zituen Bergarako Zabalotegin
- 'Rusini' lanean bi bergararrek parte hartzen dute: Jon Olivaresek eta Ana Moñuxek

FITXA

ANTZERKIA

TAUPADA ANTZERKI TALDEAREN 'RUSINI' ANTZEZLANA

Generoa: Tragikomedia.

Non: Bergarako Zabalotegi Aretoa.

Eguna: Egubakoitza, azaroak 30.

Iraupena: Ordu eta erdi

Ikusleak: Aretoaren hiru laurdenak.

Goliat, Flofli –Jon Olivares osintxuarra– eta Bioleta *Rusini* antzezlaneko momentu batean. | JOSETXO ARANTZABAL

ANDER MONEDERO | BERGARA

Zirkua ikuskizun berezia da; urtean behin herrira etortzen da eta bertan, gutxitan ikusi daitezkeen animalien erakustaldiak (lehoiak, elefanteak...), akrobaziak, alaitasuna eta harridura dira bere ezaugarri nagusiak. Egubakoitz gauean Elgoibarreko Taupada antzerki taldeak zirkuaren alde iluna eta ogibide horren miseriak erakutsi zituen Bergarako Zabalotegi aretoan. Umetan hain miretsitako bala-gizona, trapezista, pailazoa edo animalien hezlearen miseriak erakusten ditu *Rusini* antzezlanak.

Taldea Elgoibarkoa izan arren, bi bergararrek hartzen dute parte ikuskizunean. Jon Olivares osintxuarrak, gainera, paper garrantzitsua du, bera da-eta protagonista nagusia: Flofli pailazoa.

Ana Moñux da antzezlanean parte hartzen duen beste bergararra. Hitz batzuk egin bai, baina batez ere, klarinetea jotzea da bere zeregina.

Flofli lan bila dabil

Egoera ekonomiko larrian eta publiko gabeko zirku batean lanik gabe zegoen Flofli izeneko pailazoa lan eske agertzen denean hasten da antzezlana. Zirkuko zuzendariak Rusini zirkua pailazorik gabeko zirkua dela esan zion, zirku serioa dela nabarmendu eta barreak zirku horretan lekurik ez zuela esan zion. Floflliren ikuskizunak bere burua zuzenean urkatzean datza eta, grazia handirik ez duenez, zirkuan lekua duela uste du Floflik berak. Nahiz eta zuzendariak joateko esan, Floflik bertan geratu eta zirkuaren jabearen alaba, Bioleta akrobata itsua ezagutzen du. Bien artean zerbait sortu eta zuzendari aukera bat emateko eskatzen diote.

Flofli, pixkanaka, zirkuko elementu guztiak eta euren bertute eta, batez ere, miseriak ezagutzen joaten da. Tartean, Goliat gizon indartsua eta Bioletaren mutil laguna ezagutzen du eta berarekin lehenengo liskarra izaten du. Baina dena ez da miseria eta Kasimiro bala-gizon maitagarria, Andrea malabarista eta Tonisko domadorea ezagutzen ditu eta zirkuko langileen artean integratzea lortzen du.

Egoerak okerrera egin zuen

Halako baten, egoerak txarrera egiten du ogasuneko agenteak zirkuak dituen zorrak kitatzeko azaltzen direnean. Baina momentu horretan, pertsonaia guztiak elkartu eta zirkua defendatzea lortzen dute. Poztasun horrek ez du asko iraungo eta ogasuneko langileak zirkuaren ondasunekin zorra kobratzen hasten dira. Orduan Goliatek zorrak kentzeko, herentzia batean jasotako lurrak eskaintzen ditu, hori bai, baldintza batekin: Bioletarekin ezkontzea. Bioletak baina, ez du presioa jasango eta istripua izaten du. Istripuaren ondorioz, ospitalera eramaten dute eta ikusmena berreskuratzen du.

Bioletak, ikusmena berreskuratuta, errealitatea ikusi eta alde egitea erabakitzen du eta ogasunak zirkua desegin egingo du. Goliat, Flofli eta Kasimiro ezer gabe geratu eta Queen taldeak esan zuen moduan, *Show must go on*, ikuskizunak jarraitu egin behar du, eta zirku berria prestatzen hasten dira.

ANA MOÑUX | ANTZEZLEA

"Gustura bukatu dut emanaldia"

Ana Moñux bergararrarentzat eszenatoki baten antzezten zuen lehenengo aldia izan zen egubakoitzekoa.

Zer moduz joan da antzezpena?

Ondo, nire lehenengo aldia izan denez apur bat urduri egon naiz, baina gustura bukatu dut.

Oholtza gainera igotzen zaren lehenengo aldia da.

Ni sartu aurretik antzerki taldeak aurretik landua zuen antzezlana denez antzezpen txikia egin dut.

Antzeztu ez ezik klarinetea ere jo egin duzu.

Nahiz eta nota bakar batzuk izan urduri xamar egon naiz, baina jo beharrekoa ondo jo dut.

Gainera herriko publikoak erantzun egin du.

Egia esan oholtza gainetik ez zen aretoa zenbat ikusle zeuden ikusten, baina jende dezente zegoela iruditu zait. Gainera, bukaeran, txalo piloan entzun egin dira.

Errepikatu egingo duzu?

Bai, ez du zalantzarik.

JON OLIVARES | ANTZEZLEA

"Berriz ere igotzeko desiratzen nago"

Hiru urte darama Jon Olivares osintxuarrak Elgoibarreko Taupada antzerki taldean eta bertan egiten duen hirugarren obra da *Rusini*.

Egindako lanarekin gustura geratu zara?

Sentsazio onak izan ditut, baina hobeto irten daitekeela uste dut. Egia esan, ni oso zorrotza naiz eta lan hobeagoa egin daitekeela uste dut.

Zer moduz Bergarako publikoa?

Ondo, publiko zaila da, txalo egitea kostatzen zaio, baina antzezlanak erantzun ona izan duela uste dut. Lagunekin egoteko astirik ez dut izan, baina jende asko etorri dela uste dut.

Istorioko protagonista zara.

Antzezlana irakurtzen hasi ginenean bakoitzari hobeto zetorkion rola erabakitzen hasi ginen eta horrela suertatu da. Lan asko egin behar izan dut, baina orokorrean dena ondo irten da. Berriz ere igotzeko desiratzen nago.

Zapatuko kanporaketan parte hartu zuten sei bertsolariak agurra abesteko gertu. | MONIKA BELASTEGI

Erabakita ze sei bertsolarik jokatuko duten Oñatiko finala

- Zapatuan egin zuten VI. Bertsolari Txapelketako 2. kanporaketa
- Finala abenduaren 15ean jokatuko dute, 18:00etan, Gaztelekuan

MONIKA BELASTEGI | OÑATI

Dagoeneko badakigu zeintzuk izango diren Oñatiko VI. Bertsolari Txapelketako finala jokatuko duten sei bertsolariak. Joseba Lasagabaster, Josu Igartua, Andoni Goitia, Maider Arregi, Iñaki Olalde eta Joseba Igartua dira nor baino nor arituko direnak abenduaren 15ean, Gaztelekuan, 18:00etan izango den finalean.

Ikusmin handia

Zapatu iluntzean jokatu zen 2. kanporaketa Arranon –lehena gaztetxean jokatu zen azaroaren 24an– . Ikusmin handia zegoen. Saioa elkartean izan zen, baina tabernako telebistan ere jarraitzeko aukera izan zuten bertaratu ziren 120 bat lagunek.

Joseba Lasagabaster, Andoni Goitia, Iñaki Igartua, Iñaki Olalde, Beñat Alberdi eta Jon Irizar igo ziren oholtza gainera, eta Oneka Anduaga aritu zen gaijartzaile.

Agurretan denetarik entzuteko aukera izan zen; finaleko txartel bila batzuk, saioan gozatzera beste batzuk.

Ariketa puntuagarrietan lehenengoa, zortziko nagusikoa izan zen eta hor Joseba Lasagabasterrek eta Andoni Goitiak osatu zuten lanik borobilena. Ondoren, zortziko txikiko moldean kantatu behar izan zutenean, Iñaki Olalderen eta Beñat Alberdiren lanak altxatu zuen umore puntua. Lau oinak emandako ariketan, berriz, Andoni Goitiaren, Iñaki Olalderen eta Iñaki Igartuaren bertsoek jaso zuten publikoaren txalo gehien.

SAILKAPENA

	PUNTUAK
Joseba Lasagabaster	194
Josu Igartua	188
Andoni Goitia	188
Maider Arregi	185,5
Iñaki Olalde	184
Joseba Igartua	183
Urko Egaña	181,5
Gorka Larrea	181
Egoitz Aizpuru	177,5
Beñat Alberdi	171
Jon Irizar	159
Iñaki Igartua	157,5

*Lehenego seirak dira finala jokatuko dutenak

Kartzelakoan, borobilenak

Kartzelako lanean puntu bati erantzun eta gai bati bertso bat osatzea zen egin beharreko lana. Puntuen erantzunetan aipagarri, Jon Irizar eta Joseba Lasagabasterren bertsoak *Gelditu izan ahal/bazendu denbora* puntuari erantzunez. Gaiari bota beharreko bertso bakarrean berriz, Joseba Lasagabasterrek eta Andoni Goitiak kantatu zituzten kartzelako laneko, eta beharbada saio guztiko, bertsorik borobilenak.

Azken agurrek denbora eman zieten epaimahaikoei batuketak egiteko eta batuketa horren emaitzak argi utzi zuen saioko puntuazio altuena lortu zuen bertsolaria eta ondorioz finalerako txartel zuzena eskuratzen zuena Joseba Lasagabaster izango zela.

Aktoreen lanak eszenatokia erabat betetzen duenean

M.B. | ARRASATE

Ali Baba eta 40 lapurrak ipuin klasikoarekin gozatzeko aukera izan zuten zapatu arratsaldean Arrasateko Amaia antzokira bertaratu zirenek. Eta ez ziren gutxi izan gainera, seme-alabekin batera antzezlana ikustera animatu zirenak.

Hiru aktore eszenatokian, euren talentua baino apaingarri gehiagorik gabe: Anartz Zuazua, Asier Sota eta Julen Vega aktorean, hain zuzen ere, eurek osatzen dute-eta Borobil antzerki taldea.

Eszenaratze bitxiarekin eta alfonbra bat apaingarri bakar gisa, *Ali Baba eta 40 lapurrak* klasikoaren bertsio bizia egin zuten eta berehala harrapatu zituzten ikusleak, ume zein nagusiak. Izan ere, adin guztietarako obra da Borobil taldekoek Arrasatera ekarri zutena.

Hiru aktore, 40 pertsonaia

Aktore lana da obrako elementurik garrantzitsuena eta berrogei pertsonaia ageri dira, nahiz eta taula gainean hiru aktore bakarrik egon.

Hiru aktoreon interpretazioarekin batera, argiztapenak, musikak eta efektu ezberdinek eszenetan sartzen lagundu zieten ikusleei. Zenbait momentutan ikusleen barreak ere entzun ziren.

Ali Baba eta 40 lapurrak antzezlanaren une bat. | MONIKA BELASTEGI

JOSETXO ARANTZABAL

EPAITEGIA Abokatuak, fiskalak, epaileak eta herritarrek, —bergararrak eta arrasatearrak—, Bergarako epaitegia bisitatu gura izan zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

KARTZELA ZAHARRA XVIII. mendeko kartzela zaharrera ere gerturatu ziren. Izan ere, garai batean, epaia aldeko ez zutenek bertan amaitzen zuten atxilotuta.

JOSETXO ARANTZABAL

GOENKALEKO ERAIKINA XIV-XV. mendekoa da Goenkalen aurkitzen den eraikinaren ataria. Bergarako etxe ederretako bat zalantza gabe. Bertan jaio zen gainera Koldo Eleizalde.

JOSETXO ARANTZABAL

UDALETXEAN PLAKA Epaileak, abokatuak eta fiskalak arrazoia Bergarari ematen dion baieztapen-plaka jarri zuten herritar guztien bistara.

Iazko Toberaren epaia bete da: jarri dute lehen garbigailua Bergaran egin dela dioen plaka

Aurten bigarrenez egingo den Toberan, Debagoieneko gainerako herriek Oñati epaituko dute bere inkomunikazioa interesatua dela egotzita; hilaren 28an izango da, Oñatiko kiroldegian

MAIDER ARREGI | BERGARA

Domeka eguerdian, Bergaran lehen garbigailua egin zela baieztatzen duen plaka jarri zuten. Kasua itxita, orain Oñatiko herriari pasa diote testigua. Hala, bigarren Tobera, Oñatin egingo da eta Debagoienak, Oñati epaituko du Oñatiren inkomunikazioa interesatua dela egotzita. Errugabea edo erruduna ote Oñati? Erantzuna, Inuzente egunean, abenduaren 28an, Oñatiko kiroldegian jakingo da.

Bisita gidatua egin zuten

Arrasatearrek, Bergara sakonago ezagutzeko aukera izan zuten atzo. Joxe Mari Larrañagarekin bisita gidatu berezia egin zuten Bergarako *etxe ederrak* kontenplatzeko. Arrasatearrak eta bergararrak, tonu umoretsuan ikusi genituen, Bergarako erdigunearen historia ezagutzeko gogotsu. Toberako fiskala, abokatua eta epaile nagusia, bertan izan ziren jarraipena egiten. "Etorri gara ospatzera arrasatearrek onartu dutela lehen garbigailua Bergaran egin zela. Bestalde, kultura garrantzitsua da, eta, bide batez, Bergara ezagutzeko aukera ere izan dute", esan zuen Larrañagak.

Entseatzen hasita daude

Oñatin egingo duten bigarren Toberarako entseguak hasi dituzte. Dagoeneko 25 lagun inguruk parte hartuko dute. Datozen egunotan lanari forma eman eta gidoiari azken ukituak emango dizkiote.

ESANAK

"Epaia Bergararren aldekoa dela onartu dute"

JOXE MARI LARRAÑAGA
TOBERAKO KIDEA

Lehen garbigailuaren plaka jarri dute

Ikerketa zientifikoek kontrakoa esaten ez duten bitartean, Debagoieneko lehen garbigailua ~~Arrasaten~~ Bergarako herrian egin zen, dio Herriko plazan jarri duten plakak, eta epaiak.

Arrasate eta Bergararen arteko Tobera beraz, argituta geratzen da honenbestez.

Larrañaga, plakarekin eskuan. | J.A

Ganbarak Neguko kontzertu arrakastatsua eskaini du

M.A. | OÑATI

Santa Ana aretoa bete egin zen, Ganbara abesbatzaren Neguko eta Santa Zezilia eguneko emanaldiaz gozatzeko. Zapatu iluntzeko kontzertua berezia izan zen. Izan ere, Ganbara osatzen duten abesbatza denak ikusi genituen eta eszenatokian: Tailerra, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte. Guztiek oinarri *West Side Story* arrakastatsua. Bertako kanta eta doinuek aretoa abesten jarri zuten.

Hasiera Ganbara Gazteko abeslariek eman zioten emanaldiari eta *West Side Story* filmeko irudiak lagun zituztela, aretoan *I feel Pretty*, *Maria*, *One hand, one heart*, *Somewhere* edota *America* ezaguna entzuteko aukera izan zen. Guztiak L. Bernstein egilearenak. Pianoan Eli Mendiaraz aritu zen eta zuzendari lanetan aldiz, Aitor Biain.

Txaloak txikitxoenei

Txalo zaparra handiak Tailerrean diharduten 3 urteko txikiak abesten hasterakoan entzun genituen. Ingelesez ere hausartu ziren gainera *Walk and stop* kantarekin. Ondoren etorri zen Ganbara Txikitxoen txanda. Eskuan loretxo bana zutela udazken arratsalde hotzari, kolorea jarriz.

Ganbara Txikitxoak *Edelweis* kantua interpretatzen. | MAIDER ARREGI

Jatetxe Gida

Dragon Oriental

Fraiskozuri 7
BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.

Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea
ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita

Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35.
BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(e-guardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.

Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean)
ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.

Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12
ARRASATE
943 79 12 50
943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

GURE MUSIKA TALDEAK

NEVER SURRENDER

Never Surrender disko berriaren promoziorako argazkian: Andoni Iñurritegi *Pottoko*, Mikel Arriaran *Arri*, Asier Uribetxeberria *Atxi* eta Ander Durañona *Dura*. | JOKIN URIBETXEBERRIA

"Ez dugu gizarte eredu honek jartzen dituen urrezko dominarik nahi"

- Sorkuntzarako urtebete geldi egon ostean, bueltan da laukote arrasatearra
- Azaroaren 29a ezkero salgai dago disko berria; Durangoko Azokan egongo dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Lehen kontzertutik hamar urte bete berri eta urtebete inguru agertokietatik kanpo egon ostean, bueltan da Never Surrender. Euskaraz egindako hamar kantu berrirekin datoz. Diskoaz, iraganaz eta etorkizunaz egin dugu berba laukotearekin, gaztetxeko euren lokal kutunean.

Zeintzuk dira, bada, bide zuzenetik oker doazen horiek?

Badirudi uneoro perfekzioaren eta arrakastaren bila ari garela. Beti ari gara kanpotik datozkigun eskemen araberako helmugak markatzen, gure ilusioei kasu egin beharrean. Errealitate horri erantzun bat da *Latorrizko dominak* kantua. Esan gura duguna da norberak bere buruari jarritako latorrizko dominak direla baliotsuak, guk ez dugu gizarte eredu honek jartzen dituen urrezko dominarik nahi. Kanon horietan, askotan galtzailetzat jotzen zaio arrakasta lortzen ez duenari eta, horregatik, metafora moduan, jarri diogu abestiari *Latorrizko dominak* izenburua.

Nolakoa da disko berria?

Musika estiloari dagokionez ez dago aldaketa handirik. Hori bai, aurrekoa baino zuzenagoa da, kantuak motzagoak eta landuagoak dira. Erritmo biziagoak eta azkarragoak, baina orokorrean, aurrekoaren ildotik doa: azken diskoa gustatu zaionari berria ere gustatuko zaio.

Eta hitzak? Mezua aldatu al da?

Mezua berez ez da aldatu. Hamar kantu berri dira, beste gai batzuk landu daitezke edo gai horiek lantzeko ikuspuntua beste bat izan. Aurreko diskoa pertsonalagoa zen, disko berriak gizarte eredu honen kontrako kritika gehiago du. Pribilegio bat dugu esku artean, musika. Aukera dugu hamar abestiren bidez hamar ideia jendeari helarazteko, eta hori aprobetxatzen dugu hitzetan.

Musika Haritz Harreguyrekin grabatu eta nahastu. Ahotsak, berriz, lokalean grabatu dituzue. Zergatik?

Ni [*Pottoko*] erosoago sentitzen naiz lokalean; denbora mugarik gabe eta gustura geratu arte behin eta berriz errepikatzeko aukera izan dugu. Estudio baten presiopean zaude, ordu zehatz batzuk dituzu eta oso garesti irteten da. Finean, norbera naturalen sentitzen den ingurunea bilatu gura izan dugu. Musika Haritz Harreguyrekin grabatzea interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen, musikalki bilakaera bat topatu guran. Ahotsak, berriz, gure habitat naturalean grabatu gura izan dugu; sei egun egin genuen lokaletik apenas irten barik gustuko emaitza lortu arte.

2002ko azaroaren 8an eman zenuten lehen kontzertua. Hamar urte batera, formazio aldaketa barik; zuen estiloan Arrasaten ez dago halako talderik. Zein da sekretua?

Hasteko, betiko lagunak garela. Orain, berriz, musikak batzen gaitu. Izan ere, taldeaz aparte oso gutxitan egoten gara. Atzeraelikadura edo *feedback* bat da gurea: taldeak adiskidetasuna elikatzen du eta adiskidetasuna da, finean, batuta mantentzen gaituena. Never Surrender-ek iraungo du jarraitzeko arrazoiak uzteko arrazoiek baino pisu gehiago izaten segitzen dutenera arte.

Musikalki baloratzearen gainetik, zure bizitzako hamar urte hau egiten egoteak pentsarazi egiten du: zergatik daramat hamar urte honetan sartuta?

Punk-oi! eszenan beteranoak zarenetik ezin ukatu dagoeneko. Nola ikusten dituzue belaunaldi berriak?

Talde asko daude baino gutxiago irauten dute. Era berean, errealitate bat da kontzertuetan gero eta jende gutxiago mugitzen dela. Taldeak badaude, talde onak, baina kaleko mugimendua jaitsi egin da.

Bestalde, belaunaldi aldaketa egon dadin, kasu egin behar zaie talde hasiberriei eta akaso hori da egiten ez dena.

Amaitzeko, bitxikeriarako tartea: duela oso gutxi Anoetan zuen kantu bat entzun zuten 20.000 pertsona baino gehiagok. Zergatik?

Oso sinplea da. *Gontxa* [Mikel Gonzalez] gure koadrilakoa da eta azken diskoko kantu bat aukeratu zuen gola sartzen zuenerako. Eta hara, gola egin zuen.

ZERTZELADA

BIDE ZUZENETIK OKER

Estiloa: Punk, oi! eta rocka.

Egilea: Never Surrender.

Argitaletxea: Mauka musikagintza.

Iraupena: 25 minutu eta 14 segundo.

Punk-Oi!-ari onena ateratzen jakin dute

Never Surrenderrek jarraitzaile anitzak ditu Arrasaten, hitzei eta duten jarrerari esker Oi!-aren muga hertsia gainditua dutelako. Baina zale horiek taldea punk-Oi!etik harago joatea nahi dute eta hori orain ez da posible. Izan ere, estilo horiek batuta orain arteko kantu borobilenak egin dituzte. Azeleragailua zapaldu, ahotsa garraztu eta zenbait kantu azkar eta amorratuak grabatu dituzte. Tartean, Clashen zale sutsuak direla gogorarazi digute 'Revolution Rock' omenezko bertsioan eta baita 'Amur erdoildua' eta 'Latorrizko dominak' kantuetan. Bestela, 77ko Ingalaterrako punka oso presente dago, baita Vomitoren trazako punk ilun-jostaria ere. Gu ere irekiak izan gaitezen!

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Almeria. 80m2-ko etxebizitza salgai. 2 logela handi, komun bat, balkoi bat, sukaldea eskegitokiarekin. Igerilekua eta hondartzatik 50 metrotara. Guztiz jantzi barik eta estreinatu barik. Oso argitsua. Prezioa 110.000 euro. 608-19 73 17.

Aretxabaleta. 61 m2ko etxebizitza salgai. Bi logela egongela zabala, sukaldea eta komuna. 2006an egina. Kiroldegitik gertu. Bizitzera sartzeko gertu. 115.000 euro. 629-42 01 10.

Arrasate. Krisira egokituriko prezioa. Etxe eraberritua salgai. Altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 650 -01 05 15.

Arrasate. Zarugalden. Bi logela eder, egongela zabala, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabala, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, idatzi zarugalde26@yahoo.es helbidera informazio edo argazki eske, edo deitu telefono zenbaki honetara: 660-20 58 92.

Arrasate. Juan carlos Guerra kalean etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Larrañaga optika gainean. 90 m2. Prezio oso onean. Hiru logela, egongela eta komun batekin. Bi balkoi ditu etxeak. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. 616-50 67 28, 665 -72 46 12.

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera oso ona. 114.000 euro. 618-44 38 44.

Bergara. Bergarako erdialdean apartamentu berria salgai. Lursail txiki bat dauka. 695-70 11 72.

Berriz. Olakueta auzoan, etxe argitsua eta bista ederrekin. 3 logela haundi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldea. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Garraio publikoetatik minutu batera. Harremanetarako: 685 -72 46 90. 675-71 23 69.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647-77 73 92.

Durango. 86 m2-ko etxebizitza salgai, Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, ganbara eta garajea. Solairua: 5. Prezioa: 270.000 euro. Tel: 688-64 26 43 (Jaione).

Durango. Askatasun etorbidean pisua salgai. Dena hegoaldera, oso eguzkitsua egun osoan, 83m2 erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajeraino, oso ondo zaindua eta modernoa. 652-75 54 46.

Elorrio. Elorrio erdigunean estreinatu gabeko etxea salgai. 77m2, 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariekin. Prezioa, 230.000 €. 634-45 72 01.

Eskoriatza. Apartamentu eroso eta eguzkitsua salgai. Prezio negoziagarria. Aukera paregabea. Deitu telefono hauetara: 653-71 53 58, 637-42 70 12.

Etxarri-Aranatz. Puttobioki kalean, Etxarri Aranatzen. Prezioa 72.000 euro. Hots egin 618- 50 89 48 telefonora.

Garai. Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m2-ko lursaila. Garaiko San Migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jatetxeak(2) eta bus geltokitik 150 metrotara. Durangotik 10 minutura. Ap-8 autopistatik 5 minutara. 639-83 34 89 jo.amantegi@gmail.com.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 66.000 euro. 685-72 80 42.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. 695-77 31 41.

Oñati. 68 m2ko etxebizitza salgai erdigunean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 237.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Egoera oso onean. Iñigo. 659-72 06 64.

Oñati. Lau logelako etxebizitza salgai arantzazu kalean. Bi komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. Jantzita. Igogailua eta berokuntza indibiduala. Oso eguzkitsua. Prezio interesgarria. Ez du berritu beharrik. 635-06 24 79.

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai. Trastelekua eta igogailuarekin. 675-71 72 83.

Zigoitia. Etxeak 12 urte ditu eta oso egoera onean dago. Sukaldea (13m2) eta bi komunak guztiz ekipatuta, hiru logela, tximiniadun txokoa, beirateduna terraza(28m2) eta egongela(30m2) ditu. Hegoalderantz orientatuta dagoenez, oso eguzkitsua da. Partzelak 850m2 ditu. Garajean bi kotxe sartzen dira. Interesatuek 693-24 37 12 telefono zenbakira deitu dezakete edota maricarmen.vitoriagasteiz@gmail.com helbidera idatzi.

103. ERRENTAN EMAN

Altsasu. Sukaldea, jangela, komuna bat, igogailua, garaje plaza eta trastelekua. 948- 18 53 75 eta 607- 91 33 28.

Aretxabaleta. 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 680 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: www. euskalnet. net/aguirre. 630-60 47 75.

Arrasate. Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukaldeegongela. Trastelekua. Pertsona batentzat edo bikoteentzat apartekoa. 639-17 49 52.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. 606-86 71 97.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzo auzoan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua, balkoia. Ganbara jabearekin partekatua. 550 euro. 653-70 22 55.

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det donostian, antiguo auzoan bertan. Persona bat edo bintzako egokitua, bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609-48 11 24.

Durango. Durangoko erdigunean logela biko etxea alokagai. Guztiz berritua. Deitu 695-78 75 35 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Elorrio. Elorrion pisu bat alokagai. 3 logela, altzariz jantzia. Bizitzeko prest. Prezioa 500 euro. Deitu 94-658 20 18 telefonora.

Elorrio. Apartamentua alokagai herrigunean: logela bat, sukaldea-egongela eta bainugela ditu. Altzariekin, berogailua-gasa. 94-682 04 38 (gauez).

Eskoriatza. 50 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Intxaurtxuetan. 450 euro hilean. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. Garajea izateko aukera. Deitu 688 66 71 56 zenbakira

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berriztua, jantzi barik, 2 logela. 660-45 87 56.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada erdialdean edo gertu. Hiru logelakoa. 679-60 08 48.

Arrasate. Etxebizitza txiki edo apartamentu baten bila nabil errentan hartzeko. Deitu 653-72 43 19 telefonora.

Arrasate. Bikote euskalduna eta arduratsua. Arrasaten pisu txiki baten bila gabiltza. Urtarrilean sartzeko. Deitu 636-38 81 00 telefonora.

Bergara. 2 edo 3 logelako etxebizitza alokairuan hartu nahi dut. Deitu 600-29 05 24 telefonora.

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Prezio onean. Deitu 671-84 71 71 telefonora.

Elorrio. Pisu baten bila nabil alokatzeko, 3 logelarekin eta altzariekin. 94-658 21 91.

Oñati. Etxebizitza behar dugu errentan emakume eta ume batentzat. Hilean 500-550 euro ordaindu ahal izango nuke. Deitu 628 08 85 98 telefono zenbakria

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Bidekurutzeta 60 m², 2 logela. Erabat berriztua. Igogailuarekin. 154.761€.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€. PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Masterreka 45 m2. Logela bat. 150.253€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 180.000€.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212€. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Erdialdean gela ematen da errentan. 225 euro, gastuak barne. Hobeko emakumea bada. 943 77 13 02

Arrasate. 250 euroan Erguinen logela ematen da errentan. Gastuak erdibana. Deitu 610-62 65 04 telefonora.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdiguenean. Iñaki. 608 49 89 93

Arrasaten. Logela handi bat emango nuke errentan, Arrasateko erdialdean. 629 80 77 73

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Wifiarekin. 670-85 86 68.

Berriz. Gela bat alokatzen da Berrizen. 662-92 69 11.

Durango. Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza Eskola aurrean dago pisua, alde zaharretik oso gertu, eta Tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! 679 -62 04 47.

Durango. Durangon logela bat alokatzen dut. Madalenoste kalean, autobus geltokiaren ondoan. 650-73 87 24.

Durango. Bi pertsona hirugarren baten bila tabiran behe pisu bat konpartitzeko. 3 logela, 2 komun. Deitu 637-29 24 65 telefono zenbakira

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Unibertsitate inguruan. 651-55 36 29.

Mutriku. Logela bat alokatzen da. Etxe eguzkitsua eta lasaia. Itxasoari eta mendiari begira. 649-51 88 15.

2. GARAJEAK

201. SALGAI

Durango. Durangon Fray Juan de Zumarraga kalean (Euskaltel dendaren azpian), garaje/trastero itxia salgai. Deitu 629-41 43 63 telefonora.

Durango. Fray Juan de Zumarraga kalean, 8m2-ko trasteroa alokatu edo saltzen da. Deitu 629-41 94 11 telefonora.

Durango. Durangon partzela bat salgai, Antso Estegiz kalean. Motorretarako eta atoietarako. Deitu 666-33 35 72 telefono zenbakria.

Otxandio. Bi garaje salgai, bat itxia. Otxandion. Deitu 675-71 72 83 telefonora.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan. Maniobra egin barik sartzeko modukoa. 679-74 00 61.

Durango. Garajea alokagai. Askatasun etorbidea, 35. 50euroan. Deitu 675-71 95 54 telefono zenbakira

Durango. Durango erdigunean, Ezkurdi inguruan kokatuta dagoen garajea errentan. Tel: 629-24 07 23.

Durango. Garaje itxia errentan Durangon, erdigunean kokatua. 629-24 07 23.

Durango. Muruetatorre auzoan garajea alokatzen dugu 60 euroan. 679-31 00 83.

Elorrio. Garajea alokatzen dugu Elorrion. Kiroldegiko lehen solairuan. 40 euro hilean. 94-623 14 02.

3. LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE
Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

Durango. 25 m2-ko eraikuntza berriko lonja, Durangon. Bulego baterako edo komertziorako aproposa. Zonalde komertzial onean kokatua. Gutxienez bilogeladituen etxebizitza batengatik aldatzen dut. Deitu 688-81 85 92 telefono zenbakira.

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonei moldatua. Hiri erdigunekiko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800 euro/hil. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana) Posta elektronikoa: ana.vitoria.gasteiz@ gmail.com

303. ERRENTAN EMAN

Durango. 65 m2-ko lokal komertzial egokitua. Eraikuntza berria. Madalena zonaldean. Deitu 609-15 92 45 edo 655 -24 03 27 zenbakietara.

Elorrio. 170m ko lokal zoragarria Elorrio erdian alokatzeko prest, 4 eskaparate haundiak, autobus geltokiaren ondoan edozein negozio ipintzeko prest primerako baldintzekin. 606-39 00 09

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. 54 urteko emakumea gertu lanerako. Deitu 943 79 60 89 telefono zenbakira.

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. Baita umeak zaintzeko ere. 699 54 17 27,

Arrasate. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, bai etxean bertan bizitzeko edo orduka, baita garbitasun lanak egiteko ere. 682 31 97 37,

Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta. Neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. Gidatzeko baimena eta autoa. 697 20 00 86,

Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta. Neska boliviarra gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Egunez, gauez zein asteburuetan. Paperak eguneratuta dauzkat eta esperientziaduna naiz. 618 14 71 34,

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32,

Bergara. Esperientziadun emakumea lanerako prest. 617 12 61 44,

Bergara. Ikaslea naiz eta 15:30etik aurrera umeak zainduko nituzke. 669 17 22 56,

Bergara. Neska tituluduna gertu nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. 680 77 06 46,

Bergara. Umeak zainduko nituzke. 22 urteko neska euskalduna naiz eta umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 68173361,

Debagoiena. Daniela naiz eta pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Egunez eta gauez lan egingo nuke. 698 79 33 87,

Debagoiena. Emakume gaztea eta lana egiteko behar handiarekin, gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. 616 62 85 91,

Debagoiena. Emakumea gertu atari eta abarren garbitasunak egiteko. Baita jatetxetan platerak garbitzeko ere. Deitu 677 63 20 65 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu etxe, lokal, taberna eta abarrak garbitzeko, orduka. Deitu 696 88 93 73 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Nagusiak zaintzen eskarmentuduna. 688 69 07 28,

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin, plantxa zein plater eta abarrak garbitzeko. Baita atari garbiketak egiteko ere. 686 40 42 03,

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, garbiketa lanak, etxean bertan nagusiak zaintzen... Fatna. 638 26 98 40,

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 76 52 39,

Debagoiena. Emakumea prest orduka edozein motatako lanak egiteko. 600 29 05 24,

Debagoiena. Esperientizadun neska edozein motatako lanak egiteko prest. 639 08 86 33,

Debagoiena. Gaztea lanerako gertu: peoi lanak, gidari… 651 55 36 29,

Debagoiena. Igeltsari, margoketa zein arotz lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. Javid. 632 20 19 41,

Debagoiena. Lan bila nabil: garbiketak, banaketak, edo beste edozein lan. Deitu 679 60 08 48 telefonora.

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak edo beste edozein lan. 633 28 81 24,

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientzia eta erreferentziaduna, nagusiak zaintzeko gertu. 633 28 81 24,

Debagoiena. Mutil euskalduna, erizaintza tekniko osagarritako tituluduna eta esperientziaduna, etxetan nahiz baserrietan dauden nagusiak zaintzeko edo paseoan ateratzeko gertu. German. 619 08 40 08,

Debagoiena. Mutil gaztea lan egiteko gertu: tabernak eta elkarteak garbitzen edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanetan aritzeko eta elikagaiak maneiatzeko ziurtagiria. 622 77 60 75,

Debagoiena. Mutil gaztea, arduratsua, lanerako gertu. Nagusiak eta ospitalean gaixoak zaintzen edo garbitasun lanetan arituko nintzateke. Etxean bizi izaten edo bestela. Wilber. 618 85 12 85,

Debagoiena. Mutila gertu haratagian lan egiteko. Baita sukaldari edo zerbitzari jardureko ere. Nagusiak zaintzen ere arituko nintzateke. Deitu 647 15 18 23 telefonora.

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko, nagusiak zaintzen, garbiketa lanak. Arduratsua eta esperientziaduna. Intiaz. 632 18 53 17,

Debagoiena. Mutila gertu lanerako: haratagi laguntzaile eta sukaldean lagundu edo garbiketak egiten. Deitu 610 91 33 40 telefonora.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko. Geriatrian espezializatua. Arduratsua eta berehala hasteko moduan. 634 75 52 61,

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientzia duena lan bila dabil. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. Deitu 632 09 72 93 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Orduka lan egiteko gertu eta pertsona nagusiak pasioan ateratzeko. Deitu 695 73 87 95 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan zaintzeko edo pasioan ateratzeko. Deitu 626 35 66 90 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu ume edo nagusiak zaitzen zein garbitasun lanetan jardureko. Etxean bizi izaten zein bestela. Deitu 632 09 72 93 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, etxean bertan bizi izaten zein bestela. Esperientzia eta erreferentziaduna. Deitu 617 64 08 48 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, sukaldeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izateko ere bai. Deitu 722 26 59 40 telefonora.

Debagoiena. Neska euskalduna etxeak garbitzeko, ospitaletan gauak egiteko edo umeak zaintzeko gertu. Kotxea daukat. Disponibilitate osoa, esperientzia eta informeak. Deitu 671 35 22 60 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu etxean laguntzeko, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan jarduteko. Dendari ere bai. 630 20 12 03,

Debagoiena. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko ere bai. Etxean bertan bizi izateko gertu nago, asteburuak barne, edo orduka lan egiteko ere. Erreferentziak ditut. 636 41 98 14,

Debagoiena. Neska gertu lanerako: nagusiak zaintzen, etxeko lanak egin, garbiketak, sukalde zein tabernatan. 610 99 70 46,

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96, 688 80 27 01

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 943 25 05 72, 658 70 56 94

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita garbiketa lanak egiten ere, atari eta abarretan. Erreferentziak ditut. 636 41 98 14,

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita garbitasun lanetarako ere. 672 70 71 25,

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. 679 30 65 28,

Debagoiena. Prest edozein lan egiteko 13:00etatik aurrera: gaixoak edo adineko pertsonak zaintzen zein atari edo elkarteak garbitzen. Tel. 632 88 27 92,

Debagoiena. Sukaldean laguntzaile lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Gidatzeko karneta daukat. 663 46 93 60

Durango. Emakume euskalduna eta esperientziaduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. 699-74 57 23.

Durango. Haurrak zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. Haur txikiekin esperientzia daukat. Kotxe propioa eta durangaldeko herrietan mugitzeko aukera daukat. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu lasai 628-61 40 34 zenbakira. Ainhoa.

Durango. Garbiketan, ume zein pertsona nagusien zaintzan edo ostalaritzan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Egunez. 600-05 51 17.

Durango. Durangon, nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. Gauez zein egunez aritzeko prest. 678 -23 02 66.

Durangaldea. Pertsona arduratsua lan bila, pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan, lorezaintzan, baserrietan ere aritzeko prest. 622-47 39 41 // 632 -37 28 87.

Durangaldea. Asteburuetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen mutil gaztea. Janaria egin, garbiketa, paseoak emateko... 22 urte ditut eta arreta soziosanitario aikasten ari naiz. Interesatuek, deitu 622 -93 72 86 zenbakira.

Durangaldea. Neska euskalduna haurrak zaindu edota partikularrak emateko prest. 661-37 85 29.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lan bila. 632-51 68 61.

Durangaldea. Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska euskalduna Durangaldean umeak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625-70 78 31.

Durangaldea. Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo gauez. Erreferentziekin. 616-78 80 33 Luz Adilia.

Durangaldea. Neska arduratsua eta erreferentziekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608-24 85 54.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Edozein ordu eta egunetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-87 53 60.

Durangaldea. Lan bila garbiketan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680-29 66 76.

Durangaldea. Umeen zaintzan, dendari lez, hosteleritzan,... Lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672-69 91 52.

Durangaldea. Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-12 22 45.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. 631-02 29 82.

Durangaldea. Nagusiak zaintzen edo bulego eta harategiak garbitzen lan egiteko prest nago. Lanaldi osoan, goizez, arratsaldez edo gauez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690-68 73 95.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta errefentziaduna lan bila. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile lanetan aritzeko. 24 orduz, egunez edo orduka. 608-65 90 55/ 602-80 53 85.

Durangaldea. 24 orduz edo egunez, orduka zein gauez, portaleak garbitzeko lan bila. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626-69 77 23

Durangaldea. 24 orduz edo egunez, orduka zein gauez, portaleak garbitzeko lan bila. Esperientziaduna. Deitu 602 -35 01 10 telefonora.

Durangaldea. Emakume euskalduna Durangaldean eta egunean bi-hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 618 -40 58 79 (Izaskun).

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. 631-24 26 07.

Durangaldea. Orduka zein gauez pertsona nagusiak zen umeak zaintzeko lan bila. 633 -93 41 06.

Durangaldea. Neska euskaldunak pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako eskaintzen du bere burua. Asteburuetan edo astegunetan. 652-72 02 29.

Durangaldea. Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 690 -68 73 95 .

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 644-63 51 45.

Durangaldea. Durangaldean pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-02 29 32.

Durangaldea. Durangaldean 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-12 22 45.

Durangaldea. Durangaldean garbiketan, umeak, nagusiak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652-13 00 41.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 631-25 09 98.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 679-53 01 60.

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edota garbiketarako prest. Paperekin eta erreferentziekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620-82 85 79.

Durangaldea. Esperientziadun neska lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan. Paperekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-81 12 63.

Durangaldea. Neska zaintzan edo dendari lez lan egiteko prest. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-01 61 99.

Durangaldea. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduko lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. 608-12 22 45 edo 632-86 92 82.

Durangaldea. Emakumea garbiketan, ume zein nagusien zaintzan lan egiteko eskaintzen da. 24 orduz edo egunez. 672 -92 40 83.

Durangaldea. Umeak edo edadeko pertsonak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 632 -55 69 95.

Durangaldea. Bolibiako neska, 24 orduz umeak edo nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Erreferentziak. 692-57 18 71.

Durangaldea. Neska arduratsua nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. Tel: 682-40 57 91.

Durangaldea. Neska arduratsua, nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. 602-07 29 28.

Durangaldea. 29 urteko neska edozein lan egiteko prest. Goizeko edozein ordutatik 12:00ak arte, eta 15:30etik edozein ordura arte, gauak barne. Umeekin, ezindu psikiko eta fisikoekin, eta nagusiekin esperientzia handikoa. Kotxe propioa. 690-99 66 18.

Durangaldea. Pertsona arduratsua lan bila, 09:00etatik 14:00etara. Zaintzan zein garbiketan. 632-72 43 23.

Eraikuntzan zein garbitasunean. Eraikuntzako ofiziala eraikuntzan lan egiteko gertu; edozein motako garbitasun lanetan jarduteko prest ere bai. Autoa eta gidabaimenarekin. Debagoiena osorako. (Rolando) 639 41 68 38,

Etxeko lanetarako zein pertsonekin jarduteko gertu. Umeak edo adineko pertsonak zaintzeko gertu. Orduka, etxean bertan bizita edo edonola. Etxeak, atariak... garbitzeko prest. Debagoiena osorako. (Karen) 699 14 17 38

Elorrio. Neska gazte eta euskalduna, Durangaldean haurrak zaintzeko prest, esperientziarekin. Yanire 657-77 54 37.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Honduraseko neska langile eta arduratsua. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616 84 89 26,

Sukaldaria. Sukaldaria, esperientziaduna, lan egiteko prest. Lorea. 677 64 84 82edo 943 53 34 24

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Google sketch up-eko hastapen mailako eskola partikularrak jaso nahi nituzke. 652-55 88 31.

502. EMAN

Bergara. Irakaslea den mutil euskalduna lehen hezkuntzako edozein mailatako ikasleei klase partikularrak emateko prest. Ingelesezko klaseak ere ematen ditut. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 645-72 01 50.

Durango. Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. Telefonoa: 675007919 emaila: egorrono@gmail.com

Durango. Irakasle euskalduna, Magisteritzan diplomatua, klase partikularrak emateko prest Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Edozein galdera egiteko, deitu: 618-06 87 49.

Durango. Ingeleseko eskola partikularrak emateko prest Durangon. Hizkuntza Eskolako tituludun irakaslea. 637-29 24 65.

Durango. Gaztelera eta literatura azterketetarako klaseak: dbh, batxilergoa, selektibitatea, erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloak. 656-79 15 99.

Durango. Mondragon unibertsitatean industria ingeniaritza daukan durangarra. Azken urte eta erdia atzerrian pasa dut eta beraz ingles maila egokia eskain dezaket. Bestalde, esperientzia daukat marrazki tekniko, matematika, fisika eta abarren klaseak ematen (LH, DBH eta Batxilergoan). Beste arloren bat landu nahi izanez gero, jakinarazi mesedez inongo arazorik gabe. Kontaktu telefonoa: 665-71 11 08. iker.totorika6@gmail.com

Durangaldea. Neska gaztea, ingeniaria eta durangarra, klase partikularrak emateko prest, LH, DBH edota Batxilergoko ikasleei. Edozein ikasgaitan. Telefonoa: 635-20 50 12.

Durangaldea. Sei urteko esperientziadun neska euskalduna naiz eta eskola partikularrak emateko prest nago. Hezkuntza berezian eta hizkuntza arazoetan espezialista naiz. Zure seme -alabek laguntza behar badute edo eskolako lanak egiteko norbaiten bila bazabiltza, deitu inolako konpromisoik gabe 615 -73 53 85 telefono zenbakira.

Oñati. Goi mailako ingenieritza amaitu berri duen mutila eskola partikularrak emateko prest, o„fflatin. DBH zein batxilergoko ikasleei (fisika, matematika, kimika, mekanika, teknologia,...). 636-00 18 22.

6. MOTORRA

601. SALDU

Aukera. Ford Focus Ghia Sport Break auto familiarra salgai. 1800 TDCI. 35.000km. Iaberria. 617 13 17 51

Rover 45 comfort 1.4 gasolina. Rover 45 comfort 1.4 gasolina. 4 ate. Alarma, abs, airbag, pioneer 4x40w irrati -cda, lapurreten kontrako inmobilizadorea. Tomtom one bat opari. Probatu ezazu konpromezurik gabe. Transferentzia nire kontura. 607152403.

VW multivan t4 tdi 2.5. Furgoneta vw multivan t4 tdi 2.5 salgai daukat. Kanbio automatikoa. 102 zaldi dauzka kondizio honean dago. Kanpinarako prestatuta. 609481124

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzak eta antxumeak. Sei ahuntz eta lau antxuma salgai daude. Lau ahuntz umeak egin berri, beste bat umea egiteko eta bestea urtekoa da. Lau ahuntz txiki eta aker bat ere salgai daude. 671 71 90 96

Ardiak salgai Oñatin. 943-78 12 94.

Armotxenako Dovermanak. Arbi beltzak, beste bi marroiak eta eme bat. Aita esloveniar txapelduna, eta ama HD-a, ipo II. Biak erakusketetako lehen postuetan eta «RCI» lanetan. Kirolarientzako edo zeozer egin nahi dutenentzako baldintza bereziak. 2012 -10-15 jaiotakoak. 800 euro. 656-79 10 27.

Indioilar beltzak. Hiru hilabetekoak eta urtebetekoak. Bikotea, 70 euro. Interesatuok deitu: 943 -79 96 55, 690-65 39 37.

Katu pertsak. Hiru hilabetekoak. Katu pertsak. Hiru hilabetekoak. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. 620-60 73 40.

703. EMAN

Katuak opari. Urtebeteko katuak oparitzen dira. 669 72 08 93

Katuak opari. Katuak oparitzen ditugu. 606-70 91 18.

Ehizako txakurkumea. saldu edo emateko baduzu, deitu zenbaki honetara. 619 87 95 57

704. BESTELAKOAK

Etxeko katua aurkitu dut Arrasaten. Gris kolorekoa (europear arrunta arrazakoa), emea eta gaztea. Ferrerias kale inguruan azaldu zen. 653 72 43 19

8. DENETARIK

801. SALDU

Autorako segurtasun aulkia. 0-13 kilorako "Maxi-Cosi" etxeko segurtasun aulkia salgai, Easyfix oinarriarekin. Quinny, Bugaboo zein bestelako aulkietan jartzeko bi egokigailu ere bai. Prezioa: 100 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 21 37 18,

Bigarren eskuko sukaldea salgai Etxarri Aranatzen . Etxetresna elektrikoak eta altzariak barne. 1.000 euro negoziagarriak. 688- 64 61 47. Amaia.

Gitarra elektroakustikoa. Ovation CC24 gitarra elektroakustikoa salgai. Atzealde biribildua. Gutxi erabilia. 240 euro. 646 377 657

Kristalezko mahaia. Bulegorako kristalezko mahaia salgai. Berri-berria. 619 87 95 57

Mendirako GPSa. GPSa, garmin oregon 550t , kamaraz guztiz, oso gutxitan erabilia, dendetan 350 euro. Iñigo. Tel: 629-81 88 14.

Mini kuma. Umeendako mini kuma eta izarek salgai Debagoienean. 606 19 89 56

Musika ekipoa salgai. Eclerc mac 90 nahasketa mahaia salgai, prezioa 150 euro. Yamaha cdx 397 cd irakugailua salgai, prezioa 50 euro. Technics ekualizagailua 50 euro-an salgai. Dena egoera onean. Deitu 606 -26 62 44 telefono zenbakira.

Nintendo DS Lite. Nintendo DS Lite, kolore zuria saltzen dut, osagarri guztiekin (2 zorro, 2 kargatzaile, 2 lapitz eta txartel pirata 2GBko memoriarekin). Egoera oso onean dago eta oso gutxi erabilia. Aukera ezin hobea da. Prezioa: 80 €. 670 52 58 74

Soinu handia. Soinu handia salgai. Delicia etxekoa, gorria. Piano itxurako tekladuna. 80 baju. 165 euro. Deitu 697 25 92 48 telefonora.

Trialeko botak. Hebo zuriak dira, egoera onean eta gutxi erabilita. 37 zenbakia. 55 euro. 630 66 07 19

Umearendako aulki tolesgarria. Castle etxekoa. 30 euro. 606 78 30 30

Umeendako karroa. Bugaboo etxeko karroa salgai Debagoienean. Beltza. Interesatuok deitu zenbaki honetara. 606 19 89 56

Umeendako karroa. Mutsy Urban Rider karroa. Traveller aulki eta osagai guztiekin. Prezio oso onean. 656 74 94 40

Xurgagailua. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49

Xurgagailua. AP7010 modeloa. 2.000 wattiokoa. 30 euro. Orbegozo etxekoa. 606 78 30 30

802. EROSI

Estetikako materiala. Estetikako bigarren eskuko materiala erosteko prest. 619 87 95 57

Antzinako gauzak jaso edo erosi. Antzinako gauzak jaso edo erosten dira: bizikletak, josteko makinak, argazki kamarak, idazteko makina... Egoeraren arabera ordaintzen da. Emailez edo watsapp bidez argazkia bidali edo deitu. 678-47 43 54.

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Iñaki. Emateko baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

Butanozko berogailua. Martxan dagoen butanozko berogailua hartuko nuke. Ordaintzeko prest nago. 658-71 44 37 / 943-76 40 87.

806. GALDU

Bizikleta Urkulun. Azaroaren 3an, zapatua, umeen bizikleta txikia galdu genuen Urkulun. Pedalik gabekoa eta Kokua etxekoa da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez zenbaki honetara. 637 98 08 76

Telefonoa Aretxabaletan. Telefonoa galdu nuen Aretxabaletan, San Migel jaietan. Nokia E72 modeloa, beltza eta zilar kolorekoa. Aurkitu duenari eskertuko nioke SIM txartela besterik ez bada itzultzea. 608 17 00 00 . Eskerrik asko

Zilarrezko pultsera. Arrasaten zilarrezko pultsera galdu nuen urriaren 21ean, domeka. Aurkitu baduzu deitu mesedez telefono honetara: 664-35 75 15.

808. BESTELAKOAK

Doctor Deseo taldeari buruzko lan bat egiten nabil. Sarrerak, elkarrizketak eta duzun materiala jasoko nuke, originalak edo fotokopiak. Eskerrik asko!. 639 03 25 97

9. HARREMANAK

901. HARREMANAK

Goierri aldeko neska euskaldun jator baten bila. Goierri aldeko neska euskaldun jator baten bila nabil, 30 urtetik gorakoa. Amistate eta erlazio baterako . Tel: 678-11 28 05.

903. DEIAK

Ekologista zein feministeei.. Kaixo lagun! atxabaltako edota inguruko ekologistak eta feministak ezagutu nahi ditut lagunak egiteko, elkarrengandik ikasteko eta ekimenak aurrera eramateko. putoogle@gmail.com 644-59 03 23.

Ingeles eta frantses mintzapraktika. Ingeles mintzapraktika eginen nuke frantsesaren truke, astean bi orduz. Frantsesa jatorrizko hizkuntza dut. 630 05 91 98

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
SALGAI
ALDE ZAHARRA: Igogailua. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 250.000€
AMARA: Altua. Igogailua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 190.000€
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Hegoa. 198.000€
AMARA: Guztiz kanpora. 3 logela, sukaldea, egongela iskinan, 2 bainugela. Sartzeko. 279.000€
AMARA: Altuak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 205.000€
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. Oso ongi dago. 215.000€
MARTUTENE: Dena kanpora. 65m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua. Eguzkitsua. 126.000€
GROS: 80m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Igogailua. 330.000€
EGIA: Mandasko dukea. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 237.400€
INTXAURRONDO: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 145.000€
LEZO: igogailua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 146.000€
HERNANI: 30m2 terraza. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 120.000€
ASTIGARRAGA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 119.600€
ALOKAGAI
LEZO: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Oso polita. 680€
MARTUTENE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Parkinga. 560€
BIDEBIETA LA PAZ: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 640€
ZENTROA: Artzain Onaren inguruan. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 850€
ZENTROA: logela bat, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Oso polita. 750€
PASAI DONIBANE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 590€
TRINTXERPE: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Hutsa. 600€
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Parking pribatua. 690€
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. Oso ederra. 780€
AMARA OSINAGA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Oso polita. 800€
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Aia. Baserria berritu berria. 125 m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000 m2. 50.000.000 pezeta.
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000 euro!.
Bergara. San Lorentzo auzoan. Duplex bat, estreinatzeko, garaje plaza eta guzti. 45.000.000 pezeta. Prezio Berria!!
Donostia. Amara-Amezketa kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.
Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta loralategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.
Zarautz. Itxasmendi. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta terraza. Argitsua. Prezio berria: 46.000.000 pezeta.
Zarautz. Azken Portu. 92 m2 ditu. 4 logela, Terraza, Trastelekua eta Igogailua. Erreforma behar du. Prezio Berria. 54.000.000 Ptas.
Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, Terraza, Trastelekua eta Garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

E-book berriak, eta poltsikorako erakargarriak

Tabletek baino energia gutxiago gastatzen dute, eta gehiegizko argiztatzerik ezak irakurketa errazten du

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Liburu elektronikoen zaleek Amazon, Fnac, Casa del Libro eta Grammata etxeen e-book berriak eskura ditzakete. Tabletek baino energia txikiagoa gastatzen dute eta, gainera, gehiegizko argiztatzerik ezak irakurketa errazten eta hobetzen du, pantailak ez baitu ikusmena kalte dezakeen distirarik igortzen. Liburu elektronikoak gustuko dituztenentzat, aukera paregabeak.

Kindle Paperwite

Amazon etxeak aurkeztua. 213 gramoko pisua du eta 3G eta wi-fi konexioak ditu. Sei hazbeteko pantaila, 1024x768 pixeleko bereizmenarekin. 1,25 GB ditu erabilgarri, 1.000 liburu baino gehiago bil daitezke. Gainera, liburuak zuzenean eskura daitezke sareko konexioari esker. Wi-fi konexioa dutenek 129 euro balio dute eta wi-fia eta 3G dutenak 189 eurotan eros daitezke.



E-book berriak ikusmenerako hobeak dira. | EFE

Papyre 601

Grammata etxearena 4 GBko memoria-espazioa dauka, SD txartelen bidez handi daitekeena, 32 gigabytera heldu arte. Liburuak zein audio artxiboak gorde daitezke, FM irratia edota MP3 eta WMA formatuetan audio erreproduktorea baitu. Ez dauka ez wi-firik ezta 3Grik ere. Beraz, liburuak gehitzeko, USB konexioa beharko da. Grammata etxeko denda ofizialean 112 euroren truke dago eskuragarri.

Fnack Touch

Fnack etxearen eskutik, Pvi Pearl izeneko 6 hazbeteko tinta elektronikoa duen ukimen-pantaila dauka, 800x600 pixeleko bereizmenarekin. 222 gramoko pisua du eta wi-fi konexioa dauka; beraz, honekin ere saretik zuzenean Fnaceko liburuak eskura daitezke. Memoria-espazioa 4 GBkoa da, baina SD txartela erabiliz 32 gigabytera hel daiteke.

Casa del Libro

Lau modelo berri ditu. 6 hazbeteko pantailadunak: Tagus Pulsa, oinarrizkoena (89,90 euro); Tagus Taktila (119,90 euro) eta Tagus Lux (139,90 euro), argi txikiko lekuetarako aurreko argia duena. Eta Tagus Magno (299,90 euro), formatu handiagoarekin eta 9,7 hazbeteko pantailarekin. Ezaugarrien artean, 3 GB erabilgarri, SD txartelarekin 32 GB izan daitezkeenak, wi-fi konexioa eta MP3 formatua duten artxiboen erreproduktorea.

Chevrolet eta iPhone. | CHEVROLET

Arreta galdu barik gidatu

M.G. | ARRASATE

Gidatzen dugun bitartean mugikorra erabiltzeak istripua izateko arriskua areago dezake. Hala ere, bolantea eta mobila aldi berean erabiltzeko joera handia dago. Horren aurrean, Chevrolet markak, *begi libredun* sistema gehitu die Spark eta Sonic modeloei. Horiek iPhone eta Apple etxeen Siri ahots antzemate eta sintesi teknologia baliatuko dute eta mugikorra erabili ahal izango da arreta galdu barik. Autoan sartu eta Bluetooth bidez audio sistema eta telefonoa konektatu, bolantean dagoen botoi bati sakatu eta mikrofonoa aktibatuko da. Erantzunak, berriz, bozgorailuetatik entzungo dira.

Piano joleen gisara, musika egiten eta jotzen duten robotak

Eskuak eta oinak erabili gabe eta GRITS Lab gurpilez baliatuz, robotei partitura eman eta notak non dauden esanda, Big gisako piano batean eurak bakarrik antolatu eta abestia jotzen hasten dira. Notak bata bestearen segidan eta konfusiorik gabe kokatuz, gainera. Zenbat eta robot gehiago izan, orduan eta azkarrago joko dute. Robotek eurek badakite zeintzuk mugitu behar diren eta zeintzuk ez, abestiko notek eskatzen dutenaren arabera.

'Mintzatu.com', euskaraz hitz egiten den tokien sarea

Euskaraz mintzatzen den munduko lekuak bilatzeko, euskaraz mintzatzen den leku berriak etiketatzeko, nork bere kokalekua partekatu eta euskaraz norekin hitz egiten dugun esateko, euskaraz hitz egitea bultzatzeko edota lagun berriak egiteko. Euskaraz hitz egiten den tokien sarea da *Mintzatu.com*. Nork bere kontua sortzen duenean, euskara erabiltzen duten lekuak etiketatzen has daiteke. Gainera, parte-hartzeagatik soilik, sari potoloak irabaz daitezke.

Nokiak Bratislavako orkestrari eman dio tonu eta melodia berriei musika jartzeko ardura

M.G. | ARRASATE

Aski ezaguna den Nokia Tune melodia munduan gehien entzundako tonuen artean koka dezakegu. Estatistikei erreparatuz, 1.000 milioi aldiz entzuten da egunean; hau da, 20.000 aldiz segundoko.

Hala ere, Finlandiako konpainiak 25 tonu berri sortu ditu, Bratislavako orkestra sinfonikoaren interpretazioak lagun. Kontu handiz sortutako melodiak dira. Nokiako soinu-taldeko ingeniari baten esanetan, Nokia Tune melodia hainbestetan entzuteak zerbait berezia duen seinale izan beharko du. Ondorioz, "beharrezkoa da ondo egitea".

Klasikoa

Azken 18 urteotan, Nokiaren melodia mitikoa ez da telefono bakarrean ere falta izan, baina Finlandiako konpainiak bere "errepertorioa" berritu nahi du.

Orkestra 56 lagunek osatzen dute. Sortu dituzten 25 tonu horietatik lau Lumia 920 eta 820 telefonoetan agertuko dira lehen aldiz. 10 eta 35 segundo arteko melodiak dira.

Bratislavako orkestrak sortuko ditu Nokiaren tonu berriak. | EITB

Mugikorrarekiko menpekotasuna gero eta nabariagoa da. | GAZTEBERRI

Nomofobia: sakelako telefonoa gertu ez izateak sor dezakeen beldurra

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Gaur egun teknologiak duen indarra nabaria da eta horrekiko menpekotasuna agerian uzten duten datuak ere badira. Estatuan 16 eta 60 urte bitarteko biztanleen %99k sakelako telefonoa dute. Ikerketa baten arabera, gainera, eguneko, 34 aldiz begiratzen diogu mugikorrari.

Menpekotasun ororen antzera, gaixotasun bilakatzeko aukera ere badago. Izan ere, antsietate -gorabeheretan espezializatutako CEETA zentroak egindako ikerketa baten arabera, erabiltzaileen erdiek baino gehiagok antsietatea, agresibitatea edota konzentrazioa mantentzeko arazoak izan ditzakete telefonoa etxean ahaztu, bateria agortu edota galdu egiten badute.

Orduak pantailari begira

Aipatutako ikerketaren arabera, smartphone eta antzekoak geroz eta hedatuago egonda, WhatSapp, Twitter eta Facebook aplikazioekin orduak eta orduak eman ditzakegu mugikorreko pantailari begira.

Bestelako menpekotasunekin gertatzen den moduan, erabilera murriztea ez da erraza. Hori gradualki egin beharko da, telefonoa gero eta denbora laburragoan erabilita; eta erabilera eguneko une zehatzetara mugatu beharko litzatekeela ikasita, hain zuzen ere.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

Telebista izar berria!

Normalean sukaldariek Michelin gidak emandako izarrak jasotzen dituzte, baina zenbait kasutan izar horiek ez dute garrantzi handirik izaten eta eurak bilakatzen dira benetako izar. Badira 15 bat urte Argiñano, sukaldari baino gehiago, telebista izarra dena, baina azken hilabeteotan bere tronua kolokan dago. Chicoteren *Pesadilla en la cocina* denbora gutxian oso programa ezagun bilakatu da eta zenbait jatetxeren lardaskeriak agerian geratu dira.

Egia esateko, ez dakit telebista-programa non kokatu. Alde batetik, komedia dela dirudi, Chicoteren komentarioak, Agatha Ruiz de la Pradak diseinatutako sukaldari txaketak... Baina, bestalde, *thriller* edo beldurrezko film batetik ateratako ukituak ere badaude. Janari usteldua, mikrouhin laberik gabe janaria prestatzen ez dakiten *sukaldariak*... Hori guztia Chicoteren garrasi eta bezeroen kexen artean, ikustekoa!

Kazetaritzak bizi duen deskalabrua ikusita, zenbait erredakziotan Chicoteren pareko norbaiten falta dagoela uste du. Mesedez, kazetari munduan ERE gehiagorik ez!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 3

'Harmailatik'

Xabier Urtzelai kazetariak gidatutako saioan kirolak Debagoienean emandakoaren berri eskainiko du. | **22:03**

12:25 Magazinea
13:10 Zorion agurrak
13:15 Onein: Zapo otarrainxka
13:43 Gipuzkoa Kultura
14:15 Ekogune
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion agurrak
15:18 Kilometroak 2013
16:23 AsteON
16:57 Berriak
17:22 Eguraldia
17:25 Onein: Zapo otarrainxka
17:53 Hamaika.bit
18:26 Beranduegi.tv
18:51 Ekogune
19:21 AsteON
19:51 Berriak
20:16 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Gurean Gaur
22:03 Harmailatik
22:48 Berriak
23:08 Eguraldia
23:11 Magazinea
23:56 Harmailatik
00:41 Urrakiko XXX. Igoera
01:16 Eguraldia

MARTITZENA 4

'Gurean Gaur'

Tokiko telebistek egunero elkarlanean egindako abistegia da Nagore Uriartek aurkeztutako saioa. | **21:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:15 Zorion agurrak
13:20 Harmailatik
14:05 Hamaika.bit
14:40 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein: Arroz saldatsua
16:15 Gurean Gaur
16:41 Berriak
17:01 Eguraldia
17:04 Kilometroak 2013
18:09 Harmailatik
18:54 Beranduegi.tv
19:18 Gipuzkoa Kultura
19:48 Zorion agurrak
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean Gaur
22:00 Berriak
22:20 Eguraldia
22:25 Harmailatik
23:10 Magazinea
23:55 Berriak
00:15 Eguraldia

EGUAZTENAA 5

'Ekogune'

Xaboia nola egin ikasiko dugu Kutxa Ekoguneko kide Naiara Elorriagaren eskutik. | **22:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:20 Hamaika.bit
13:55 Harmailatik
14:40 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:00 Eguraldia
15:03 Onein: Arroz saldatsua
15:25 AsteON
15:55 Kilometroak 2013
17:00 Berriak
17:15 Eguraldia
17:18 Harmailatik
18:03 Zorion agurrak
18:08 Beranduegi.tv
18:32 Zorion agurrak
18:37 Doneztebeko neguko feria
19:14 Urrakiko XXX. igoera
19:49 Zorion agurrak
19:54 Berriak
20:14 Eguraldia
20:16 Magazinea
21:00 Gurean Gaur
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:55 Magazinea
23:40 Gipuzkoa Kultura
00:10 Berriak
00:15 Eguraldia

EGUENA 6, EGUBAKOITZA 7

47. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren nondik norakoak ikusgai

Durangoko Azokaren begi, belarri eta erakusle egingo du Azoka Telebistak. Sortzaileei eginiko elkarrizketez, bideoklipez, egunean zehar eginiko erreportajeez eta zuzenean gertatzen ari denaz osatzen da telebista, eta azokako pantaila erraldoian uneoro emititzen dena ikusteko aukera izango da Goiena telebistan. Liburu eta disko azokaz gain, Ahotsenea, Areto Nagusia, Saguganbara, Irudienea, Kabi@ eta Szenatokia guneetan gertatzen denaren berri emango du, 10:30etik 23:30ak arte.

AZOKA TV
KULTURA ZUZENEAN

ARRASATE IRRATIA

Euskararen Egunaz jardungo dute astelehenean

Arrasateko Udaleko Euskara teknikaria, Jose Felix Diaz de Tuesta, izango dugu Arrasate Irratian. Astelehena, abenduak 3, Euskararen Egunaz da, eta, hori ospatzeko, besteak beste, Arrasaten euskararen egoeraz eta etorkizunerako erronkez hitz egingo dugu FMko 107.7an.

'Heziak gainditzen' dokumentalaren gidoilari bat izango dute

Txatxilipurdi elkarteko guraso sailak laugarren aldiz antolatu du Gurasolandia ekimena. Laugarren edizio honi amaiera emateko, egubakoitzean *Heziak gainditzen* dokumentala aurkeztu zuten. Martitzenean Gorka Etxaberekin, dokumentalaren gidoigileetako batekin, hitz egingo dugu.

Eguaztenean disko bilduma zozketatuko dute FMko 107.7an

Aste laburra izango dugu Arrasate Irratian: zubia dela eta, astelehenetik asteazkenera emituko dugu *Igo autobusera* saioa. Aste honetako zozketa asteazkenean izango da, eta, bertan, disko sorta bat zozketatuko dugu. Saria nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo bidali mezu bat *irratia@goiena.com*-era.

TELE-ALBISTEAK

Ortzi Akizu, Ekobidaiari sariaren irabazlea, 'Ekogune' saioan

Hiru hilabetez, hiru kontinentetan iraunkortasunaren gaineko ikerketa egingo du Ezkio-Itsasoko bidaiariak

Ortzi Akizu Ekobidaiari lehiaketaren irabazlea. | GOOGLE

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Aste honetako *Ekogune* saioan Ortzi Akizu bidaiariari elkarrizketa egingo dio Julen Iriondo kazetariak. Ezkio-Itsasoko bidaiariak Kutxa Ekoguneak antolatutako Ekobidaiari lehiaketa irabazi du, eta, horren ondorioz, hiru kontinentetan zehar bidaiatuko du: Ozeanian, Europan eta Amerikan.

Akizuk bisitatuko dituen toki guztietan, iraunkortasunaren arloan energia, landa garapena eta kontsumo iraunkorra landuko ditu. Bidaiaren nondik norakoak azalduko dizkio Julen Iriondori.

Plan Berdean 'Badu bada'

Donostiako San Telmo museoan azaroaren 16tik 2013ko otsailaren 17a bitartean *Badu bada* izeneko erakusketa ezagutuko dugu Plan Berdean. *Badu bada* euskararen iraunkortasunaren gaineko erakusketa da eta etorkizuneko mundu eleanitzaz eta hizkuntzen arteko bizikidetzaz hausnartu eta eztabaidatzeko gunea da erakusketa.

Gaixotasun mitokondrialez jardungo dute 'Magazinea' saioan, osasun tartean

Eguaztenean, Anabel Martinezek gaixotasuna ikertzen laguntzeko kanpainaren berri emango du

A.M. | ARRASATE

Eguazteneko *Magazinea*-n, osasunaren tartean, Anabel Martinezek gaixotasun mitokondrialei buruz hitz egingo du Amaia Txintxurretarekin eta Miren Arregirekin. Iker Galan bergararraren ama da Martinez, eta haren semeak duen gaixotasun mitokondriala gaitz arraro moduan katalogatuta dagoenez, gaitz horren inguruan ikerketa gutxi egiten dira.

Estatuan gaitz horren inguruan bi ikerketa egiten ari dira: bata, sendagaien gainekoa; eta bestea, genetikari buruzkoa. Egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, ikerketa horiek bertan behera gelditzeko arriskua dago, eta, hori ekiditeko, gaixoen familiek AEPMI izeneko elkartea osatu dute. Ikerketak ez gelditzea da elkartearen helburua, eta, horretarako, 40.000 euro lortu behar dituzte.

Tapoiak eta telefonoak jaso

Diru hori lortzeko, Iker Galanen senideek tapoiak eta eskuko telefonoak jasotzeko kanpaina abiarazi dute. Bergaran, denda eta taberna askotan ari dira bilketa egiten, eta Debagoieneko herri desberdinetan ere egiten ari dira bilketa.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Luken eta Uxue Urrutia Abarrategi
Abenduaren 8an, 6 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen eguna! Zuen familia eta kuadrilaren partetik! Bereziki, asko maite zaituzten Ainhoaren patxo handi bat!

ESKORIATZA
Aner Ortiz Esnaola
Abenduaren 7an, urtebete. Zorionak, poxpolin! Zure lehen urtebetetzean ondo-ondo pasatzea opa dizugu Aimarrek, aitatxok eta amatxok. Asko-asko maite zaitugu. Muxu potolo bat. Pa!

OÑATI
Izaro Telleria Gardoki
Abenduaren 7an, 2 urte! Zorionak, *kaiñito*! Barikuan txokolatadia! Pa eta pa Xabi eta Beñaten partetik.

ARRASATE
Mikel Alonso Esquina
Abenduaren 7an, 44 urte. Zorionak, aitatxo! Ederto ospatuko dugu egun berezi hau, Parisen eta Disney-n! 44 muxu potolo etxekoen, amatxoren, Beñaten eta Marenen partetik. Maite zaitugu, mutikote!

ARRASATE
Malen Balerdi Berezibar
Abenduaren 6an, 9 urte. Zorionak zure familia eta lagun guztien partetik! Segi horrela!

ARETXABALETA
Aner eta Unax María Tercero
Abenduaren 5ean, 2 urtetxo!! Zorionak bikote maittiak!!Ondo ondo pasatuko dugu familia eta lagunen artean! Muxu handi-handi bat bakoitzarentzat familia eta lagun guztien partetik! Asko maite zaituztegu, bereziki aitaxok eta amatxok!!

BERGARA
Ibai Rodriguez Diaz de Zerio
Abenduaren 5ean, 5 urte. Zorionak, Ibai! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo handi bat etxekoen, eta batez ere, Ekainen partetik.

ARAMAIO
Maddi Garcia Bidaburu
Abenduaren 5ean, 9 urte. Zorionak, potxola, jadanik 9 urte pasatu dira jaio zinenetik. Ondo pasatu zure eguna, asko maite zaituen zure familiaren eta, batez ere, zure ahizpa Nahiaren partetik.

BERGARA
Oier Leceta Alberdi
Abenduaren 4an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik!

ARRASATE
June Iriarte Balerdi
Abenduaren 3an, 5 urte. Zorionak, June! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat zure familia eta lagun guztien partetik.

ARRASATE
Jose Gardoki Garro
Abenduaren 3an, 60 urte. Zorionak alaben eta, batez ere, Beñat, Izaro eta Xabiren partetik! Segi orain arte moduen, aitaita!

ARETXABALETA
Oier Kortazar Lasagabaster
Abenduaren 3an, 3 urte. Zorionak eta patxo potolo-potolo bat etxekoen partetik. Irudian Oier bere arreba Maddirekin.

OÑATI
Maren Arenaza Altube
Abenduaren 3an, 3 urte. Zorionak, potxola! Etxekuen partetik muxu handi bat zure egunian.

ARRASATE
Alazne Berasaluze Pastor
Abenduaren 3an, 4 urte. Zorionak, maitia, muxu pila bat eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean.

BERGARA
Ane Miren Irizar
Abenduaren 2an, 27 urte. Zorionak, mari-matraka! Egun ederra pasa deizula. Patxo potolo eta bero bat, Jon, Irune eta bereziki Julenen partetik.





ARRASATE
Zihara eta Ilia
Ziharak abenduaren 1ean, 2 urte eta Iliak abenduaren 2an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo parea! Ondo pasatu eta muxu pilo bat kuadrilako laguntxo guztien partetik.

ANTZUOLA
Oroitz Jauregi
Abenduaren 2an urteak beteko dituzula-eta, Martinen okindegian egiten duten karapaixoa janaz egun zoragarria ospatu eta zorionak etxeko danen partetik. Muxu asko.

ARRASATE
Beñat Escobar Aperribai
Abenduaren 2an, urtebete. Aupa, txapeldun! Zorionak! Ondo-ondo pasa deizula zure laguntxo, familia eta ingurukuekin!



ARRASATE
Itxaso Urgoitia Agirre
Abenduaren 2an, 7 urte. Zorionak, potxola! Muxutxu handi bat etxekoen partetik!

ANTZUOLA
Nahia Garaikoetxea Iturbe
Azaroaren 30ean, 9 urte. Nahia, ondo-ondo pasatu eta muxu potolo bat zure familiaren partetik.

ARRASATE
Kepa Merkader Gardoki
Azaroaren 30ean, 27 urte! Zorionak, *guapeton*!

ARRASATE
Haizea Arroyo Zubia
Azaroaren 29an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu eguna. Amatxo, aitatxo eta laguntxoen partetik.

ARRASATE
Alaitz Zaitegi Manzanas
Azaroaren 28an, 3 urte. Zorionak, Alaitz! Ze azkar pasatu diren azken hiru urte hauek! Oso ondo pasatu zure egunean eta patxo handi bat familia guztiaren partetik, bereziki, Iratik.

OÑATI
Mario Elizburu
Azaroaren 28an, 5 urte. Zorionak, potxolo! Dagoeneko bost urtetxo! Ze mutiko handia! Ondo-ondo pasatu eguna, eta horrelako alai, pozik eta guapo jarraittu. Izugarri maite zaitugu. Muxutxu goxo-goxo asko, familia guztiaren partetik, baina bereziki, Enzok.

BERGARA
Hodei Zanguitu Sanchez
Azaroaren 28an, 4 urte. Zorionak Unaxen eta etxekoen partetik.

BERGARA
Oier Lete
Azaroaren 28an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Familiaren, eta bereziki, Martinen, Ederren eta Aneren partetik.

ARRASATE
Ane Zubizarreta
Azaroaren 26an, 16 urte. Zorionak, *rubia*! Jada nagusi ein zare... Ondo-ondo pasatu eta ospatukou hurrengo larunbatian biher dan moduen! 16 patxo handi Almenetik!

ARRASATE
Alaiñe Olabarria
Azaroaren 26an, 18 urte. 26a pasatu da, baina, ez gare zurekin ahaztu! Zorionak, bikote! Askoz gehiago izan daitezela! Ally eta Phillips.

ESKORIATZA
Maider Azkargorta Ancin
Azaroaren 25ean, 14 urte. Zorionak, *guapisima*! Oso ondo pasatu egun handi honetan. Muxu asko familiaren partetik.



ARRASATE
Alaitz Mendizabal
Azaroaren 25ean, 16 urte. Zorionak, *guapisima*! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta disfrutatu! Patxo handi bat Iturriotzeko danon partetik!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Aimar Rebollo Galan

Arrasate. 3,410 kilo. Azaroaren 26a. Gurasoak: Ana eta Manuel. Argazkian, Aimar gurasoekin.

Christian Perez Hidalgo

Aretxabaleta. 4,070 kilo. Azaroaren 26a. Gurasoak: Osane eta Jose Manuel. Argazkian, Christian amarekin.

Urko Alberdi Gallastegi

Bergara. 4,050 kilo. Azaroaren 28a. Gurasoak: Yoana eta Aitor. Argazkian, Urko amarekin.

Irati Lopez de Munain

Eskoriatza. 3,160 kilo. Azaroaren 29a. Gurasoak: Itxaso eta Jose Ignacio. Argazkian, Irati gurasoekin.

Hegoi Galdos Martin

Arrasate. 3,090 kilo. Azaroaren 28a. Gurasoak: Vanesa eta Aitor. Arreba, Ekiñe. Argazkian, Hegoi amarekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Aner Urisabel Iturriaga

Bergara. 2,870 kilo. Azaroaren 28a. Gurasoak: Guruzne eta Igor. Argazkian, Aner amaren besoetan.

Eñaut Arkauz Vitoriano

Aretxabaleta. 3,090 kilo. Azaroaren 30a. Gurasoak: Ainhoa eta Iñigo. Argazkian, Eñaut amarekin.

Naira Escobar Zivojevic

Aretxabaleta. 3,240 kilo. Azaroaren 28a. Gurasoak: Zlata eta Mikel. Argazkian, Naira jaioberria amarekin.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Papera egiten du / Ez estua, nasaia		Salaketa egile / Zital, gaizto		Arrain mota / Lakar, zakar			
	* Gaika biltzeko hondakinak / Huts							
Unibertsitate-teko buru / Hiru bider hiru		Ezkutaturik begira / Datilondoen fruitu						
Postua / Sakatu gabeko gazta							50 / Lixiba	
				Saturnoren satelitea / Bizkaiko herria				
Naizen hau / Talka			Hormako irekiune / Fosforoa					
					Interjekzioa			

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SUDOKUA

						9		4
	4	2	5		8	3		7
		6			2			
	5		2		3	8		
9	3			8	4	5		
	8			5	9	6	4	
	1			4		2	3	
			3					
8	2							

HIZKI SALDA

Topa itzazu Europako bost moneta.

G	L	I	B	R	A	X	B	R
H	J	D	E	X	M	O	Z	A
A	F	S	P	O	A	M	O	K
S	H	K	H	L	F	I	D	E
A	A	A	K	Z	L	O	T	Y
A	N	Z	U	A	O	E	O	B
Z	D	I	N	A	R	T	P	I
J	B	E	A	T	I	J	O	A
G	R	Y	H	U	N	H	M	X

HIEROGLIFIKOA

Nola hartu zuten erabakia?

023
456
789

SOLUZIOAK

K	O	L	P	E	A	■	E	A
O	H	I	E	L	■	I	N	■
A	E	R	■	I	O	T	A	M
L	■	A	U	G	R	A	K	■
I	Z	T	A	R	E	D	E	B
A	T	A	L	E	Z	■	D	■
K	A	L	A	I	P	■	■	■
A	L	A	B	A	Z	■	■	■
B	■	S	■	P	■	■	■	■

X	M	H	N	U	H	Y	R	G
A	O	J	I	T	A	E	B	J
I	P	T	R	A	N	I	D	Z
B	O	E	O	A	U	Z	N	A
A	T	O	L	Z	K	A	A	A
E	D	I	F	L	H	K	H	S
K	O	M	A	O	P	S	F	A
A	Z	O	M	X	E	D	J	H
R	B	X	A	R	B	I	L	G

1	5	4	7	6	9	3	2	8
8	9	7	1	2	3	5	6	4
6	3	2	5	4	8	9	1	7
3	4	6	2	9	5	1	8	2
2	1	5	9	6	4	7	3	9
7	9	8	4	5	2	3	6	1
4	6	5	3	2	1	7	9	8
9	3	7	6	8	4	5	1	2
6	5	4	2	1	3	8	7	9
3	9	6	4	7	2	1	8	5
1	4	2	5	9	8	3	6	7
5	7	8	1	3	6	9	2	4



Hieroglifikoa:
Aho batez.

AI, ENE!

Zentzugabekeriari monumentua

Txinako etxe horren jabeek ez zuten etxea saldu nahi, ezta agintariek ibilbidea aldatu ere. Emaitza? Inongo logikarik ez duen paisaia hori.
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Behar egoeran dauden familia askok plasma-telebistak erosten dituzte"

PILAR SOL | PP-KO DIPUTATUA

Sortutako polemika ikusita, barkamena eskatu du Valentziako Gorteetako diputatuak. Errenta Bermatua jasotzen dutenen artean antzemandako irregulartasun bati egiten ei zion erreferentzia. Orokortzea ez da ona, ez beharra dutenen artean, ez politikarien artean.
www.eitb.com

EGURALDIA

Max. 12º
Min. 3º

Tenperatura suabeagoa izango da, baina euri pixka bat egin dezake.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2012-12-03

HAMARREKOA

Iker Galartza Poxpolo pailazoa, *Hil arte bizi* eta *Erreleboa* antzezlanetan, *Goenkale*-n, *Vaya Semanita*-n... la beti komedian, oso aurpegi ezagun egin da amezketarrarena. | TXOMIN MADINA

"Boladaka doa hau, izango dira lasai egoteko hilabeteak"

1. Arrakastatsua izan da *Vaya Semanita*-ren saio berezia. Faltan igartzen zen seinale?
Ez dakit horregatik den, baina jendeak gustu handiz hartu du. Saioan zehar, gainera, audientzia gora joan zen: minutu baten 400.000 ikusle ere izan genituen.

2. Ikusiko ditugu atal gehiago?
Guri, bakarra egiteko dirua zegoela esan ziguten. Agintariek dute erabakia: horretarako egoten gara langabezian, behar gaituztenean lanera joateko. Baliteke Gabonetarako zerbait egotea, baina ez dago seguru.

3. Pertsonaia asko egiten dituzu bertan. Bat aukeratzekotan?
Gustura zein ez dudan egiten badakit: ipurdia erakusten duena, ama haserretzen zait-eta! Besteak gustura hartzen ditut; aktorearentzat gauza ezberdinak egitea ederra da, eta saioak aukera hori ematen dizu.

4. Joseba Usabiaga [Tximista] laguna duzu eta lankide ere bai askotan. Nola eroaten da hori?
Ondo, erosoa da. Ehun metrora bizi gara eta antzezlanetara batera joaten gara: norbaitek bazkaria izan eta sagardoa edan gura badu, besteari abisatu besterik ez du!

5. *Hil arte bizi*-n zuen lankide Sara Cozarrek esan zigun zuekin ez zela erraza kontzentratzea...
Sarri kexatzen da, bai. Guri ahaztu egiten zaigu kontzentratzea, eta teloia altxa aurretik hortxe aritzen gara kontu kontari.



TXALO PRODUKZIOAK / AGM

6. Poxpolo pailazoa ere bazara. Bada umeak baino publiko gogorragorik?
Sarri galdetzen duzue hori kazetariek. Umea ez da gogorra, egiazalea baizik: helduek ez bezala, umeak gustuko ez badu, joan egingo da. Ikaragarri gustatzen zaigu umeekin lan egitea.

7. Draman ez zaitugu askorik ikusi. Aukera ala gogo falta?
Biak... *Hil arte bizi*-n beste erregistro bat ere landu arren, amona batek esan zidan: "Zu zenbat eta gehiago sufritzen ikusi, orduan eta barre gehiago egiten dut!".

8. Goizetan entseguak, arratsaldeetan grabazioak, asteburuetan obrak... Bizi noiz?
Alabari goizean esan diodan moduan, hori, asko jota, datorren hilabetera arteko kontua izango da, eta gero, egunero eroango dut ikastolara. Boladaka doa hau, izango dira lasai egoteko hilabeteak.

9. *Goenkale*-n figurante hasi zen Ikerrek pentsatzen al zuen egun dagoen lekura helduko zenik?
Honetan arituko nintzela bai, nahiko argi nuen zer gustatzen zitzaidan. Baina ez zait *heldu* kontzeptua gustatzen: hau gehitzen joatea da, lanari eustea.

10. Zer egiten ikasi zenuen gurasoen jatetxean?
Parrillero artista naiz! Koadrilan sukaldari moderno asko dago; baina betiko parrilla egiteko, beti Ikerri deitzen diote!

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Ume guztiak ogitarteko batekin"

"Makila izango banu, munduko ume guztiak ogitarteko bat eskuetan dutela ikusiko genituzke. Beste gauza batzuei eman diezaiekegu buelta, baina arazo horri erremedio txarra ikusten diot. Hala ere, gaur egun zerbait onartu ezin bada gosea da hori, umeak gosez hiltzea".

BIHARAMUNA



XABIER ZUBIZARRETA

Empowering

Noiz izan ginen konkistatuak ? Eta zeinek konkistatu gintuen ? Eta zela eutsi diogu geureari, konkistatuak izan eta gero, hainbeste urtetan zehar ? 1620an ala 1512an izan zen, Albako Dukea Iruñean sartu zenean ? Ala erromatarrek eman ziguten lehen astindua, 3. edo 4. mendean ?. Gartxot ikusi al duzue ? Galdera hauek, eta gehiago ere noski, datozkit burura, Zuztarrak Errotuz taldeak, Kulturate-ko "Kalistruetan" antolatu duen "Begira!, Arrasate" erakusketa ikusten ari nintzela. Kontua da, antxinatetik honuntz, Euskal Herriak, bere identitate propioari eutsiz, bizi-raupenaren alde daraman borroka etengabe eta noizbait amaitu beharreko hontan, konstante batzu berdin mantentzen direla. Ez naiz horren azterketa zehatza egiten hasiko; baina ze moduz, geure buruaren jabe izan gaitezen, gaurregunean hain modan dagoen "empowering" pixka bat egiten hasiko bagina eta geure historiaren kontakizuna, geuk egingo bagenu ? Galdutako Memoria berreskuratuko bagenu? Adibidez, Jakintsua, guretzat Nafarroako Antso VI izan zela eta ez Gaztelako Alfonso X ?. Edo Gaztelako Joan II. ak Goikobaluko gaztelua eraistea agindu zuenean, benetan izan zen, "gaizkileek" erabiltzen zutelako ? Eta euskaldunok ez dugula, oraingoz behintzat geure Konstituziorik, geure ohitura zaharrak ez badira!.